# Durangaldean emakumeen kontrako indarkeria kasuetan jarduteko eta koordinatzeko II. protokoloa

Abadiño, Berriz, Durango eta Elorrioko udalak, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa , Osakidetza eta Ertzaintza

**2017**

Abadiño
Elizateko Udala

berrizko
UDALA

DURANGO
Udala · Ayuntamiento

Elorrioko udala

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa
Mancomunidad de la Merindad de Durango

Osakidetza
BARRUALDE-GALDAKAO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BARRUALDE-GALDAKAO

ERTZAINTZA

**Titulua**
Durangaldean emakumeen kontrako indarkeria kasuetan jarduteko eta koordinatzeko II. protokoloa

**Argitaratzaileak**
Abadiño, Berriz, Durango eta Elorrioko udalak

**Laguntza teknikoa**
Isabel Abella Ruiz de Mendoza (Abella Legal) & María Naredo Molero (Sua Fenoll Flórezen laguntzarekin)

**Onarpen-data**
2017ko azaroaren 24a

Gu guztiontzat;
emakume jaio izate
hutsagatik
indarkeriari aurre egin
behar diogun
emakumeontzat.

1. AURKEZPENA ... 6
2. ERABAKIAK ... 8
3. ARAU-MARKOA ... 9
4. HELBURUAK ... 13
5. TERMINOLOGIA ETA KONTZEPTUAK. ... 14
6. ESKU-HARTZE PROFESIONALERAKO JARRAIBIDEAK. ... 22
7. JARDUERA-EREMUAK ... 37
8. ESKU-HARTZE KOORDINATURAKO PROZEDURAK ... 62
9. ERAKUNDEEN KOORDINAZIOA ... 71
10. DATU PERTSONALEN BABESA ... 76
11. ADIERAZPEN PUBLIKOAK ETA EKINTZAK ... 78
12. FINANTZAKETA ... 79
13. SEGIMENDUA ETA EBALUAZIOA ... 80
14. KOMUNIKAZIOA ... 81
15. INTERPRETAZIOA ETA ARGITALPENA ... 81
16. BERRIKUSPENA ETA INDARRALDIA ... 81
17. SINADURAK ... 82
18. ERANSKINAK ... 83

I. ERANSKINA. Lotura interesgarriak. ... 84
II. ERANSKINA Datu pertsonalak jasotzeko eta lagatzeko eskaera-eredua ... 87
III. ERANSKINA Protokoloaren segimendua eta ebaluazioa egiteko fitxak. ... 89
IV. ERANSKINA Baliabide interesgarriak. ... 99
V. ERANSKINA Erreparatzeko ekintzak. ... 105
VI.

# 1. AURKEZPENA

Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen eta oinarrizko eskubideen urraketa da, genero-arrazoiengatiko diskriminazioan oinarritzen da eta oinarrizko eskubideak ukitzen ditu; hala nola, bizitzarako eskubidea, osotasun fisiko eta psikikorako eskubidea, osasunerako goi-mailako eskubidea, torturarik edo tratu txarrik ez jasateko eskubidea edo bizilekua eta lana askatasun osoz aukeratzeko eskubidea. Emakumeek jendartean erabateko parte-hartzea izan dezaten eragozten du, eta haien ongizatea kaltetzen du errotik. Emakumeen aurkako indarkeria egiturazkoa da eta dimentsio asko ditu; hortaz, eragozpen nabarmena da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, garapena eta bakea lortzeko.

NBE Emakumeak erakundearen iritziz, mundu osoko emakumeen % 35ek indarkeria fisiko eta/edo sexuala jasan du bikotekidearen eskutik, edo indarkeria bikotekidea ez den beste pertsona baten eskutik bizitzako uneren batean. Mundu osoko hamar neskatotatik batek baino gehiagok, 120 milioi inguruk, behartutako koitoa edo behartutako beste mota bateko sexu harremanak izan dituzte bizitzako uneren batean. Urtero, 246 milioi inguru neska-mutilek eskolarekin loturiko indarkeria pairatzen dute.

Europar Batasuneko emakumeen % 43k bikotekideak eragindako nolabaiteko indarkeria psikologikoa pairatu du bizitzan zehar. Hamar emakumetatik batek dioenez, ziber-jazarpena pairatu du 15 urtez geroztik, eta horrek esan nahi du gogoz kontrako mezu elektroniko edo SMS mezuak jaso izan dituela, sexualki esplizitu edo iraingarriak, edo sare sozialetan ahalegin desegoki edo iraingarriak pairatu izan ditu. Arriskurik handiena 18 eta 29 urte arteko emakume gazteenek pairatzen dute. 2014. urtean, euren sexu-orientazioan lesbianak edo bisexualak zirela edo beste aukeraren bat aipatzen zuten elkarrizketatutako emakumeen % 23k adierazi zuen bi sexuetako erasotzaileengandik indarkeria fisiko eta/edo sexuala jasan zutela, emakume heterosexualen % 5aren aldean. Beste alde batetik, osasun-arazoren edo desgaitasunen bat duten emakumeen % 34k dio indarkeria fisiko edo sexuala pairatu duela bikotekidearen eskutik bizitzako uneren batean; osasun-arazo edo desgaitasunik ez duten emakumeen artean, ordea, % 19 dira.

Genero-indarkeriaren aurkako Espainiar estatuko Gobernu Ordezkaritzak 2015ean egindako makro-inkestaren arabera, Espainiako estatuan bizi diren 16 urte edo hortik gorako emakumeen artean bikotekidearen edo bikotekide-ohiaren erasoren bat jaso dute, % 12,5ek indarkeria fisiko eta/edo sexuala; % 25,4k indarkeria psikologikoa; % 21,9k indarkeria psikologiko emozionala eta % 10,8k indarkeria ekonomikoa.

Euskadin, 2015ean, ia 4.000 emakumek egin behar izan zioten aurre bikotekide edo bikotekide-ohiaren indarkeriari edo etxe barruko indarkeriari.

Zifra horiek guztiak gure udalerrietan erroldaturik dauden emakumeengana ekarriz gero, tamaina izugarria da.

Errealitate horren aurrean erakundeen erantzuna eta koordinazioa hobetzeko, **Abadiño, Berriz, Durango eta Elorrio**ko udalek, **Ertzaintza, Osakidetza eta Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa**rekin batera, **Sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta hobetzeko Durangaldeko Erakundeen arteko koordinaziorako I. protokoloa** onartu zuten 2011n. 2014an haren inplementazioari buruzko ebaluazioa egin zen, hobetu beharreko hainbat alderdi aurkitu ziren, besteak beste, bikotekideak edo bikotekide-ohiak eragindakoez gain, emakumeen aurka eragindako bestelako indarkeria batzuen aurrean –mota guztietako indarkeria, ez bakarrik sexu-indarkeria– erantzun osoa eta koordinatua ematearen garrantzia; eta emakumeentzako

arreta, babesa eta justizia bilatzeko ibilbideekin loturik, beste erakunde batzuekiko komunikazioa eta koordinazioa indartzea.

Horrez gain, 2014 eta 2015. urteetan hobekuntza handiak egin ziren bai estatuko bai Europako araudietan emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez. **Emakumeen aurkako indarkeria eta etxe barruko indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko Europako Hitzarmena** indarrean jarri izanak behartu egiten ditu administrazio publikoak bikotekideak edo bikotekide-ohiak eragindako indarkeriaren aurrean ez ezik emakumeen aurkako gainerako indarkeria forma guztien aurrean erantzutera. Sektore askotako erantzuna eskaintzeko ardura ere ezartzen du hitzarmenak, banakako kasuen aurreko jarduerak –biktimak hautemanez eta haiei arreta eskainiz– eta prebentzio orokorrerako ekintzak eta feminizidio kasuen aurrean erakundeek izan beharreko erreakzioak egituratzeko.

Giza eskubideen errespetua, babesa eta sustapena lehenengo mailako betebeharra dute administrazio publikoek.

Udalen eremuan, protokoloa sinatu duten udalek hainbat atxikipen eta erakunde-adierazpen egin dituzte azken urteotan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko duten konpromisoa berresteko. Hala, indarkeria sexistaren aurrean eman beharreko erantzunari buruz atal berezia duen **emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako udal-ordenantza** onartu zuen Abadiñoko Udalak 2015eko apirilaren 28an.

Testuinguru hori izan da honako **Durangaldean emakumeen kontrako indarkeria kasuetan jarduteko eta koordinatzeko II. protokoloa**ren iturburua.

**II. protokolo honek zabaldu egiten du sinatu duten erakundeen lan- eta koordinazio-markoa**, bereziki, emakumeen aurkako indarkeria gauzatzen den bestelako mota eta eremuei dagokienez. Indarkeriari aurre egin behar izaten dioten emakumeen berezitasunak ere onartzen eta kontuan hartzen ditu; hala nola, lurraldea, kultura, alderdi pertsonala, alderdi sozioekonomikoak eta sexualak, bai eta beharrizan espezifikoak ere, ezein ezaugarri edo berezitasunek ez baitu justifikatzen emakumeen oinarrizko eskubideen urraketa.

Protokolo honek jendarte eta elkarteen ehunera ere hedatzen du koordinazioa. Aipatu dugun makro-inkestaren arabera (2015), indarkeria fisikoa, eta/edo sexu-indarkeria eta/edo bikotekide edo bikotekide-ohiarenganako beldurra pairatu duten emakumeen % 55ek **ez du laguntzarako ohiko zirkuituetara jotzen**, eta **% 81ek inguruko pertsonaren bati eman diote egoeraren berri**. Hori dela eta, bereziki garrantzitsua da herritarrak sentsibilizatzea eta udalerrian erabilgarri dauden baliabideen berri ematea, indarkeriaren hautaketa eta laguntza hobetzeko.

Protokolo hau emakumeen eta gizonen askatasuna eta berdintasuna sustatzeko neurri izatea espero dugu; neurri eraginkor eta benetakoa, eta emakumeak ahalduntzeko ez ezik, emakume izate hutsagatik pairatu behar izaten duten indarkeria mota oro errotik desagerrarazteko ere balio izatea.

# 2. ERABAKIAK

**Lehenengoa.-** Abadiño, Berriz, Durango eta Elorrioko udalerrietan indarkeria pairatzen duten emakumeei laguntzen, babesten, berreskuratzen, kasuak ikertzen eta aurrea hartzen lan egiten duten erakundeen arteko koordinazioa hobetzea eta jardunbide homogeneoak finkatzea, horrela, osasun arloan, polizialean, judizialean eta gizarte arloan emakume horiei babes eta arreta osoa bermatzeko.

**Bigarrena.-** Akordioa sinatzen duten erakundeek beren jarduera akordio honen arabera gauzatzeko konpromisoa hartzen dute, haren eskumenak errespetatuta.

**Hirugarrena.-** Honako protokolo hau zabaltzeko, inplementatzeko, haren segimendua eta ebaluazioa egiteko behar diren baliabide material, giza baliabide eta baliabide teknikoak ahalbidetzea eta protokoloa indarrean dagoen bitartean, hainbat mahai eta sektoretan egingo diren bileretan eta formazio-saioetan parte hartzea.

**Laugarrena.-** Emakumeen aurkako indarkerian espezializatutako formazio eta gaitze sendoa eta/edo generoan espezializatutako formazioa bultzatzea eta bermatzea koordinazio-mahaietan erakunde bakoitzaren ordezkari jardungo duten profesionalei.

**Bosgarrena.-** Pairatzen duten indarkeriaren ondorioz emakumeei eragindako kalte guztiak erreparatzeko neurriak bultzatzea eta haiek ahalduntzeko prozesu indibidual zein kolektiboak sendotzea, behar beste baliabide eta zerbitzu –irisgarri eta kalitatekoak– haien eskura jarriz.

**Seigarrena.-** Erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetza bermatzea, eta protokolo honen helburuak lortzeko beharrezkoak liratekeen lankidetza eta kooperaziorako tresnak garatzea, bereziki emakumeen –eta are zehazkiago emakume desgaituen, edo etnia, jatorria, adina, adikzio, hezkuntza maila baxua edo bestelako berezitasunen bat dutenen– eskubideen arreta eta defentsan espezializaturiko gizarte zibileko erakunde eta bestelako zerbitzu publikoekin.

**Zazpigarrena.-** Emakumeen ez diskriminaziorako eskubidearen eraginkortasuna bermatzea, edozein inguruabar eta baldintzapean, beharrezkoak diren oztopo guztiak desagerraraziz eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izan dadin baldintzak bultzatuz.

**Zortzigarrena.-** Emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen zuzen, kultural eta sinbolikoen aurrean jendartearen eta erakundeen arbuioa zabaltzea, bai eta desberdintasunen eta injustizien ondoriozko egiturazko indarkeria sistematikoa ere.

# 3. ARAU-MARKOA

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko borrokaren inguruan, Europako, estatuko eta Euskadiko araudiak xedatutakoarekin bat dator II. protokoloa. Jarraian erreferentziazko araudia soilik azalduko dugu; izan ere, onartuta dagoen guztia aipatzeak oso luze joko luke zeharkako alderdiak, hala nola dibertsitate funtzionala, adina, jatorria, sexu-orientazioa eta genero-identitatea, etab. eta gauzatzen den lekuak edo erakunde bakoitzak berezko duena ere kontuan hartuko bagenitu.

Hain zuzen, protokolo honen araudi-markoa honako hau da:

∝ **Nazioarteko araudia.**

- Eskubide zibil eta politikoen nazioarteko ituna, 1966.
- Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen nazioarteko ituna, 1966.
- Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak desagerrarazteari buruzko hitzarmena, 1979 (CEDAW) eta haren aukerako protokoloa, 2000.
- Haurren eskubideei buruzko nazioarteko konbentzioa, 1989.

NBEk, 1995ean Beijingen egin zen Emakumeari buruzko Mundu mailako IV. Konferentzian, inflexio-puntu bat finkatu zuen genero-berdintasunari buruzko munduko agendan, eta onartu zuen **emakumeen aurkako indarkeria berdintasuna, garapena eta bakea lortzeko eragozpena dela, eta emakumeek giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak gauzatzeko aukerak urratzen eta gutxiesten dituela.** Konferentzia horretan **Beijingo Adierazpena eta Ekintzarako Plataforma** onartu ziren; erabaki horiek emakumeen ahalduntzearen aldeko egitaraua osatzen dute, eta funtsezko hamabi alderditan –besteak beste, emakumeen aurkako indarkeria– **emakumeen aurrerapena** eta **genero-berdintasuna** lortzeko neurriak jasotzen dira.

∝ **Europako araudia.**

- 2011ko apirilaren 5eko 2011/36 Zuzentaraua, Parlamentua eta Kontseiluarena, gizakion trataren prebentzioari eta haren aurkako borrokari eta biktimen babesari buruzkoa.
- 2011ko abenduaren 13ko 2011/92/UE Zuzentaraua, Europako Parlamentua eta Kontseiluarena, sexu gehiegikerien, adingabekoen sexu-esplotazioaren eta haurren pornografiaren aurkako borrokari buruzkoa, Kontseiluaren 2004/68/JAI erabaki-markoa ordezten duena.
- 2011ko abenduaren 13ko 2011/99/UE Zuzentaraua, Europako Parlamentua eta Kontseiluarena, babeserako Europako aginduari buruzkoa.
- 2012ko ekainaren 14ko Ebazpena, Europako Parlamentuarena, emakumeen genitalen mutilazioa desagerrarazteari buruzkoa.
- 2012ko urriaren 25eko 2012/29/UE zuzentaraua, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, delituen biktimen eskubideei, aldekotasunei eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzen dituena.
- 2013ko ekainaren 12ko 606/2013 zk.dun Araudia (EB), Europako Parlamentu eta Kontseiluarena.

- 2014ko otsailaren 25eko Ebazpena, Europako Parlamentuarena, Kontseiluari emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokari buruzko gomendioak helarazten dizkiona.

∝ **Europako Kontseilua.**

- Haurrak sexu-esplotazio eta gehiegikeriaren aurrean babesteko hitzarmena, 2007ko urriaren 25ekoa (Lanzaroteko Hitzarmena).
- Emakumeen aurkako indarkeriari eta etxe barruko indarkeriari aurre egiteko eta hura prebenitzeko Europako 2011ko Hitzarmena (Istanbuleko hitzarmena), Espainiako estatuak 2014ko abuztuan berretsia.

∝ **Estatuko araudia.**

- Espainiako Konstituzioa, estatuko ordenamendu juridikoa artezten duen arau gisa, besteak beste honako hauek hartzen dituena: pertsonaren duintasuna (10.1 art.), berdintasunerako eta diskriminaziorik ez pairatzeko eskubidea (14. art.), ohorerako, intimitate pertsonal eta familiarrerako eta norberaren irudirako eskubidea (18.1 art.), osotasun fisiko eta moralerako eta tratu iraingarririk ez pairatzeko eskubidea (15. art.) eta norbanakoaren eta norbanakoa kide den taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen baldintzak bultzatzeko betebeharra, 9. artikuluan jasotzen dena. 2.
- 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzkoa.
- 27/2003 Legea, uztailaren 31koa, Etxeko Indarkeriaren Biktimen Babeserako Agindua arautzen duena.
- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko Babesa emateko Neurriei buruzkoa, araudietan mugarri bihurtu dena eta aurrerantzean, Indarkeriari buruzko oso-osoko Legea izendatuko dena.
- 3/2007 Legea, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa, 14. artikuluan xedatzen diren botere publikoen jarduerarako irizpide orokorren artean honako hau jasotzen duena: urrakortasun bereziko kolektiboek dituzten eragozpen bereziak kontuan hartzea, eta horien artean daude espresuki genero-indarkeriaren biktimak eta emakume migranteak. Lege horrek lagundu egiten du emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerrarazten eta gizarte-kohesiorako eredu berrirako oinarriak finkatzen.
- 1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzeko araudia onartzen duena.
- 1917/2008 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak laneratzeko programa onartzen duena.
- 95/2009 Errege Dekretua, otsailaren 6koa, Justizia Administrazioari laguntzeko Administrazio Erregistroen Sistema arautzen duena.
- 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, delituaren biktimaren Estatutuari buruzkoa.

- Haurtzaroa eta nerabezaroa babesteko legeak: 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, haurtzaroa eta nerabezaroa babesteko sistema aldaraztekoa, eta 26/2015 Legea, uztailaren 28koa, haurtzaroa eta nerabezaroa babesteko sistema aldaraztekoa.

∝ **Autonomiako araudia.**

- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
- 148/2007 Dekretua, irailaren 11koa, etxeko eremuan tratu txarren biktimak diren emakumeen harrerarako baliabideak arautzen dituena.
- 124/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak arautzen dituena.
- 12/2008ko Legea, abenduaren 5ekoa, gizarte zerbitzuei buruzkoa.
- 15/2012ko Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema antolatzekoa.
- 2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa.
- 2014ko urriaren 29ko Agindua, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitakoaren arabera genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei diru-laguntzak emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duena, (1/2004 Legea, genero-indarkeriaren aurkako oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa).

∝ **Udal-araudia.**

- Abadiñoko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko ordenantza, 2015eko apirilaren 28an onartua.

Horrez gain, gai honen inguruko beste hainbat protokolo eta bestelako tresna garrantzitsu onartu dira:

- Emakumeen Genitalen Mutilazioaren (EGM) aurreko osasun-jarduerarako protokolo komuna, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioarena, 2015.
- Genero-indarkeriaren aurreko osasun-jarduerarako protokolo komuna, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioarena, 2012.
- Etxeko eremuko haurren tratu txarren aurka esku-hartzeko oinarrizko protokoloa, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa, 2014.
- Etxeko eremuko tratu txarren eta sexu-erasoen aurreko osasun-protokoloa, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarena, 2008.
- Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioa, Eusko Jaurlaritza, 2009.
- Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana, Hezkuntza Sailarena, Eusko Jaurlaritza, 2013.
- Protokoloa, hezkuntza-esparruan haur eta nerabeek jasan ditzaketen babesgabetasun-egoerak eta tratu txarrak, abusua eta sexu-jazarpena prebenitzeko eta egoera horietan

jardutekoa, eta hezkuntza-esparruan eta adingabeen babesean esku hartzen duten eragileen arteko lankidetza eta koordinaziorakoa. Eusko Jaurlaritza, 2016.

- Ikastetxeei zuzendutako protokoloa, ikasle transei edo genero portaera ez normatiboa dutenei eta haien familiei laguntzeko. EUSKO JAURLARITZA, 2016
- Sinatzen duten udaletako Berdintasun Planak.

# 4. HELBURUAK

Protokolo honen helburu nagusia da **bermatzea emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean modu egoki, espezializatu, koordinatu eta kalitatekoan jardungo dutela** udal zein mankomunitateko erakunde publikoek eta halaber, gai horretan eskumena duten autonomiako gainerako erakundeek ere. Hitz bitan, **biktimen eskubideak lehengoratu eta bigarren biktimizazioa eragotziko duen erantzun indibidualizatua, garaiz emandakoa eta irisgarria** bermatzea.

II. protokoloak honako helburu espezifiko hauek ditu:

- Protokoloa sinatu duten erakundeak inplikatzea indarkeria hautematen eta emakumeei arreta eta babesa eskaintzen.
- Erakunde guztien koordinazio profesionala bultzatzea haien arteko informazio-igorpen jarraitua bermatzeko.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan lengoaia partekatua eta lanerako espazio bat sortzea, ematen den arreta profesionala hobetzen laguntzeko eta haien formazio espezializatua bermatzea.
- Prebentzio, hautemate, arreta, babes eta oneratzeko zereginekin konprometituriko baliabideen sare osoa eratzea, eta haien eraginkortasuna hobetzea, emakumeen ahalduntze indibidual eta kolektiboaren ikuspuntutik.
- Emakume guztientzako behar adina baliabide daudela eta eskuragarriak eta kalitatekoak direla bermatzea eta ziurtatzea, bai halaber, protokoloa ezartzeko behar direnak ere.
- Erakunde publikoen eta gizarte zibileko erakundeen arteko lankidetzarako bideak ahalbidetzea kasuen prebentzio, hautaketa eta akonpainamendurako eta emakumeen kontrako indarkeriari behar bezala aurre egiteko inplikazioa eskatzea.
- Sinatu duten udalerrietako biztanleei emakumeen aurkako indarkeriaren larritasuna eta iraunkortasuna ikusaraztea.

# 5. TERMINOLOGIA ETA KONTZEPTUAK.

Protokolo honetan "Emakumeen aurkako indarkeria" terminologia erabiltzen da, Euskadiko Emakumeen Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 50. artikuluan eta Istanbuleko Hitzarmenean xedatzen denari jarraikiz. Hortaz, honako Protokolo honetan **EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA**tzat joko da honako hau:

> Sexuaren ziozko indarkeriazko edozein ekintza joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira, halaber, emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan.

Emakumeen aurkako indarkeria-adierazpen orok hainbat ezaugarri ditu, batik bat bi erreferentzia nagusiren inguruan egituratzen direnak: alde batetik, indarkeriaren beraren xede, hots, gizonek, botere-adierazpen gisa, **emakumeen kontrola lortzea**, eta gizonek, euren irizpidetik urrundu den oro ezartzeko edo "zuzentzeko" indarkeria erabil dezaketela ulertzen eta onartzen duen kultura baten argudioetan errotzen diren motibazioak.

Patriarkatuak rol eta estereotipo batzuk esleitu dizkie emakumeei eta gizonei sexu/genero sistema baten barruan, eta horien arabera, balorazio desberdinak eta hierarkia ezartzen dira. Esleitutako rol horiek eta hierarkia horrek hainbat zigor ekartzen dituzte **(indarkeria sinbolikoa)**; zeinek, oro har, ezarritako eredua apurtzea dakarren guztia gutxiesten eta kritikatzen duten, eta zehazki hartuta, arau horiek zalantzan jartzen dituzten edo propiotzat hartzen ez dituzten emakumeen sektoreak estigmatizatzen dituzten. Indarkeria horrek tolerantzia sozial handia dauka, kulturalki onartua eta txertatua dagoelako.

Badira bestelako indarkeria batzuk protokolo honetan jasoko ez diren arren, aztertzen eta garatzen hasi behar direnak, hala nola **indarkeria matxista**, zentzu zabalago batean, espazio fisiko eta sinboliko guztietan emakumeen kontra ez ezik, tradizionalki esleituta dauden sexu/genero/sexualitate eskemak apurtzen dituzten emakume eta gizonen aurka eta egitura biologikotik nahiz portaera sexualetik eskema hori desafiatzen duten gorputz guztien (intersex, transgenero, etab.) aurka ere gauzatzen dena.

Horregatik guztiagatik, **protokolo honen babes-subjektua ondoren zehaztuko diren espazio eta moduetan gizon batek eragindako indarkeriari aurre egin dion edo egin behar dion emakumea (adingabekoak barne) eta, bidezkoa denean, haren mende dauden adingabekoak izango dira.**

Honen barruan sartuko da **bikote lesbianetan emakume batek eragindako indarkeria** ere, indarkeria hori betikotu egiten baita ezarritako rol sexualen sistemaren funtsean dauden heterosexismoa/homofobia eta misoginia arau elkarlotuak barneratuta daudelako.

∝ **Emakumeen aurkako zuzeneko indarkeria motak** dira honako hauek**:**

1. **Indarkeria fisikoa:** emakume baten gorputzaren aurkako edozein indarkeria-egintza edo sorospen-eginbeharra ez betetzea da, nahita edo arduragabekeriaz gertatua eta kalte fisiko edo minen bat eragiten duena edo eragin dezakeena. Eraso fisikoak izan ohi dira: kolpeak ematea, jotzea, ebakiak eragitea, zulatzea, erretzea, etab. Indarkeria mota hori sarritan arrisku oso handikoa izaten da emakumeentzat, osotasun fisikoa arriskuan izan ohi dute eta hiltzeko arriskuan ere egon daitezke. Sorospen-eginbeharra ez betetzea ere bada, nahita edo arduragabekeriaz gertatua eta kalte fisiko edo minen bat eragiten duena edo eragin dezakeena.

2. **Indarkeria psikologikoa**: emakumearengan gutxiespena edo sufrimendua eragiten duen portaera oro edo nahitaezko ez-egitea da: mehatxuak, umiliazioa, irainak, obedientzia edo mendekotasuna behartzea, ahozko hertsadura, hobenak, isolamendua edo haren askatasunaren beste edozein mugapen. Indarkeria psikologikoak osotasuna eta duintasuna urratzen ditu, eta haren ondorioak neke handiz gainditzen dira, emakumeen autoestimua narriatzen baitute.

3. **Sexu-indarkeria:** emakumeak onartu ez duen izaera sexualeko edozein egintza da, bai eta sexu harremanen exhibizioa, behaketa eta inposaketa, indarkeria, larderia, prebalentzia edo manipulazio emozionalaren bidez. Sexu-indarkeria eremu sozialean, nahiz familia eta bikote eremuaren barruan gertatzen da, eta gizonek emakumeen kontra erabiltzen dute botere eta gehiegikeriarako tresna gisa. Azkeneko gariotan **sumisio kimikoa** erabiltzen ari dira emakumeen askatasun sexualaren kontrako delituak egiteko.

4. **Indarkeria ekonomikoa:** emakume baten –eta, seme-alaben– ongizate fisiko edo psikologikorako baliabideak nahita eta justifikaziorik gabe ukatzea eta baliabide propioak edo etxe barruan edo bikotean partekatutakoan erabiltzeko mugak jartzea da: bankuko kontuetarako sarbidea mugatzea, elikagaiengatiko pentsioa, konpentsazio-pentsioa, hipoteka etab. ordaintzeko betebeharra nahita urratzea. Mendekotasun ekonomiko behartua ezartzea eta mantentzea da. Horren barruan, emakumeari autonomia ekonomikorako eskubidea uka dakioke, ordainduriko lana bilatzeko edo onartzeko eskubidea edo eskubide hauen berri jasotzeko ezagutza eta formazioa jasotzeko baliabideetara iristea ere.

5. **Indarkeria soziala edo emakumeen duintasuna, osotasuna, intimitatea, norberaren irudia, ohorea edo askatasuna kaltetzen duten edo kalte dezaketen antzeko beste edozein forma.**

∝ **Indarkeria non gauzatzen den.**

1. **Bikotekideak edo bikotekide-ohiak** eragindako indarkeria.

Emakumearen aurka bere bikotekidea den edo izan den edo antzeko afektibitate-harremanen batengatik hari loturik dagoen gizonak eragindako indarkeria fisiko, psikologiko, sexual edo ekonomikoa da.

2. **Familia-eremuko** indarkeria.

Familiaren barruan eta, harreman-afektiboen edo familia-inguruko loturen markoan, familiako bertako kideek emakumeen eta adingabekoen aurka eragiten duten indarkeria fisiko, sexual, psikologiko edo ekonomikoa da. Hemen ez da sartzen aurreko atalean definitu den bikote-eremu barruan eragindako indarkeria.

3. **Lan-eremuko** indarkeria.

Indarkeria fisiko, sexual edo psikologikoa da, lantokian bertan eta lanorduetan zein lantokitik eta lanorduetatik kanpo ere gerta daitekeena, betiere lanarekin lotuta dagoenean. Bi modutakoa izan daiteke:

• **Sexuagatiko jazarpena.** Gogoz kontrako portaera da, pertsona baten sexuarekin lotuta dago, ordaindutako lan-mundurako sarbidearekin, lan tokiko edo okupazioaren promozioa edo formazioarekin zerikusia dauka eta emakumeen duintasunaren aurka eragitea edo eragin hori lortzea eta beldurrezko eta etsaitasunezko ingurune laidogarri, umiliagarri eta mingarria sortzea ditu xede.

• **Sexu jazarpena.** Sexu izaera duen gogoz kontrako edozein portaera da, ahozkoa, ez-ahozkoa edo fisikoa, eta emakumeen duintasunaren aurka eragitea edo eragin hori lortzea eta beldurrezko eta etsaitasunezko ingurune laidogarri, umiliagarri, mingarri edo gogaikarria sortzea ditu xede.

4. **Eremu sozialeko edo erkidegoko** indarkeria: askatasun sexualaren kontrako delituak, emakumeen genitalen mutilazioa, behartutako ezkontzak, gatazka armatuen ondoriozko indarkeria, emakumeen sexu eta erreprodukzio eskubideen kontrako indarkeria (abortu selektiboak eta behartutako esterilizazioak) etab., eta gorroto-delituak.

5. **Hezkuntza-eremuko** indarkeria: sinatu duten udalerrietako ikastegiren bateko ikasle baten (neska) aurka beste ikasle batek (mutila), ikastegiko langileetako batek, ikastegiko langile ez den senitarteko edo beste pertsonaren batek eragindako indarkeria da (bai eta bullyinga[1] ere), eta ikastegiko emakume langileren baten edo ikasleren baten ama baten kontra eragiten dena ere bai.

6. **IKTetako** indarkeria edo **genero-ziberdelinkuentzia**.

Jarraian, indarkeria mota hau garatuko dugu, berria delako.

Jendarteak aktiboki parte hartzen duen inguruneetan (IKT) sortzen diren jendartearen interakzio-forma berriek indarkeria modu eta/edo espazio berri bat eragin dute, IKTak baliatuz

---

[1]***Bullying-a.*** *"Bully" hitzak "harroputza" edo gaztelaniazko "matón" adierazten du, eta jazarpen-jarduera horren barruan sartzen dira: bazterkeria, estortsioa, barregarri uztea, etab. Beraz, "bullying" esaten denean denboran errepikatzen diren ekintzez ari gara; normalean pertsona helduen begiradatik urrun gertatzen direnak, eta pairatzen dituen pertsonak umiliatzea eta mendean hartzea helburu dutenak. Jazarpen-egintza hori hainbat modutan gauza daiteke: ekintza psikologiko, fisiko eta/edo sozialen bidez, besteak beste. Hortaz, honako hauek dira bullyinga kontzeptualizatzeko eta identifikatzeko kontuan hartu beharreko alderdiak:*

- *Jazartzailearen eta jazarpena jasaten duenaren arteko botere-desoreka.*
- *Intentzionalitatea*
- *Egintzak behin eta berriz errepikatzea.*
- *Adingabetasuna.*
- *Gertatzen den espazioa (teknologia berrien berezitasunak kontuan hartuta).*

*Garrantzitsua da kontuan hartzea bullyingaren fenomenoan generoaren alderdia oso garrantzitsua dela (bullying homofobikoa /lesbofobikoa /transfobikoa / bifobikoa, sexu-orientazioan eta/edo genero-identitatean oinarrituta dauden indarkeria matxistaren mota espezifiko gisa). Ingurunerik ohikoena ikastegiak dira, baina hori hasiera baino ez da izaten; izan ere, IKTen bidez hori gainditu egiten baitute (ziberbullyinga, etab.).*

emakumeen kontra eragiten den indarkeria. **Adingabeko neskak** dira portaera mota horrek gehien kaltetutako sektorea, baina ulertu behar da **edozein emakume izan daitekeela portaera horien biktima**.

IKTetan jendarte patriarkalaren ereduak berregiten dira gazteen bidez. Emakumeak gauza bihurtzea, emakumeen gorputzari paiararazten zaion komertzializazioa, emakumeen kontrako indarkeriaren iraupena edo maitasun erromantikoaren ideia portaera matxistak normaltzat hartzea eta gauzatzea bultzatzen duten ideiak dira; kasu honetan, errealitate birtualean. Indarkeria birtual hau eta indarkeria tradizionala biak elkarrekin existitzen dira, baina bakoitzaren intentsitatea eta harremanetan, edo alderdi psikologiko eta babesari edo probei dagokienean duten eraginak aldeak ditu batetik bestera.

Indarkeria mota honek aurpegi asko ditu. Ondoren zerrendatu ditugun portaerak mota horretakoak izan daitezke, eta nahiz eta aipatzen diren guztiek ez duten delitua eragiten, delitua eragiteko aurrekaria izan daitezke, eta adi egoteko seinalea izan daitezke, bai eta aukera hori aurretiaz hautematea hobetzeko bidea ere.

- Sare sozialetan egiten dituzten iruzkinak zelatatzea.
- Lagunen argitalpenak eta argazkiak ikuskatzea eta gaitzespenak egiteko edo harremanak zalantzan jartzeko erabiltzea.
- Emakumearen baimenik gabe haren argazkiak argitaratzea edo mezu maitekorrak txertatzea, emakumearen kontaktuek harreman bat duela jakin dezaten.
- Profilean iruzur-aztarnak bilatzea.
- Gustuko ez dituen pertsonak emakumearen kontaktuen zerrendatik kentzeko estutzea.
- Bera sare sozialetan txertatzeko exijitzea.
- Profilak kontrolatzeko eta mezuak irakurtzeko, pasahitzak lortzeko modua bilatzea.
- Profiletik argazkiak kentzeko exijitzea, nola agertzen den gustatzen ez zaiolako.
- Beste gizon batzuekin agertzen diren argazkiak argitaratzen badituzte, nor diren eta non ezagutu zituen azaltzeko estutzea.
- Sareetako profilean emakumearen egoera sentimentalaren berri eman dezan behin eta berriz eskatzea.
- Jasotzen dituen mezu elektronikoak bera aurrean dela irakurtzeko estutzea.
- Xantaia gisa, sare sozialetan argazkiak edo informazio intimoa argitaratuko duela mehatxu egitea.
- Sareen bidez ezezagunen sexu-jazarpena jasatea.
- Sakelako telefonoaren edo sarean dituen kontaktuen kontrola.
- Biktima iraintzeko, mehatxatzeko edo umiliatzeko blogak erabiltzea.

- ∝ GPS lokalizazio-bideak edo bestelako identifikazio geografikoko sistemak erabiltzea, une oro non dagoen kontaktuei jakinaraziko diena.

Adibide gisa, honako **delitu-portaera** hauek aipa daitezke:

- ∝ Sekretuen berri izan eta jakinaraztea (datuak, argazkiak/bideoak, kontuak, profilak lapurtzea).
- ∝ IKTen bidezko irainak eta kalumniak.
- ∝ IKTen bidezko tratu laidogarria.
- ∝ **Sexting:** *etxebizitza batean edo beste inoren begiradatik urrun dagoen edozein lekutan emakumearen onarpenarekin lortutako beraren irudiak edo ikus-entzunezko grabazioak hedatzea, jakinaraztea edo hirugarrenei ematea, kaltetutako pertsonaren baimenik gabe, hedapen horrek pertsonaren intimitatea larriki kaltetzen duenean.*

  **Zigor Kodearen 197.7. artikuluak** honako hau xedatzen du:

  *7. Hiru hilabete eta urtebete arteko kartzela-zigorra edo sei eta hamabi hilabeteko isuna jasoko du etxebizitza batean edo beste inoren begiradatik urrun dagoen edozein lekutan emakumearen onarpenarekin lortutako beraren irudiak edo ikus-entzunezko grabazioak hedatzen, jakinarazten edo hirugarrenei ematen dizkiena, kaltetutako pertsonaren baimenik gabe, hedapen horrek pertsonaren intimitatea larriki kaltetzen duenean.*

  *Zigorra erditik gorako aukeran ezarriko da egintza ezkontideak edo antzeko afektibitate-harreman batean harekin erlazionatuta dagoen edo egon den pertsonak egin duenean, elkarrekin bizi gabe ere, biktima adingabekoa denean edo babes berezia behar duen pertsona desgaitua denean, edo egintza irabazizko helburuarekin egin direnean".*

- ∝ **Sextortsioa:** Sextingaren ostean etor litekeen urratsa da. Mehatxu edo estortsiopean –**egindako proposamenak (sexu-harremanak izatea, pornografia ekoiztea, etab.) onartzen ez baditu, emakumearen irudiak IKTetan hedatuko ditu**– erasotzailea mota horretako materialaz (SMS, whatsapp, irudiak edo bideoak) jabetzen denean gertatzen da. Biktimaren gaineko kontrol eta nagusitasun elementu gisa erabiltzen da.
- ∝ **Stalking** (jazarpena edo zelata): Kalte bat eragiteko iragarpen esplizitua (mehatxuak) edo ez nahitaez gertatu gabe ere edo biktimaren askatasuna hertsatzeko indarkeria zuzena erabiltzera iritsi gabe ere (hertsapena), biktimaren askatasuna eta segurtasun-sentipena larriki urratzen duten **behin eta berriroko** portaera dira; horiek direla bide, biktima etengabeko jazarpen edo zelatapean edukitzen dute, dei errepikakorrak jasotzen ditu edo bestelako xaxatze-egintza etengabeak jasotzen ditu.

  **Zigor Kodearen 172. ter artikuluak** honako hau xedatzen du:

  *"Pertsona bati behin eta berriro jazartzen zaionari, legez baimenduta egon gabe, honako jokaera hauetako bat izaten badu, eta jokaera horrek haren eguneroko bizitza era larrian nahasten badu:*

  - *1. Pertsona bat zelatatzea, hari segika ibiltzea edo harengana fisikoki hurbiltzeko aukerak bilatzea.*

- *2. Edozein komunikazio-bideren bidez edo hirugarren batzuen bidez, pertsona harekin harremanetan jartzea edo jartzen saiatzea.*
- *3. Pertsona horren datu pertsonalak bidegabe erabiliz, produktu edo salgaiak eskuratzea, zerbitzuak kontratatzea, edo hirugarren pertsona batzuk harekin harremanetan jarraraztea.*
- *4. Pertsona horren askatasunaren edo ondarearen aurka atentatzea, edota haren pertsona hurbil baten askatasunaren edo ondarearen aurka.*

**Askatasunaren aurkako delitua** da, beraz, 500 metro baino gutxiagora hurbiltzea, haren lantokira joatea edo edozein modutan harekin komunikatzea, etab. debekatzeko kautela-neurria hartzeko bidea ematen du.

∝ Identitatearen usurpazioa (helbide elektronikoa, blogak).

∝ Txartelen iruzurrezko erabilera (carding, Interneten erosketak egitea).

∝ Kalteak (ekipamenduak, enpresak, jarduera profesionala).

∝ **Grooming** eta adingabekoak galbidean jartzea eta prostituzioaren inguruko delituak. Zigor Kodearen 183. ter artikuluak honako hau xedatzen du:

*1. Norbait, Internet bidez, telefono bidez edo informazioaren eta komunikazioaren beste edozein teknologikoren bidez, hamasei urte baino gutxiago dituen adingabe batekin harremanetan jartzen bada eta harekin elkartzeko proposamena egiten badio 183. eta 189. artikuluetan deskribatutako delituetatik edozein gauzatzeko helburuarekin, eta betiere, proposamen hori adingabearengana gerturatzera zuzendutako egintzekin batera badoa, orduan, pertsona horri urtebetetik hiru arteko espetxe-zigorra edo hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio, eta, edonola ere, gauzatutako delituei dagozkien zigorrak ere ezarriko dira. Zigorrak goiko erdian ezarriko dira gerturatzea lortzen denean behartzea, larderia edo engainua erabiliz.*

*2. Norbait, Interneten bidez, telefono bidez edo informazioaren edo komunikazioaren beste edozein teknologikoren bidez, hamasei urte baino gutxiago dituen adingabe batekin harremanetan jartzen bada eta material pornografikoa lortzera zuzenduta dauden engainuzko egintzak egiten baditu, edo adingabeak irudikatzen edo agertzen dituzten iduri pornografikoak erakusten badizkio orduan, pertsona horri sei hilabete eta bi urte arteko espetxe-zigorra ezarriko zaio".*

∝ Internet bidez adingabekoak euren etxea utz dezaten eragitea.

∝ Internet bidez suizidioa eragitea.

∝ Mehatxu eta behartze informatikoak.

∝ Haurren pornografia IKTak erabilita.

Maila kolektiboen ere bada asko hedatzen ari den delitu bat, bizitza errealean ez ezik bizitza birtualean ere, IKTen bidez: **Diskriminazioaren apologia edo "gorroto-delitua".**

Zigor Kodearen 510. artikuluak, zigortu egiten ditu, besteak beste, **talde baten edo taldeko kideren baten edo pertsona jakin baten aurka hango kide izateagatik, haien aurkako gorroto, etsaitasun,**

**diskriminazio edo indarkeria publikoki, zuzenean edo zeharka, bultzatzen edo sustatzen dutenak,** sexu, sexu-joera edo identitate, **genero** edo desgaitasuna arrazoi hartuta.

IKTen bidezko indarkeriak jarduteko jarraibide espezifikoak behar ditu. Eskualdean edo goragoko instantzietan garatzen ez diren bitartean, onartuta dauden beste protokolo batzuk kontsultatzea gomendatzen dugu (Ikus I. eranskina).

∝ **Babesteko beste subjektu batzuk.**

Bikotekidearen edo bikotekide-ohiarengandik indarkeria jasotzen duten emakumeen kargu dauden **adingabeko edo mendeko pertsonen** arreta bermatzeko neurri gehigarriak bultzatuko dira eta baldintza pertsonalak kontuan hartuko dira.

∝ **Protokolo honetan erabilitako beste kontzeptu batzuk.**

- **Identifikatutako kasuak:** hauteman bai baina oraindik artatu ez diren kasuak.
- **Artatutako emakumeak:** osoko arreta-sisteman artatu diren emakumeak.
- **Salaketa egin duten emakumeak:** salaketa egin bai baina arreta-sareak artatu ez dituen emakumeak.
- **Salaketa egin eta artatu diren emakumeak:** salaketa egiteaz gain, arreta-sarean artatu diren emakumeak.
- **Emakume kontzeptuaren** barruan **adingabekoak** ere sartzen dira.
- **"Biktima" terminoa:** Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen araberakoa da erabilera hori. Eskubide zibilen jardunaren isla da, zigorgabetasuna saihesteko, eta haien sufrimendua aitortzeko, justizia- eta eragindako kalteen erreparazio-premia ikusarazteko.

  I. protokoloan, biktima kontzeptua soilik aplikatzen zen epai irmoa zegoen kasuetan. Nazioarteko estandarretan (Delituen eta botere-gehiegikeriaren biktimentzako oinarrizko justizia-printzipioei buruzko Nazio Batuen Adierazpena, 1985 eta Istanbuleko Hitzarmena) eta Delituaren Biktimari buruzko Estatutuaren Lege berrian erabilera zabalagoa da, salaketarik egon ez arren ere: biktima, delitua jasan duen eta haren egoera ziurta dezaketen erakundeekin harremanetan jartzen den pertsona.

  Gure jardun profesionalean kontuan hartu behar dugu biktima hitza erabiltzeak estigmatizazioa handi dezakeela, eta jarrera pasiboa piztu; horregatik erabiltzen dira "indarkeriari aurre egiten dioten emakumeak" edo "bizirik atera diren" emakume bezalako adierazpenak; termino horiek emakumeen ahalduntzea eragiten dute eta haien aurkako indarkeriarik gabeko bizimodu askerako eskubidearen mezua helarazten dute.

Laburbilduz, honako Protokolo honetan, ondokoa hartuko da kontuan:

- ∝ **BIKTIMA:** EMAKUME BIKTIMA
- ∝ **ERASOTZAILEA:** GIZON ERASOTZAILEA (edo emakumea, bikote lesbianen kasuan).
- ∝ **INDARKERIA MOTAK:** fisikoa, psikologikoa, sexuala, ekonomikoa eta emakumeen duintasuna, osotasuna, intimitatea edo askatasuna kaltetzen duen edo kalte dezakeen beste edozein forma.
- ∝ **ESPAZIOAK**: bikotea, familia, lantokia, gizartea/erkidegoa, hezkuntza arloa eta IKTak.

Erakunde guztiek, euren eskumenen barruan, arreta egingo diete **emakumeen kontrako indarkeria zuzeneko forma eta espazio guztiei**, eta koordinatu egingo dira gainerako erakundeekin protokolo honen helburuak lortzeko.

Protokolo hau etengabe aldatzeko eta errealitatera egokitzen joateko sortu da, eta emakumeek emakume izate hutsagatik pairatzen duten indarkeria guztietan, "Terminologia eta kontzeptuak" atalean jasotzen den bezala, esku hartzeko ibilbide guztiak jaso ezin badira ere, sinatzen duten lau udalerrietako emakumeen kontrako indarkeriaren testuingurura, aurrekarietara eta errealitate sozialera egokituz tresnak eta bermeak finkatu nahi ditu, aurreratzean arautu ahal izango diren bestelako jokalekuak marraztuz.

# 6. ESKU-HARTZE PROFESIONALERAKO JARRAIBIDEAK.

Jarraian zerrendatuko diren jarraibideak indarkeria pairatzen ari diren edo pairatu duten emakumeen eta indarkerien **errealitate eta ezaugarri partikular eta desberdinetara** eta haien beharrizanetara egokitzen jarraituko dugu (ikus, gainera, *"jarraibide espezifikoak"* atala).

∝ **Laguntza arina, oso-osokoa, begirunezkoa, pertsonalizatua, espezializatua eta errepikatuko ez delako bermea.** Emakumeen gaitasunak indartzea eta **laguntza trantsitorio eta eraginkor** bihurtzea.

∝ Genero-ikuspegitik eta emakumeen ikuspegi global eta integraletik esku hartzea.

∝ Batez ere **lehenengo esku-hartzean, lehenengo hitzordua ahalik eta azkarren finkatzeko ahalegina egin behar da, eta hitzordu horretan, enpatia eta hurbiltasuna erakutsi behar zaie, eroso, lasai, onartuak, ez-epaituak eta errespetatuak senti daitezen.** Une garrantzitsua da hori; izan ere, izango duten lehenengo zirrararen araberakoa izango da arreta-sareari buruz izango dutena ere, eta horrek eragina izango du haien segurtasunean eta konfiantzan.

∝ Elkarrizketarako:

- Ahalegina egingo dugu **bakarka artatzeko, konfidentzialtasuna eta intimitatea errazten dituen leku lasai eta pribatu batean.**
- Kontuan hartu behar da askotan emakumeek ez dutela esplizituki adierazten indarkeria pairatzen ari direla, edo ez dira horretaz jabetzen, eta erreakzionatzeko edo egoerari aurre egiteko eragozpenak izan ditzaketela.
- Behar den denbora erabiliko da, eta jarrera enpatikoa eduki behar da, errudun- edo anbibalentzia-sentipenak uxatzen lagunduta.
- **Jarrerari eta egoera emozionalari** arreta egin (ahozkoa eta ez ahozkoa).
- **Sentipenak adieraztea** ahalbidetu behar zaio.
- **Emakumeok indarkeriarik gabe bizitzeko eta gure ongizatea lortzeko eskubidea dugulako** mezu argi eta irmoa helarazi behar diogu.
- Gertakarien interpretazioa zalantzan jarri gabe, epaitu gabe sinetsi egingo diogu, eta gehiegikeria agerian jarri izanagatik senti dezakeen beldurra uxatzen lagunduko diogu.
- **Berak nahi badu, bere konfiantzazko pertsona batekin joan daiteke.**
- **Pentsatzen eta ideiak ordenatzen lagunduko diogu.**
- **Arriskuek jabearazi eta haren erabakia onartu. Ez ezarri erabaki edo irizpiderik.** Emakumeak berak hartu behar ditu erabakiak eta berak erabakiko du bere egintzen denbora zein den.
- Sekuentzia logikoari jarraitu: galdera orokor eta zeharkakoetatik hasi eta galdera zehatz eta zuzenagoekin amaitu.
- **Ez eman esperantza aizunik.**
- **Ez kritikatu jarrera edo erantzunik eza** halako esaldiekin: «Zergatik jarraitzen duzu berarekin? Egoerarekin amaitu nahi izango bazenu, joan egingo zinateke».
- **Emakumeak adierazten duen arrisku-sentipena ez gutxietsi.**

- **Ez gomendatu bikote-terapia edo familia-bitartekaritzarik, indarkeria dagoenean debekatuta dago.**

∝ Ahal dela, arreta **profesional espezializatu** batek eskainiko dio, indarkeriaren ezagutza globala eta gaiko formazio eta gaitasuna dituena eta haren bigarren mailako biktimizazioa eta saihestu eta baliabideetara iristea ahalbidetuko dioten **udaletako, eta aldundietako bitartekoak eta autonomia eta estatukoak** ere ezagutzen dituena.

∝ Emakumeak indarkeria ahoz aipatzen ez badu eta gertatu delako susmoa baldin badago, **galdera ahalbidetzaileak** egin. Honako adierazle hauei arreta jartzea garrantzitsua da: **aurrekari pertsonalak** (medikamentu, droga edo alkoholaren kontsumoa, suizidio ahaleginak, desgaitasun kasuan ez onartzea), **kontsultarako arrazoiak** (gehiegizko maiztasun-aldiak eta absentzia luzeak, hitzordu edo tratamenduak ez betetzea, osasun zerbitzuak behin eta berriz erabiltzea), zainketa pertsonalik eza, depresio-ezaugarriak eta, indarkeria fisikoaren kasuan: lesioaren eta arrazoiari buruz emandako azalpenaren arteko inkongruentzia, lesioak oso leku susmagarritan, lesioa justifikatzea, etab.

∝ Artatutako emakumeek hartzen dituzten erabakiei buruzko esku-hartze ildo batzuk zehaztea, batez ere prozesuaren une kritikoetan. Beste elementu garrantzitsu bat da **esku-hartzearen jarraitutasuna** eta behin guztiz oneratu denean, apurka-apurka ixten joatea.

∝ **Erabakiak hartzeko erritmoak errespetatu**, kontuan hartuta bizi ahal izan duen errealitateak suntsipen psikologikoa eta konfiantza, autoestimu eta ekimenerako galera eragin ahal izan duela. Ezin da haien ordez erabakirik hartu; aitzitik, haien aliatu bihurtu behar dugu eta gure ezagutzak eta esperientziak haien eskura jarri,

∝ Oso argi eduki behar da “joan-etorriko" portaerak ikus daitezkeela pairatzen duten indarkeriari dagokionez, eta haien nahia ez dela –inondik inora– artatzen ari diren pertsonak nahastea ez dauden baliabideez “aprobetxatzea”. Esku-hartzeak prozesu hori hartu behar du kontuan, ulertu eta lagundu. Alferrik erabilitako energien pertzepzioa murriztu eta/edo desagertu egiten da emakumearen erabakiak balioesten direnean; haiei balio die erabakiak aurrera ateratzeko ezintasunak eta ezintasun horrek ahalduntzeko pertsonalerako funtsezko laguntza diren zerbitzuetatik urrunaraz ditzakeela jakiteak sortzen dien larritasuna eta lotsa arintzeko.

∝ **Anonimatua** bermatzea eta, ahal den heinean, **administrazio-tramiteak** murriztea.

∝ Egiten duten **eskaera esplizituari** nahiz **inplizituari** kasu egitea. Haien diskurtsoa entzuteak eta ulertzen ditugula sentiarazteak, lotsa, estresa eta estigmatizazioa arintzen lagunduko die. Azaltzen diren eskaerak errealitatearekin doitzea, haien defentsa-estrategiak berreskuratuta eta oneratzeko prozesuan inplikazio aktiboa bultzatuta maila guztietan, emakume horien bizitzan ahalduntze-prozesuan pizgarri izan daitezkeen eremuak hauteman behar dira.

∝ Emakumeen **ahalduntzea, autonomia eta askatasuna** bultzatuko dituen ikuspegi batetik egin behar da, eta, aldi berean, emakumeen aurkako indarkeriaren eraginak eta diskriminazioa bizitzaren alderdi guztietan ikusaraziko duen ikuspegitik. Indarkeria gauzatzen duenarekiko **mendekotasun ekonomikoa** dagoen balizkoetan, emakumeei lagundu egin behar zaie autonomia pertsonal eta ekonomikoa lortzeko.

∝ **Jardun profesionalak ez du asistentzialista, paternalista, biktimista eta etnozentrikoa** izan behar; izan ere, indarkeria gainditzeko euren **jardun profesionalean etika feminista** txertatuta duten profesionalak behar dira.

- Okerreko egoera batek emakumeen kaltea eta urrakortasuna handitzen du, eta bigarren biktimizazioa eragiten du.

- Gogoratu behar da **"indarkeriari aurre egiten dion emakumearen" estereotipoa**, arrazoi askorengatik, maila kultural, ekonomiko eta sozial baxuko emakumearekin eta bi motatako indarkeriarekin lotzen dela, fisikoa eta psikologikoa, eta bikotekideak edo bikotekide-ohiak eragindakoa. Horren ondorioz, indarkeria pairatzen ari diren edo pairatu duten emakume asko ez dira sortutako estereotipo horrekin identifikatzen, eta ezin dituzte indarkeria kontzeptuaren barruan dauden indarkeria mota guztiak identifikatu; are gehiago, kontuan hartzen badugu, bizi izan den edo bizitzen ari den indarkeriarekiko kontzientzia maila aldakorra eta subjektiboa dela.

## Jarraibide espezifikoak

Giza eskubideak unibertsalak dira eta pertsona guztiei aplikatuko zaizkie sexu, arraza, kolore, hizkuntza, erlijio, iritzi politiko edo bestelako iritzi, jatorri nazional edo sozial, gutxiengo nazional bateko izatea, aberastasuna, jaiotza edo bestelako baldintzagatiko diskriminaziorik gabe. Gehiengoaren "arau"tik irteteak aldaketa soziala dakar, justizia sozialerako bidean aurrera egiteko erronka.

Indarkeriari buruzko oso-osoko Legearen 17.1 artikuluak dio bertan jasotzen diren eskubideak genero-indarkeriaren biktima diren emakume guztiei aplikatuko zaizkiela, **euren jatorria, erlijioa edo beste edozein baldintza nahiz inguruabar pertsonal edo sozial gorabehera.**

Badira indarkeriari aurre egin behar izateko arriskua handitzen eta eskubideetara, zerbitzuetara eta baliabideetara iristeko eragozpen izan daitezkeen inguruabar batzuk: adina, jatorria, etnia, dibertsitate funtzionala, sexu-orientazioa eta genero-identitatea, hezkuntza eta gizarte maila, drogazaletasuna, etab.

**Profesionalek emakumeek dituzten inguruabar eta beharrizan espezifiko horietara egokituko dute haien jarduna.**

### ▪ Jatorria

Indarkeriari aurre egin behar dioten emakume immigrante askoren ezaugarri pertsonalak dira honako hauek:

- Sarerik eza.

- Autonomia ekonomikorik eza.

- Hizkuntza ez jakitea.

- Euren eskubideak zein diren eta erakundeen bilbea nolakoa den ez jakitea.

- Euren bikotekideak berriz elkartutako emakume gisa administrazio-estatusa galtzeko beldurra, eta baimena bikotekidearen araberakoa bada, seme-alabak eurengana ezin ekartzea.

- Bikotekidea kanporatzeko beldurra.

∝ Administrazio-egoera irregularrean egoteagatiko beldurra. Gogoan izan urtarrilaren 11ko Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoa eta Atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoak xedatzen duela amaituriko zigor-prozeduratik ezin bada ondorioztatu genero-indarkeriako egoerarik administrazio-espediente zehatzailea irekiko dela 53.1.a) artikulua urratzeagatik edo jarraitu egingo dela, hasieran eten egin bazen. Denok dakigu nola eragiten duen emakumeen kontrako indarkeriaren kasuetan probatzeko zailtasunak eta salaketak erretiratzeak gai horretako absoluzioetan; baina horrek ez du esan nahi salaketa aizunak direnik gizarteko sektore neomatxistetatik adierazten duten bezala.

∝ Jatorrizko herrialdeetan segurtasunik ez juridikoa dokumentazio-tramiteak egiteko edo arintzeko, etab.

Hona hemen jarraibide profesional batzuk:

∝ **Erlatibismo kulturala saihestea.** Indarkeria beti da emakumeen oinarrizko giza eskubideen eta askatasunen urraketa. Hortaz, ezin ditugu indarkeria-egoerak justifikatu desberdintasun sozial, kultural, edo beste edozein baldintzarekin lotutako alderdiekin.

∝ Beste kulturekiko **patriarkalismoan ez erortzea,** kultura eta erlijio guztiak direlako matxistak, eta guretik abiatuta, ez dugulako besteei zer irakatsi ez eta ezertan eredu izan ere.

∝ EAEko hizkuntzetako bat ezagutzen ez duelako **itzulpena** behar den kasuetan, itzulpen-zerbitzu hori pertsonal kualifikatuak eman behar du eta, ahal dela, emakumeak izango dira eta biktimaren kulturari eta indarkeriaren errealitateari buruzko ezagutzak dituztenak. Era berean, ahalegina egingo da itzultzaile hori bera izan dadin egoitza judizialean eta ondorengo gestio eta baliabide guztietan egongo dena. Baliabide faltagatik, ordutegiagatik, edo beste arrazoiren batengatik hori posible ez bada, erakunde horretan hizkuntza ezagutzen duen profesionalik baldin badago, berak egingo du hizkuntza-bitartekaritza.

∝ **Mezu argi eta laburrak** erabili.

∝ Hizkuntza **hurbila eta erraza erabili**, immigranteak identifikaturik senti daitezen eta emakume analfabetoengana ere hel dadin.

∝ Informazio zabala ematea, salaketari soilik mugatu gabe.

∝ **Mezu positiboak** helaraztea, bortxazko harremana haustea erabakitzen duten emakumeen arrakasta aipatuta; eta emakumeen ahalduntzeari begira.

∝ Biktimaren eta erasotzailearen nazionalitatea ez aipatzea.

∝ Emakumeen kontrako indarkeriaren egiturazko arrazoia desberdintasuna dela azpimarratzea.

- Zeinu partekatuak erabili, hizkuntzaren eta kulturaren hesiaren gainetik ulertzen direnak (puntu morea).

## ▪ Etnia

Ijito-erkidegoa Estatuan ordezkapenik handiena duen gutxiengo etnikoa da. Ijito-erkidegoaren ezaugarri kultural adierazgarrienetako bat da emakumeak hezitzaile, zaintzaile eta balore eta kulturaren transmisiogile gisa duen rola. Emakume ijitoen errealitatea askotarikoa da eta hainbat aldagairen araberakoa: arrazoi sozioekonomikoak, hezkuntzazkoak eta etxebizitzari dagozkionak. Emakume ijitoek bi motatako diskriminazioa pairatzen dute: sexuagatik eta talde minoritario bateko kide izateagatik; beraz, haien arrisku eta urrakortasun soziala handiagoa da.

Batzuetan, gizarte-bazterkeria ere pairatzen dute, eta horrek beste langa bat ezartzen du autonomia ekonomikoaren eta salaketaren gainean.

Indarkeriari aurre egin behar dioten emakume ijitoen ezaugarri pertsonaletako batzuk dira honako hauek:

- Ijitoen erkidegoan emakumeen kontrako indarkeria gai tabua da, eta indarkeria egoerak larriak eta ikusgarriak direnean, erkidegoaren barne-kohesio arauen bidez konpontzen da, baina beste indarkeria mota asko konpondu gabe geratzen dira.
- Indarkeria salatzeak erkidegoaren barruan ondorio handiak ditu, batez ere bai erasotzailearen bai biktimaren familietan. Emakumeak erkidegoaren laguntza galtzeko arriskua du.
- Eta indarkeria ez ikusarazteko joera dago.
- Emakume ijito askorentzat indarkeria-harremanak ez dira delitua ez oinarrizko eskubideen urraketa.
- Baliabide normalizatuetara jotzeak esan nahi du erkidegoko bertako baliabideak ez direla eraginkorrak izan.
- Autonomia eta independentzia eskasa dute fisikoki baliabide eta zerbitzuetara iristeko.
- Seme-alabengandik urrunduko dituztelako beldur dira.
- Gehiengoaren gizarteko baliabideekiko mesfidantza diskriminazio-historiak eraginda.

Hona hemen jarraibide profesional batzuk:

- Artatutako emakume ijitoaren egoera espezifikoa aztertzea eta jarduteko estrategia zehaztea, indarkeriarengan zuzenean ala zeharka esku hartzeko (oso-osoko esku-hartzea hainbat eremutan: lana, hezkuntza, garapen pertsonala, etab.).
- Indarkeria hautematea eta ikusaraztea bereziki zaila da tabutzat hartzen dutelako.
- Emakume ijitoek indarkeriari aurre egiteko erabakia har dezaten bultzatzea –arrazoi pertsonalak bilatuta, haien kargu dauden pertsona mendekoak alde batera utzita– eta horretarako gaitzea.

- Baldin badago, bitartekari ijito bat edukitzea erabakiak hartzeko prozesua errazteko, eta emakume ijitoek joaten diren erakundeenganako konfiantza har dezaten laguntzeko.

- Egoitzaren bat behar izango balitz, babes-neurri gisa, emakumea bizi den udalerritik kanpo egon dadila.

## Aniztasun funtzionala

Datuek erakusten dute desgaitasuna duten emakumeek hezkuntza maila baxuagoa dutela, bai eta laneko diskriminazio handiagoa, isolamendu sozial handiagoa, autoestimu baxuagoa, familiarekiko mendekotasun emozional eta ekonomiko handiagoa (bere erasotzaileak jasotzen dituen zaintzak barne), garapen pertsonal eta sozial txikiagoa, sexualitateari buruzko ezagutza falta handiagoa, etab. Horren ondorioa da populazio-multzo horretan indarkeria-indize oso altua dagoela. Gainera, indarkeriatik ihes egiteko bestelako langak ere aurkitzen dituzte, hala nola, informazio eta komunikaziorako zailtasunak, baliabideetara eta zerbitzuetara ez egokitzea oztopo arkitektonikoak barne, eta joan-etorriak.

Indarkeriari buruzko 2004ko oso-osoko Legearen 3.3. artikuluak honela dio *“Indarkeria mota horren aurkako informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak gauzatuko dira desgai diren pertsonek ere horien berri izatea bermatuz”.*

18.2 artikuluan, berriz, babes berezia xedatzen da: *“Beharrezko bideak erabilita bermatuko da, desgai izateaz gain genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek euren eskubideen eta baliabide eskuragarrien gaineko informazio osoa jasotzea. Informazio hori eman beharko da desgai diren pertsonek erraz eskuratu eta ulertzeko moduan, esaterako, zeinu-mintzaira edo beste komunikazio-modalitate edo aukera batzuk erabilita, sistema alternatibo eta gehigarriak barne."*

Hona hemen jarraibide profesional orokor batzuk:

- Emakumeen premien araberako urgazpena egitea, indarkeriaz gain, desgaitasun intelektuala, ikusmenekoa, entzumenekoa edo ahozkoa, buruko gaixotasuna, mugikortasun murriztua, etab. ere izan dezakeen askotariko taldea dela kontuan hartuta.

- Izena eta lanbidea esanez identifikatu.

- Adierazteko eragozpenak izan ditzaketen arren, emakumeek euren iritziz garrantzitsua dena jakinaraz dezaten gomendatzen dugu, hitz egitea /transmititzea oso lagungarria da. Gerta liteke erantzun oso labur edo oso luzeak jasotzea, inoiz ez dugu egoera behartuko, blokeo egoera eragin dezakegu eta.

- Emakumeek arazoak izan ditzakete indarkeria gogoratzeko.

- Adi egon emakumeek erakusten dituzten emozioei (beldurra, haserrea, etab.).

- Autonomia pertsonala eta erabakiak hartzeko espazio sozialetarako irisgarritasuna bultzatu.

- Hizkera erraza erabili, termino zailak eta teknizismoak saihestuta.

- Baliabide propioekin zein gainerako erakundeek eskaintzen dituztenekin harremanetan jartzeko helbideak eta telefono zenbakiak eskaini.

- Itzultzailea eta interpretea bertan izateko eskubidea dutela azaldu eta dauden baliabideen berri eman, entzumen eta/edo hitz egiteko arazoak dituztenen kasuan, bereziki 600123112 zenbakira SMS bat bidaltzea datu pertsonalak eta kokapena eta "genero-indarkeria" adieraziz.

Honako jarraibide hauek daukaten desgaitasunaren araberakoak dira:

**A. Entzuteko desgaitasuna**

- Emakumeak zer modutan komunikatu nahi izango duen jakin.

- Gure presentzia eskuak astinduz adierazi, eta konturatu ez badira, leunki besoan edo sorbaldan ukituta.

- Emakumeak entzuteko gailua erabiltzen badu, horrek ez du esan nahi ez duela entzuten edo ez duela behar bezala ulertzen.

- Gogoan izan pertsona horiek bisualki orientatuak daudela.

- Ez hitz egin oso ozen edo mantsoegi, horrek gure diskurtsoa, gure ezpainen mugimenduak eta aurpegiaren adierazpena eragotziko luke eta.

- Ez hitz egin inoiz ere zuzenean haren belarrira.

- Keinuak eta mimika komunikazioa osatzeko erabili; esaterako, jarleku bat seinalatu eser daitezen eskaintzeko.

- Ez eman jotzat ezin dutela hitz egin edo ahotsa erabili. Baliteke ahotsa erabiltzeko gaitasuna edukitzea baina nahiago izatea ez hitz egitea, diskurtsoaren kalitateagatik.

- Erreparatu aurpegiaren adierazpenari eta gorputz-mintzairari eta bestelako keinuei, horrek nola sentitzen diren ulertzen lagunduko digu.

- Ez utzi inoiz emakumeak elkarrizketatik kanpo, eta gure inguruan gertatzen dena deskribatu, gure lanaren faseak etab.

- Elkarrizketa egin distrakziorik gabeko leku batean, hondoko soinurik eta interferentziarik gabe eta honako hau kontuan hartuta:

    a) Emakumearen aurrean jarri, hark gure begiak eta ezpainak argi eta garbi ikusteko moduan.

    b) Emakumearengandik 0,90 eta 1,80 metro arteko distantzian jarri.

c) Emakumearen arreta gurea dela eta haiekin begien bidezko kontaktua egon dela ziurtatzean soilik hitz egin. Argi eta ohikoa baino mantsoago hitz egin. Elkarrizketan galdera eta jarraibide laburrak eta errazak erabili. Ez esajeratu hitzen ebakera.

d) Beharrezkoa bada, ohikoa baino ozenago hitz egin, baina garrasi egin gabe.

e) Beharrezkoa bada, galderak eta informazioa sarritan errepikatu, birformulatzeko hitz desberdinak erabiliz.

f) “Bai” edo “ez” esanez erantzun daitezkeen galderak saihestu, gaizki-ulertuak eragin ditzakete eta.

∝ Interpretea eskatzen badute:

a) Interpretea gure ondoan jarri, emakumeak begirada finkoa gugana edo interpretearengana zuzentzerik izan dezan.

b) Ahots doinu eta erritmo normalarekin eta modu zuzenean hitz egin.

c) Erantzuna ulertu ez bada, emakumeari eskatu errepika edo argi dezaten.

**B. Ikusteko desgaitasuna.**

∝ Hasteko, beharrezkoa da elkarrizketan parte hartuko duten pertsonak eta profesionalak aurkeztea eta identifikatzea.

∝ Garrantzitsua da gerora ere gurekin harremanetan jartzeko telefono zenbaki bat ematea ere, bakarrik egongo ez direla gogorarazteko.

∝ Ez hitz egin ozenki, gogoan izan behar dugu ikusteko desgaitasuna duten emakume gehienek ondo entzuten dutela.

∝ Profesional bat baino gehiago edo beste pertsona batzuk daudenean, hitz egiten ari diren pertsonak identifikatu.

∝ Elkarrizketan isiluneak saihestu, eta emakumeari esan oharrak jasotzen, idazten edo tekleatzen ari garela.

∝ Idatziz ematen zaiona ozenki irakurtzea eskaini, eta ematen zaion dokumentazioari eta haren edukiari buruzko informazioa eman.

∝ Informazio hori bestelako formatu batean ere eman diezaiokegu (edukia zabalduta, entzuteko zinta magnetikoa, ordenagailurako disketea) eskatzen badigu.

∝ Ez laztandu inoiz gida-txakurrak emakumearen baimenik gabe.

∝ Akonpainamenduak egiten baditugu, gure besoa eskaini, eta haiek ukondotik helduko gaituzte.

- Emakumea baino urrats erdi aurrerago ibili.
- Inguruan zer duen azaldu eta aurki ditzakeen oztopoez ohartarazi, azalpen argi eta zehatzekin.

**C. Adimen desgaitasuna.**

Emakume horiek ikasteko gaitasuna dute, buruan gordetzeko, arrazoitzeko eta ulertzeko gaitasuna hobetzeko gai dira. Adimen desgaitasuna duten emakumeek euren desgaitasuna ezkutatzeko ahalegina egin dezakete, edo benetan duten baino gaitasun handiagoa dutela sinetsarazten ahalegin daitezke.

- Galdetu non bizi diren, non lan egin edo ikasten duten, eta ea baduten lagunduko dituen inor.
- Helbidea idazteko eskatu, eta irakurri edo idatzi behar dutenean eragozpenik baduten erreparatu, bai eta erabiltzen duten lengoaiari ere.
- Gainerako biktima guztientzako besteko errespetua erakutsi.
- Ez etiketatu.
- Ez hartu ontzat emakume horiek ulertzeko edo komunikatzeko gai ez direnik.
- Inguru segurua sortu.
- Distrakzioak mugatu, eta elkarrizketatzen hasi aurretik, emakume horiekiko enpatia eta konfiantzazko giroa sortu.
- Adi egon azterketak eta zigor-prozedurako zitazioak edo egingo den esku-hartzea ulertzeko eta onartzeko izango duen gaitasunari. Beharrezkoa bada, familiako laguntza edo/eta gizarte-laguntza bilatu.
- Idatzizko informazioa azaldu eta paperak betetzeko laguntza eskaini (esaterako, abokatua, diru-laguntzak edo bestelako laguntzak eskatzeko).
- Elkarrizketan eurekin egoteko pertsonaren edo profesionalen bati deitzea nahi ote duten galdetu.
- Sarritan atseden hartu.
- Emakume helduak heldu gisa tratatu, ez dira haurrak.
- Modu argian eta ohikoa baino mantsoago hitz egin.
- Galdera eta jarraibide laburrak eta errazak eman, eta haiek nola adierazten diren eta euren hiztegiarekin, hizkera nola moldatzen duten adi egon.
- Informazio konplexua atal laburragotan banatu, eta keinuak eta adibide argiak eta fisikoak erabili, azalpen argiagoak eman haiek hobeto uler ditzaten.
- Ez eman informazio gehiegi.

- Kontuan hartu emakume hauek oso eragingarriak eta adeitsuak izan daitezkeela.

- Ez egin galdera itxirik, egin galdera irekiak informazioa adierazterik izan dezaten; esaterako, “kontatuko al didazu zer gertatu zen?".

- Elkarrizketa egiten erreferentzia-puntuak erabili, zer gertatu zen konta dezaten.

- Gutxienez 30 segundo itxaron haiek jarraibide edo galdera bati erantzun baino lehen.

- Erantzuten ez badute, edo zerikusirik ez duen beste gauzaren bat erantzuten badute, behar beste aldiz errepikatu galdera beste hitz batzuekin edo beste modu batera.

- Galdera sekuentzialki egin, elkarrizketaren hariari jarraitzerik izan dezaten.

- Ez egin galdera zailak, ahalegin kognitibo handia eskatzen dutenak, nahastea eragin diezaiekegu eta. Halakoak esaterako: «zerk pentsarazi zizun halako...» «zerk bultzatu zintuen hartara...”.

## Adina

Adina arrisku-faktore bat izan daiteke; izan ere, adingabekoak eta emakume helduak mendekotasun edo urrakortasun maila handiagoan daude, eta hori babesgabetasun handiago bilaka daiteke.

**A. Adingabeak.**

Haurtzaroa eta nerabezaroa babesteko legeek, 2015ean onartutakoek, protokolo hau sinatzen duten erakundeak behartzen dituzte indarkeriaren aurrean, nesken eta mutilen prebentzioa, babesa eta arreta osoa bermatzeko ahaleginak eta bi egitera eta **lehentasunezko erantzuna** eskaintzera. Giza eskubideak, generoa eta haurtzaroa/nerabezaroa izango dira ekiteko ardatza, eta kasuen hautematea, eta honako hauen arreta, babesa, oneratzea eta justiziarako sarbidea hartuko dira kontuan:

  - Indarkeriaren biktima diren neska adingabeak.

  - Emakumeen aurkako indarkeria-egoeratan arriskuan dauden haurrak.

**Enfokea oso osokoa** izango da, eta kaltetutako arlo guztiak hartuta (hezkuntza-arloa, gizarte-arloa, arlo psikologikoa, arlo medikoa, etab.) Jarraibide profesionaletan, honako hauek hartuko dira kontuan, gutxienez:

- Adingabekoen alderdiei ekingo dien diziplina askotako lana txertatzeko zabalik egotea (barnean daude mutil adingabeak ere indarkeriari aurre egin behar dion ama haien kargu badago).

- Adingabeei entzutea, espazio eta metodologiarik egokienekin.

- Esku-hartzea gidatuko duen printzipioa izango da **adingabeen interes gorena**.

- Ikastetxeetako indarkeria-kasuetan, indarkeria motara eta inplikaturiko pertsonen arabera egokituko da. Oro har:

    - Ez gutxietsi indarkeriaren larritasuna.
    - Modu sistematikoan behatu neska, espazio guztietan.
    - Ikastegiko tutoreari eta zuzendaritza taldeari jakinarazi, gertakariak eta inplikaturiko pertsonak, ahalik eta zehaztasun handienarekin jasoko dituen ohar baten bidez.
    - Ahalik eta azkarren jarduten ahalegindu, biktima babesteko, hezkuntza-erkidegoarekin erabakitako eta eztabaidatutako neurriak hartuta.
    - Tartean dauden pertsonekin banakako esku-hartzeak egin.
    - Ez egin bitartekaritzarik, botere-desoreka duen egoera bat da eta.
    - Ez inor errudun sentiarazi.
    - Talde osoarekin esku-hartu, jarrera eta portaera negatiboak denon arbuioa jaso dezaten.
    - Haurrak eskubidea du arazoa nori kontatu nahi dion erabakitzeko, errespetatu eskubide hori. Garrantzitsua da erreferentzia-pertsona bat egotea eta ez eskatzea hainbat bider gertatutakoa kontatzeko, biktimizazioa saihesteko.

- Indarkeriaren biktima diren eta haien kargu adingabekoak dituzten emakume biktimen kasuan, aldibereko bi esku-hartze ildori jarraituko zaie: adingabekoek dituzten indarkeriaren arrastoen gaineko esku-hartze zuzena, eta beste zeharkako esku-hartze bat amekin lan eginez, hezkuntza-jarraibideak emanez eta amatasunaren eraikuntza berria sortuz. Garrantzitsua da ama eta emakume ikuspegiak kontuan hartzea, genero-roletan ez erortzeko. Gainera:

    - Abiapuntutzat hartu indarkeria horrek adingabekoengan izan duen inpaktu-presuntzioaren printzipioa. Oneratzeko prozesuan aurrera egin ahal izateko, beharrezkoa da pertsona heldu baten akonpainamendua,, eta horrek dakar berriro ere balioestea ama gisa diharduen emakumearen figura.
    - **Amak ahalduntzea** oneratzeko prozesuan eginkizun aktiboa izan dezaten, adingabekoei babesa eta segurtasuna ematea lortuz. Erruduntasuna saihesteko, azpimarratu egin behar zaie haiek hartutako erabakiaren garrantzia, indarkeria adingabekoengana ez transmititzeko.
    - **Bikote-harremana eten aurretik eta ondorengo babes gabeko egoerak hauteman.** Erasotzailearekiko kontaktuagatik adingabekoei kalte fisiko zein psikologikoak eragiteko iturri potentzialen artean, honako hauek azpimarra daitezke:

        - Ama mehatxupean edukitzea edo amaren aurkako indarkeria-egintzak: egintza horiek adingabekoak oneratzeko prozesua zapuzten duen indarkeriaren berbizipena dakartzate.

- Amaren eta seme-alaben arteko harremana narriatzea: haien oneratze emozionala tratu txarrik eragiten ez duen gurasoarekiko harremanaren kalitatearen araberakoa da, beraz, erasotzaileak eragiten dituen tentsioek oneratze-prozesua zaputz dezakete.
- Abusu fisiko edo sexuala
- Erasotzailea hezkuntza-eredu gisa: arrisku handia dago seme-alabek indarkeria harreman afektiboetan erlazionatzeko modu gisa normaliza dezaten eta etorkizunean, harreman bortitzak sortzeko arrisku-faktorea izan daiteke.
- Agintezko aitatasun-ereduaren aurrean egotea.
- Zabarkeriaz edo arduragabekeriaz zaindua izateko arriskua.
- Indarkeria psikologikoa.
- Bahiketa.
- Aitaren bikote-harreman berrietan berriro ere indarkeria bizitzea.

o Gogoan izan adingabekoek honako hau behar dutela:

- Fisikoki eta emozionalki seguru sentitzea bizi diren ingurunean. Indarkeria-egoeratan zaintza partekatua debekatuta dago legez.
- Egituraketa, mugak eta aurrez igarri ahal izatea.
- Pertsona helduak zaindu behar izatearen ardura ez sentitzea.
- Neba-arrebekiko lotura estua.
- Erasotzailearekiko harremana muturreko arretako testuinguruan, haurraren segurtasun fisikoa eta emozionala bermatzeko. Bisitak zaintzapekoak eta pertsona helduen edo segurtasun/aginte figuren presentziarekin izatea gomendatzen da.

**B. Adinduak.**

Emakume adinduen kontrako indarkeria hainbat alderdiren eragin konplexu baten ondorioa dira: norbanakoari eta harremanei dagozkienak, alderdi sozialak, kulturalak eta ingurumenari loturikoak. Kolektibo urrakorra dira, eta erasotzailearekin luzaroan bizi izanak haien aurka gauzatutako indarkeria kroniko bihurtzeko eta normaltzea eragiten du. Egoera horietan, salaketa ez da erraza izaten.

Emakume adinduek pairatzen duten indarkerian eragin dezaketen hainbat faktore daude: gizarte-eskubide propioetarako irisgarritasunaren mugak, mendekotasun emozional, funtzional eta ekonomikoa, sare-sozial eskasa, emakumeen kontrako indarkeriaren errealitatearen berri ez edukitzea eta gizarte patriarkalaren ereduak barneratu izana, ondo errotutako erlijio-sinesmenak, testuinguru zurrunago batean sozializatu izana, komunikatzeko eragozpenak,

osasun-arazoak, laguntza-sistemarako irisgarritasun mugatua, landa-eremuan eta/edo herrigunetik urrun dauden baserrietan bizitzea, babesteko eta laguntza eskatzeko eragozpen handiagoak, etab.

Profesionalek hautemateko eta esku-hartzeko tresnak eta dinamikak artatutako emakumeek dituzten premia berezietara egokituko dituzte, eta haien zaintzaileei lagunduko diete genero- eta adin-ikuspegitik abiatutako ekiteko modu integralarekin.

## ▪ Sexu-orientazioa eta genero-identitatea.

**Sexu orientazioa** sexu biologikoa edo genero-identitatearekiko independentea da; sexu orientazioa da pertsona bakoitzak beste generoko, genero bereko edo genero bat baino gehiagoko pertsona batenganako senti dezakeen erakarpen emozional, afektibo eta sexuala sentitzeko duen gaitasuna, eta pertsonekin harreman intimo eta sexualak izateko gaitasuna. Kontzeptu konplexua da, eta haren formak aldatuz doaz denborarekin, eta kulturen arabera desberdinak dira.

**Genero-identitatea** da pertsona bakoitzak sakonean bere generoa nola sentitzen eta bizi duen –hori bat etor litekeena, edo ez, jaiotzetik duen gorputzaren sexuarekin–, bai eta gorputzaren bizipen pertsonala (horrek ekar dezake gorputzaren itxuraren edo funtzioaren aldaketa teknika medikoak, kirurgikoak, edo bestelakoak erabiliz, betiere askatasunez erabakitakoa bada) eta bestelako genero-esperientziak ere, barnean hartuta janzkera, hitz egiteko modua eta jokamoldea.

Berdintasuna eta ez-diskriminazioa pentsaezinak dira gizakiaren erabateko aniztasuna onartzen ez badugu.

LGTBI kolektiboak (lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualak) arbuioa, beldurra, intolerantzia, aurreiritziak eta/edo diskriminazioa pairatzen ditu (LGTBIfobiaren barruan sartzen dira: **lesbofobia, bifobia, homofobia, transfobia eta interfobia)** justifikazio politiko, kultural, erlijioso, legezko eta bai eta sasi-medikoek ere elikatuta.

Haien bisibilizazioan ere aurrera egiten joateko, protokolo honek kontuan hartuko du lesbianek euren bikotekidearen kontra eragindako indarkeria ere.

Esku-hartze profesionalean, kontuan hartu behar dira, besteak beste, honako inguruabar hauek:

- Barregarri utziko dituzten beldurra izan dezakete, ez dituztela ulertuko eta lesbofobia sozial eta instituzionalak epaitu egingo dituelako beldurra ere bai.
- Jendaurrean katalogatua eta epaitua izateko beldurra izan dezake, batez ere haren inguru pertsonal, profesional edo sozialean LGTB jendea ondo ikusia ez badago.
- Baliabide eta zerbitzuetarako irisgarritasunik eza.
- Litekeenez, inguruak haren sexu-orientazioaren berri ez edukitzearen ondoriozko isolamendua.
- Leku tradizionalagoetan, landa-eremuan eta/edo erroturiko erlijio-sinesmenak dituzten lekuetan bizi izateak gehituriko oztopoak.

## ▪ Osasun mentala eta drogazaletasuna.

Indarkeriak depresioa, antsietatea eta osasun mentaleko bestelako nahasmenak eragiten ditu. Minbizia, bihotzeko gaixotasunak, istripu zerebrobaskularrak eta VIH/hiesa agertzea ere ahalbidetzen du, biktimek, sarritan, bizi izandako esperientzia traumatikoei aurre egiteko arrisku-portaerak hartzen dituztelako, hala nola, tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzea, eta sexu-jardun arriskutsuak. Horren ildoan, indarkeriak heriotza goiztiarra edo bizi osorako osasun txarra ere eragin ditzake.

Indarkeria bizi izan duten edo bizi duten eta diagnostikaturiko gaixotasun mentalak eta/edo adikzioak dituzten emakumeekin esku-hartzea oso jardun konplexua da; beraz, hainbat tresna espezializatu jarri behar dira abian, denek abiapuntu beretik lanean, eta esku-hartzearen erdigunean bizi izandako indarkeria jarriko dutenak. Profesionalek ebaluatuko dituzte dauden baliabideen ordezko aukerak eta emakumeei laguntzeko eta urgazteko bermerik handienak eskaintzen dituzten haietara bideratuko dituzte.

Honako hauek dira emakume hauek aurkitu ohi dituzten eragozpenetako batzuk:

∝ Emakumea bera eta, baldin badu, bere adingabeko seme-alabak, indarkeria-sareko egoitza-baliabideetan hartuak izateko erresistentzia.

∝ Oinarrizko arretarako zentroetatik hasi eta drogazaletasunari arreta egiteko sare espezializaturaino, genero arloko eta indarkerian espezializaturiko formazio eskasa dute bertako profesionalek modu egokian eta integralean jardun ahal izateko. Horrek esan nahi du prebentzio eta enfoke terapeutikoetarako programen plangintza ez dela genero-ikuspegia kontuan hartuta taxutzen.

Hona hemen kontuan hartu beharreko hainbat alderdi:

∝ Alkoholaren eta bestelako drogen kontsumoa, denek dituzten eragin akutuei (intoxikazioa) zein patroi kronikoagoei (adikzioa, mendekotasuna) dagokienez, indarkeriarekin lotzen da harreman afektiboetan, bai indarkeria eragiteko, bai pairatzeko. Nahiz eta gizonek ez duten alkoholaren eraginpean egon beharrik bikotekidearen kontrako indarkeria erabiltzeko, hori arrisku-faktore bat da, baina ez kausala; izan ere, mendekotasunaren arazoa desagertzeak ez du esan nahi indarkeriaren arazoa desagertuko denik.

∝ Alkohola edo bestelako drogaren bat kontsumitzen duen emakumea **bere roletik nolabait desbideratu** den pertsonatzat hartzen da, eta horregatik, **estigmatizatuago** dago. Errazago hartzen dute pertsona promiskuotzat, konkista sexualetarako “ehizaki erraz” gisa, beraz, errazago izan daiteke sexu-abusuen edo tratu txarren biktima. Edaten duen edo drogatzen den emakumea errazago identifikatzen dute nolabaiteko "moral gabezia" duen pertsona batekin, beraz, abusuen edo tratu txarren biktima denean, erasoaren larritasuna gutxiesten duten balorazioak egiteko joera egon liteke. Jasandako abusuaren ardura emakumeari berari leporatzera ere irits daiteke, emakume batentzat egokia ez den egoera batean zegoelako; beraz, abusua uler liteke, emakumeak berak eragin duen arrisku-jarrera baten ondorioa gisa. Gertatutakoaren aurrean **gizonen erantzukizuna arintzeko** modua da hori, justifikazio bat –edo aringarri bat, behinik behin– aurkitzen dutelako euren abusu-egintzak balioesterakoan.

∝ **Biktimizazio sozial hirukoitza** pairatzen dute emakume horiek: indarkeriaren biktima izateagatik, drogen mendean egon eta horrekin emakumearen ohiko rola hausteagatik eta, azkenik, erakundeen aldetiko biktimizazioa, inon egokitu ez eta inon ulertzen ez dituzten arreta-zerbitzu batetik bestera bidaltzen dituztelako.

∝ Indarkeriaren aurrean **erreakzionatzeko gaitasuna murriztu egiten da** substantzien abusua dagoenean, eta, ondorioz, zailagoa da indarkeria-egoera horretatik irtetea. Indarkeria-egoeren aurrean, sarritan, psikofarmakoak errezetatzen dira, eta horiek eragotzi egiten dute indarkeriarik irtetea.

∝ **Erruduntasun-sentipena handitu** egiten da eta, beraz, tratu txarrak merezi dituztela sentitzen dute (batez ere, euren emazte eta ama zereginak ez "betetzeagatik"). Alderdi horrek ere, genero-autoestimuari oso lotua egonik, eragotzi egiten du indarkeria-egoeratik irteteko aukera.

∝ Erraz aurki daitezke **generoarekin** eta drogazaletasunarekin **loturiko bestelako arazo batzuk;** hala nola, prostituzioa, VIH HIESa, immigrazioa, eta horrek guztiak are zaurgarriago bihurtzen ditu.

∝ Kontsumoa ezkutatzea adingabekoen zaintza galduko dutelako beldur, familiaren arbuioaren beldur, lana galtzeko beldur, etab. direlako.

∝ Drogen mende dagoen emakume batek bikotekidearengandik indarkeria motaren bat pairatzen badu, inguruabar hori berebizikoa izango da haren **errehabilitazio-tratamenduan**, eta emakumeen ehuneko handi batek aurre egiten diola edo aurre egin behar izan diola jakinda, hori kontuan hartu beharko da **erabiltzaile berri baten ebaluazioari** ekiten diogunean, indarkeria-adierazleak egon zein egon ez.

∝ Kontsumoa uzteko erabakia hartzeko behar den **denbora** eta indarkeria-egoera onartu eta erabakiak hartzeko behar den denboraz jabetu. Biek dakartzate erabateko bizimodu-aldaketak, eta osagai emozional handia dute.

# 7. JARDUERA-EREMUAK

## 7.1 Udaletako berdintasun sailak.

Emakumeek kontrako indarkeria **sexuagatiko diskriminazioaren** adierazpenik gordinena da, eta halakotzat, erakundeetako berdintasun sailen jarduera espezifikoko arloa da.

Tokiko erakundeek bertako berdintasun sailen bidez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako, eta bereziki emakumeen kontrako indarkeriari buruzko, udal politikak bultzatzen, koordinatzen dituzte eta haien segimendua eta ebaluazioa egiten dute.

Indarkeriari aurre egin behar dioten emakumeak artatzeko eskumena duten zerbitzuek egiten duten lana indartzen dute berdintasun sailek. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 4. artikuluan honako hau xedatzen da: Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie, emakumeen eta gizonen berdintasunerako arloan, arauak gauzatzeko eskumena, legean bertan xedatzen denari jarraikiz. Beste alde batetik, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 19.7 artikuluan hauxe jasotzen da: *“Berdintasun-erakundeek gauzatutako programa nahiz ekintzei begira orientabideak emango dituzte, halakoen gaineko balorazioa egingo dute, eta halakoak hobetzeko gomendioak emango dituzte".*

Honako protokolo hau behar bezala abian jarri eta gauzatzeko **koordinazioaren** ardura dute, bai eta berau ezartzeko, beronen segimendua eta ebaluazioa egitekoa ere. **Koordinazio Orokorrerako Mahaiaren** bidez gauzatzen da haien **aitzindaritza**, zeinak, besteak beste, erakundeen arteko koordinazioa eta erakundeen erantzukizunak beteko direla eta bertan jasotako neurriak bultzatzea dituen eginkizun.

Gainera, berdintasun sailek bultzatu egiten dute emakumeen kontrako indarkeriaren ulermena, **biktimak modu globalean artatzeko** tresnak ezartzea, **baliabideak emakumeen eta gizonen berdintasunetik** ikustea eta haien **ahalduntze eta normalizazioranzko** prozesuaren premia. Esku-hartzean genero-ikuspegirik ez egoteak eragotzi egiten du arreta ahalduntzea helburu hartuta planteatzea, eta urgazpen-ikuspegitik soilik gauzatzen da.

Informazio-, hedapen-ekintzak (hala nola, azaroaren 25ekoak, Emakumearen kontrako Indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna, edo tokiko jaietan, etab.) eta formaziokoak ere antolatzen dituzte politikari, teknikari eta gizarte-langileentzat, eta beste erakunde (Emakunde, Eudel etab.) eta sare batzuekin elkarlanean koordinaturik dihardute (Berdinsarea, Berdinbidea, etab.).

Udalerrietako **Emakumeen Eskolak edo Ahalduntze Eskolak** koordinatzen dituzte, emakumeentzat, prebentziorako, hautemateko, akonpainamendurako eta berroneratzeko funtsezko espazioak.

Ez dituzte emakumeak zuzenean artatzen baina udalerrian bertan kasuak hautemateko **“puntu fokalak”** dira, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko lanean erreferentziako pertsonak direlako, bai politikarientzat, bai teknikarientzat bai gizarte-langileentzat.

Arlo horretan, indarkeria pairatu duen edo pairatzen ari den emakume baten laguntza-eskaera jasoko balitz –aurrez aurre, nahiz telefonoz–, protokoloa sinatu duten gainerako erakundeekin koordinatuko litzateke berehala, inguruabarren arabera. Era berean, erabilgarri dauden baliabide eta zerbitzuen berri emango dio, eta erakundeen arteko koordinazioa abian jartzeko, datuak biltzeko eta lagatzeko haren baimena edukitzeak duen garrantzia azalduko dio.

## 7.2 Osasun-eremua.

Emakumeen kontrako indarkeria osasun publiko eta norbanakoaren osasuneko arazoa da. Zuzenean eragiten du emakumeengan, fisikoki, psikikoki, sexu- eta ugalketa-osasunari, eta emakumearen osasunean eta haren ingurukoenean baldintza kroniko batzuk eragin ditzake.

Osasun-zerbitzuen esku-hartzeak berebiziko garrantzia dauka, indarkeriaren lesio psikologiko eta fisikoak **prebenitzeko, hautemateko eta haien diagnostikoa egiteko eta bio-psiko-sozialki tratatzeko.**

Zenbait ikerketaren arabera, osasun-zerbitzuetara joaten diren emakumeen % 20 eta % 48 artean indarkeriari aurre egin behar diote. Sarritan, osasun-zerbitzuak dira emakume askorentzat erakunde publikoekin duten lehenengo harremana eta bakarra; emakume horietako gehienak, euren bizitzako uneren batean, osasun-sistemara jotzen dutelako.

Sinatzen duten lau udalerriak, Osakidetzaren antolamenduaren barruan, **Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratukoak (ESI)** dira, eta horren barruan daude Galdakao-Usansoloko Ospitalea, Gernika-Lumoko Ospitalea, lehenengo arretarako hamazazpi unitate eta horiei dagozkien zentroak; besteak beste, Matienako Osasun Zentroa, Abadiño-Zelaietako Kontsultategia, Berrizko eta Elorrioko osasun-zentroak eta Landakoko (Durango) Osasun Zentroa.

Gainera, Osakidetzaren antolamenduaren barruan dago **Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea**, eta horren barruan daude Zaldibarko Ospitalea, Durangoko Eguneko Ospitalea eta Durangoko Osasun Mentaleko Zentroa.

Protokolo honetarako, solaskidea Barrualde-Galdakaoko ESI izango da, Osakidetzak bereak dituen barne-koordinaziorako bideak zeinahi direla ere. Honako hauek dira emakumeen kontrako indarkeria hautemateko, haiek artatzeko eta bideratzeko osasun-zerbitzu estrategikoak:

- **Oinarrizko arretarako zentroak, Pediatria Zerbitzua barne.**
- **Arreta espezializatua (batez ere: Osasun Mentala, Ginekologia, Traumatologia).**
- **Larrialdiak.**

### 7.2.1 Egitekoak

**1. Prebentzioa.**

Prebentzioak honako hau hartuko du, beste gauza batzuen artean:

- Emakumeen kontrako indarkeriarekin (GI, EI, Sexu indarkeria eta EGM) zerikusia duten osasun-protokoloak eta honako hau ere hedatzea.

- Barrualde-Galdakaoko ESIko emakumeak zuzenean artatzen dituzten osasun-langileentzako formazio espezializatua. Formazio horri esker, indarkeriari aurre egin behar dioten kasuen hautematea eta emakumeen osasun-arreta hobetzeko programak diseinatu ahal izango dituzte.

- Herritarrak sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko ekintzak gauzatzea, horren barruan egonik oraindik indarkeriarik gertatu ez den egoerak –identifikatu ahal izateko– eta indarkeria gertatu direnekoak, kroniko bihur dadin saihesteko.

- Informazio, zaintza, barne-koordinazio eta segimendurako sistemak hobetzea.

- Gaiari buruzko gogoetarako eta esperientziak trukatzeko espazioak sortzea bultzatzea, eta jardunaldi eta foroetan parte hartzea.

**2. Hautematea.**

a) Elkarrizketa klinikorako jarraibideak.

b) "Ezkutuko" indarkeria hautemateko adierazleak.

c) Balorazioa.

Bereziki osasun-eremuan hautematea eta jardutea hobetzeko, Osasun Zerbitzuek honako neurri hauek bultzatuko dituzte:

- Oinarrizko arreta zerbitzuetan, kasu susmagarriak eta indarkeria diagnostikoak erregistratzeko sistema hobetzea, arreta espezializatua, arreta sozio-sanitarioa eta osasun mentala.

- VIH/HIES kasuetan, haurdunaldien kontrol eta segimenduan eta gogoz kontrako haurdunaldietan, indarkeriaren baheketa txertatzea. Jarduera hori kontsultan egingo da eta modu pribatuan, haurdun dagoen emakumearekin soilik.

- Oinarrizko arreta zerbitzuetan eta Osasun Mentaleko sarean bertan, historian ikono batzuk eduki ahal izatea protokolo bihurtzea, datuak jaso eta lagatzeko orria agertzeko; halaber, protokolo honi dagokionez, arreta, barneko eta kanpoko koordinazioa eta segimendua hobetuko duen beste edozein adierazle/ikono ere.

- **Galdera ahalbidetzaileak** egin eta honako adierazle hauei arreta jartzea garrantzitsua da: **aurrekari pertsonalak** (medikamentu, droga edo alkoholaren kontsumoa, suizidio ahaleginak, desgaitasun kasuan ez onartzea), **kontsultarako arrazoiak** (hipermaiztasun-aldiak eta absentzia luzeak, hitzordu edo tratamenduak ez betetzea, larrialdi zerbitzuak behin eta berriz erabiltzea), zainketa pertsonalik eza, depresio-ezaugarriak eta, indarkeria fisikoaren kasuan: lesioaren eta arrazoiari buruz emandako azalpenaren arteko **inkongruentzia**, lesioak oso leku susmagarritan, lesioa justifikatzea, etab.

- Barneko protokoloak prestatzea, **behar beste giza baliabide** (emakumeekin zuzenean jardungo duten profesionalak: medikuak, erizainak, emaginak, gizarte-langileak, erizain-laguntzaileak eta, kasu batzuetan, beharrezkoa izango da zeinuen interprete eta itzultzailea ere), **baliabide material** (intimitatea eta konfidentzialtasuna bermatuko dituen espazioa, oztopo arkitektonikorik gabe eta behar diren tresna eta diagnostiko eta tratamendurako material klinikoarekin; gainera, material ortoprotesikoa eta ikus-entzunezko eta informatikako baliabideak komunikazio arazoak dituzten emakumeen oso-osoko arreta bermatzeko) eta **baliabide ekonomiko** erabiliz.

**3. Arreta eta oneratzea.**

a) Informazioa.

b) Kontsultako lana eta segimendua.

c) Deribazioa.

d) Historia klinikoan erregistratzea.

e) Seme-alabekin eta mendeko pertsonekin jardutea, baldin baditu.

f) Bidezko denean, lesioen partea eta dagokion mediku-txostena egitea.

## 7.2.2 Esku-hartzeko jarraibideak eta plana.

### 7.2.2.1 Esku hartzeko jarraibideak.

Emakumeen kontrako indarkeria kasuak hautemateko eta halakoetan esku hartzeko jarraibide orokorrak (Ikus “Esku-hartze profesionalerako jarraibideak” atala) honako hauek dira:

a) **Arreta aktiboa** izan artatzen ditugun emakumeak indarkeria pairatzen ari direlako edo pairatu dutelako posibilitatearen aurrean.

b) Emakumeari buruz dakigunaren eta dagoen konfiantzazko giroaren arabera, beharrezkoa izan daiteke aurretik galderak testuinguruan kokatzea eta honakoaren antzeko sarrera bat egitea:

- Emakumeen bizitzan indarkeria oso ohiko arazoa da, eta oso larria izan daiteke. Hori dela eta, errutinaz galdetzen diet gai honi buruz kontsultara etortzen diren emakume guztiei…
- Badakizu orain askotan hitz egiten dela indarkeriari buruz, oso ohiko arazoa da eta oso larria izan daiteke…
- Emakume askok pairatzen dute indarkeria bizitzako uneren batean, eta bizitzako eremuetako edozeinetan...

Ondoren, komeni da alderdi orokorragoekin jarraitzea galdera zuzenduagoen bidez. Galdera horiek, indarkeria non gertatzen den eta indarkeria motari buruzkoak izan beharko lukete (ikus "Terminologia eta kontzeptuak" atala):

- Zer moduz doaz gauzak etxean? Eta lanean?
- Zure ustez, zein da ezinegon edo osasun-arazo horren arrazoia?
- Urduri samar ikusten zaitut. Zerbaitek kezkatzen al zaitu?
- Horrela sentiarazten zaituen egoera problematikoren bat bizitzen ari al zara?
- Batzuetan, indarkeriazko harremanak gertatzen dira familiaren baitan. Zer gertatzen da etxean liskarren bat duzuenean? Nolakoak dira liskar horiek? Borroka fisikorik izaten al duzue?
- Pairatu al duzu edo pairatzen al duzu indarkeria psikologiko, fisiko edo sexualik zure bikotekidearengandik? Nolakoa? Erantzuna baiezkoa bada: Noiztik? Nolako maiztasunarekin?

c) Behin susmoa hartuta, beharrezkoa da **elkarrizketa klinikoa** egitea, honako **jarraibideen arabera:**

- **Emakumearekin bakarrik egin hitzordua.** Familia-unitateko kide ez den baten baten indarkeria pairatzen ari bada, emakumearen baimena eskatu haiei deitzeko. Norbaitekin badator eta indarkeria susmoak edo adierazleak erasotzailea kontsultan dagoenean hautematen badira, kanpora irteteko gonbita egingo zaio, balorazio egokia egiteko, emakumeari azterketa fisikoa egin behar zaiola esanez.
- Bere osasunerako arriskuez ohartarazi, eta emakumearen erabakia errespetatu.
- **Ez eman erreakzionatzeko gaitasuna murriztuko dion botikarik.**

Honako hauek izan daitezke **egin beharreko galdera batzuk**:

- Emakumearen aurrekarietatik eta ezaugarrietatik lortutako informazioaren ondoriozko susmoa denean:
  - Zure historia ikusten aritu naiz, eta gauza batzuk komentatu nahi dizkizut. Ikusten dudanez… (ikusitakoa kontatu). Zure ustez, zergatik da? Zer esan diezadakezu honi buruz? Zure ustez, dena lotuta al dago?
  - Kasu askotan, emakumeek zureak bezalako arazoak izaten dituzte, esaterako… (identifikatuetako batzuk aipatu, adierazgarrienak), eta beste norbaitek –bikotekideak, esaterako– eragindako indarkeria motaren bat pairatzen dute. Hori al da zure kasua?

- Dispareunia, pelbiseko mina gisako aurrekariak dituelako susmoa badago:
  - Behartu al zaituzte inoiz zuk nahi izan gabe harreman edo praktika sexualak izatera?

- Dituen lesio fisikoen ondoriozko susmoa badago:
  - Lesio hori kolpe gogor /ukabilkada bat jasotzen denean agertu ohi da… Hori al da gertatu zaizuna?
  - Zure bikotekideak edo beste pertsonaren batek indarra erabiltzen al du zure kontra? Nola? Noiztik?
  - Inoiz egin al dizute eraso larriagorik? (jipoiak, armekin, sexu erasorik).

- Aurkitutako sintoma edo arazo psikikoen ondoriozko susmoa badago:
  - Kontatu dizkidazun sintoma hauei buruzko (antsietatea, urduritasuna, tristezia, apatia…) zure iritzia jakin nahi nuke: Noiztik sentitzen zara horrela? Zure ustez, zergatik da? Zerbaitekin erlazionatzen al dituzu? Nola doakizu bikote-harremana?
  - Azken aldian, gertatu al da zure bizitzan kezkatzen edo triste sentiarazten dizun zerbait? Agian, bikotekidearekin arazoren bat duzu? Seme-alabekin? Familiako kideren batekin? Eta lanean?
  - Beldurtuta, erne, zaudela dirudi. Zeren beldur zara?
  - Eragozpenen bat al duzu lagunak edo senitartekoak ikusteko? Zerk eragozten dizu ikusi ahal izatea?

d) Badira **indarkeria hautematen lagun dezaketen adierazle edo egoera batzuk:**

- Emakumearen portaera-aurrekariak:
  - Haur zela tratu txarrak pairatu edo ikusi izana (horri buruz galdetu behar zaio).
  - Iraganean edo orain senitartekoengandik, lagunengandik edo beste profesional edo erakundeengandik tratu txarrak jasan izanari buruzko informazioa.
  - Medikamentuen abusua, batik bat psikofarmakoak.

- Ihes-portaeren historia: alkoholaren eta drogen gehiegizko kontsumoa.
- Suizidio-ahaleginen historia.
- Behin eta berriz istripuak eduki izana (etxean, erorikoak, kirola egitean…).
- Elikadura-portaeraren nahasmendua.

o Aurrekari gineko-obstetrikoak:
- Genitaletako, abdomeneko edo bularretako lesioak (batez ere haurdunaldian).
- Dispareunia, pelbiseko mina eta behin eta berriroko infekzio genitalak.
- Ugalkortasun-kontrolik eza: gogoz kontrako edo onartu gabeko haurdunaldia.
- Jaio-aurreko arreta eskatzea berandutzea.
- Abortu edo HBEen (haurdunaldia borondatez etetea) historia.
- VIH+ edo HIES.

o Kontsultarako zioak:
- Ez da aurkitzen sintomak justifikatzen dituen diagnostikorik.
- Sintoma somatiko errepikakorrak: batik bat, min kronikoa, urdail-hesteetako ondoeza.
- Sintoma psikologiko errepikakorrak: loaren nahasmendua, izu- eta larritasun-krisia, depresioa eta antsietatea.

o Osasun-zerbitzuak erabiltzea:
- Gehiegizko erabilera edo gehiegizko erabilera eta absentzia luzeak txandakatzea.
- Hitz-orduetan edo tratamenduetan huts egitea.
- Kontsultan, bikotekidearen edo beste laguntzaileren baten presentzia iraunkorra.
- Larrialdi-zerbitzuen behin eta berriroko erabilera.
- Ospitaleratze ugariak, justifikatzen duten diagnostikorik gabe.

o Kontsultan bertan lesioak aurkeztea:
- Lesio fisikoengatiko laguntza-eskaeran atzeratzea.
- Lesio motaren eta arrazoiaren azalpenaren arteko inkongruentzia.
- Lesioak erdialdean kokatuta, edo normalean arropak estaltzen dituen gorputzaren ataletan.
- Lesioak genitaletan.
- Hematomak edo ubeldurak eremu susmagarrietan: aurpegian eta buruan, besoen eta hanken barneko aldean.
- Osatze-une desberdinetan dauden lesioak (denboran zeharreko indarkeria).
- Babestu izanagatiko lesioak (esaterako, besaurreen barruko aldean).
- Muturreko pasibotasunetik izan daitezkeen lesioak: zigarro-erredurak.
- Kontsultan bertan emakumeak duen jarrera edo haren egoera.
- Depresio edo adore faltaren zantzuak, eta azaldu ezin dituen autoestimu baxua eta erruduntasuna.

o Beldurra edo iheserako jarrera, azalpenak emateko zailtasunak eta deserosotasuna.
- Lotsa, komunikazio zaila eta begirada saihestea.
- Antsietate- edo larritasun-egoera, testuingurutik kanpoko haserrea, artatzen ari den profesionalaren kontrako oldarkortasuna.
- Isolamendua: beste pertsona batzuekin harremanik ez du.
- Ez du bere burua zaintzen.
- Lesioak justifikatzen ditu edo garrantzia gutxitzen ahalegintzen da.
- Bikotekidea aurrean badago, haren onarpena bilatzen du eta erantzunetan beldurra antzematen zaio.

o Bikotekidearen jarrera

- Bisita osoan bera bertan egoteko eskatzea.
- Emakumeak esaten duen guztiaren gaineko kontrola: bikotekideak erantzuten du, eta eten egiten du emakumea kontatzen ari dena zehazteko.
- Gehiegizko kezka edo zaintza erakutsi beharra.
- Urduri irudi dezake, bai eta etsaikor edo erasokor, emakumearekin edo profesionalarekin.

e) **Indarkeriaren balorazioa egiteko** zenbait **adierazle** daude. Balorazioak lagundu egin behar du zehazten indarkeria-susmo hutsa den, emakumearen osasunerako muturreko arriskurik oraindik agertzen ez duen indarkeria-kasu baten aurrean gauden, edo, aitzitik, osasuna edo bizitza bera muturreko arriskuan dituen emakume baten aurrean gauden. Indarkeria motaren arabera, emakumea zer arriskupean dagoen balioesteko eskalak badaude argitaratuta. Hala ere, eskala horietako batek ere ezin du profesionalen epaia ordeztu; are gutxiago emakumearen beraren pertzepzioa. Beraz, emakumea arriskuan sentitzen bada, halakotzat hartu behar da.

**a. Balorazio biopsikosoziala:**

- Lesioak eta sintoma fisikoak.
- Familia-egoera.
- Egoera ekonomikoa, lan- eta okupazio-egoera.
- Emakumearen laguntza-sare soziala.
- Egoera emozionala.

**b. Indarkeria-egoeraren balorazioa:**

- Indarkeriaren mota, iraupena, maiztasuna eta intentsitatea.
- Erasotzailearen familia- eta gizarte-portaera; beste pertsona edo senitartekoren baten kontrako erasorik izan ote den.
- Emakumeak garatu duen egokitzapen-mekanismoa.
- Indarkeria-prozesuko zer fasetan dagoen.

**c. Segurtasunaren balorazioa eta arriskuaren ebaluazioa:**

• Emakumea muturreko arriskupean dagoen ala ez zehaztu behar da, eta muturreko arriskutzat joko dugu emakumeak berehala eraso bat sufritzeko arriskua, bere bizitzaren eta bere seme-alaben bizitzaren kontrako zalantzarik gabeko arriskuarekin. Muturreko arriskuaren adierazleak (balorazio hau emakumearekin batera egingo da):

- Armekin mehatxatu izana edo armak erabili izana.
- Emakumea edo seme-alabak hiltzeko mehatxua edo hilketa-ahaleginak.
- Emakumearen suizidio-mehatxuak edo ahaleginak.
- Seme-alaben edo familiako beste kideren batzuen kontrako indarkeria.
- Lesio larriak, ospitaleratzea ere eragin dutenak.
- Mehatxuak edo jazarpena, nahiz eta banaketa egon.
- Indarkeriaren intentsitatea eta maiztasuna handitzea.
- Haurdunaldian eraso egin izana.
- Behin eta berriroko abusu sexualak.
- Etxetik kanpo portaera bortitza erakustea.
- Muturreko zeloak, emakumearen eguneroko jardueren kontrol obsesiboa (nora doan, norekin dagoen edo zenbat diru daraman).
- Gero eta isolamendu handiagoa.
- Bikotekideak alkohola edo drogak kontsumitzea, bai eta emakumeak ere.

- Erasotzaileak gero eta alhadura txikiagoa edo inolako alhadurarik ez erakustea.

• Kontuan hartu behar da emakumeak duen arriskuaren pertzepzioa; bai beraren aurkakoa bai familiako beste kide batzuen aurkakoa. Adierazle hau aurkitzen dugunean, berehala muturreko arrisku-egoera gisa definituta geratuko da.

• Profesionalen balorazioaren ondorengo irizpidea (batez ere elkarrizketan egindakoa eta balorazio biopsikozoziala).

• Arrisku-egoeraren bat hautematen bada, honako galdera hauek egin behar dira:
  - Seguru sentitzen al zara etxean? Orain etxera joan zaitezke?
  - Seguru al daude zure seme-alabak? Non dago orain erasotzailea?
  - Zure lagunek eta senitartekoek badute honen berri? Lagunduko al zaituzte?

f) Historia klinikoan erregistratu, eta bidezkoa bada, medikuaren partean ere bai:

- o Indarkeria seinaleak, zantzuak eta susmoak, sintoma fisiko eta psikologikoak kontuan hartuta. Bikotearen kasu zehatzean, indarkeria-egoera eta mota baloratzeko zenbait galdera izan daitezke honako hauek:
  - ▪ **Indarkeria psikologikoa**
    - Sarritan oihukatzen dizu, edo larderiaz hitz egiten al dizu?
    - Zuri edo zure seme-alabei, edo beste pertsona edo etxeko animaliei min egingo dizuela mehatxatzen dizu?
    - Bakarka, edo seme-alaben edo beste pertsona batzuen aurrean iraintzen, barregarri uzten edo gutxiesten al zaitu?
    - Jeloskor jartzen al da arrazoirik gabe?
    - Gertatzen den guztiaren errua leporatzen al dizu?
    - Uzten baduzu haurrak kenduko dizkizula mehatxu egiten al dizu?
    - Zure sentimenduei, zure presentziari, eta abarri ezikusiarena egiten die?
  - ▪ **Indarkeria fisikoa**
    - Bikotekideak bultzatzen edo heltzen al dizu?
    - Zure bikotekideak kolpatzen zaitu, zaplaztekoak ematen dizkizu edo beste moduren batean eraso egiten al dizu?
  - ▪ **Sexu-indarkeria**
    - Zure bikotekideak sexu-harremanak edukitzera behartzen zaitu zure borondatearen kontra?
    - Zuk nahi ez duzun sexu-jardunen bat egitera behartzen zaitu?
  - ▪ **Indarkeria ekonomiko eta soziala.**
    - Zure familia edo lagunak ikustea eragozten al dizu?
    - Dirua kontrolatzen dizu eta gastuen berri ematera behartzen zaitu?
    - Etxetik kanpo lan egitea edo ikastea eragozten dizu?
    - Uzten baduzu haurrak kenduko dizkizula mehatxu egiten al dizu?
- o Emakumearen kontakizuna:
- o Salaketan froga gisa balio izan dezaketen funtsezko elementuak kontuan hartuta jasoko da informazio guztia.
- o **Berehalakotasuna** adierazle eta irizpide objektiboen arabera balioetsi behar da, eta osasun-arloko profesional guztiek partekatutako enfoke eta helburu homogeneoekin.
- o Emakumeari **erabilgarri dituen baliabide espezializatuen** eta bertara iristeko moduen berri eman.

g) Oinarrizko Arreta zerbitzuko zentrotik **segimendua** egin, bereziki emakumeak ez badu egoera indarkeriazkotzat identifikatzen eta/edo arreta-zirkuituko beste zerbitzuetara jotzeari uko egiten badio. Espezialitateek edo Larrialde Zerbitzuek hauteman badute, barneko komunikazioa egingo zaie Oinarrizko Arreta zerbitzuei horren berri emateko, emakumeak komunikazio hori gertatzea nahi ez badu izan ezik.

h) Emakumea eta/edo haren kargu dauden pertsonen **osotasuna arriskuan** dagoela uste bada, osasun-zentroan eduki Ertzaintzak haien segurtasuna bermatu arte.

### 7.2.2.2 Esku hartzeko plana.

Esku hartzeko plana indarkeria motaren, espazioaren, ezaugarri berezien eta abarren arabera aldatuko da, protokoloan zehar azaldu den bezala. Jarraian, bost jokaleku desberdinen araberako esku-hartze planerako proposamena aurkeztuko da:

#### A. Sexu-indarkeriako kasuetan nola jardun.

Berriki (72 ordu baino gutxiago) sexu eraso edo abusuren bat gertatu bada, ahalik eta lasterren eraman behar da emakumea Galdakao-Usansoloko Ospitalera, eta etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei arreta hobea egiteko erakundeen arteko II. akordioa (edo indarrean dagoena) eta honako protokolo honetan jasotzen diren jarraibideei egingo zaie kasu. Sexu-eraso edo abusu bat artatzen duen oinarrizko arretarako osasun-langileak bermatu egin behar du emakumearen balorazio fisiko, psikiko eta soziala. Balioetsi egin behar da biktima ospitale hurbilenera eraman beharra ere, emakumea garbitu eta arropaz aldatu gabe. Felazio kasuetan, garrantzitsua da, ahal den heinean, biktimak likido edo elikagairik ez irenstea ospitalean aztertu aurretik.

Sexu-indarkeria duela gutxikoa ez bada, emakumearen erabateko oneratzea lortzeko prozesuari ekingo zaio, egon litezkeen ondorio fisiko eta, bereziki, psikologikoak kontuan hartuta. Osasun-langileek emango diote Gizarte Zerbitzuen bidez arreta psikologikoa jasotzeko aukeren eta dauden baliabideen berri, eta kasuaren segimendua egingo dute kontsultan. Era berean, izaera pertsonaleko datuak jasotzeko eta lagatzeko baimena eskatuko zaio emakumeari, erakundeen arteko koordinazioa abian jartzeko (II. eranskina).

Adingabeko baten aurkako sexu-indarkeriaren susmoa badago, haurren tratu txarren berri emateko orria beteko da (protokolo komuna) eta Gizarte Zerbitzuetara bidaliko da. Medikuaren partea berehala bidaliko da Guardiako Epaitegira edo Fiskaltzara.

## B. Susmo-adierazleak dituen arren indarkeriarik ez duela pairatzen dioen emakumea.

<table>
<tr><th colspan="2">SUSMO-ADIERAZLEAK DITUEN ARREN INDARKERIARIK EZ DUELA PAIRATZEN DIOEN EMAKUMEA</th></tr>
<tr><td rowspan="4">Historia klinikoan andrea agertu den egunean genero-indarkeria jasan izan duen susmoa dagoela jasoko da, eguna eta adostutako jarraipen-plana idatziz. Historia klinikoan egindako erregistro hau prozesu judizialean froga gisa erabilgarria izan daiteke.<br><br>Historian sartzeko baita, txosten sozial bat egin ahal izango da genero-indarkeria egoeraren diagnostikoa eta balorazio soziala gehitu ditzaketelako.</td>
<td>Susmoa dagoenean, andrearekin batera egoeraren gaineko hausnarketa egingo da (indarkeria susmoa) antzemandako adierazleak genero-indarkeria posiblearekin lotuz. Andreari bortizkeria jasan duen galdetu ondoren, baieztatzen badu segurtasuna baloratu beharko da eta, arrisku larrian badago edo ez, kasuan-kasu dagokion ekintza-plana jarriko da abian (jarraian deskribatzen dira). Aldiz, baieztatzen ez badu, jarraituko den ekintza-plana honako hau izango da:</td></tr>
<tr><td>Kontsultan egin beharrekoa (jarraipena):<ul><li>Arreta integrala edo diziplinartekoa. Interkontsultaren aukera kontuan hartu behar da inplikatutako profesionalekin eta tratamendu-plan amankomuna egingo da, honetan argi geratuko dira profesional bakoitzaren erantzukizunak eta egitekoak, hala nola, ondorengo jarraipena.</li><li>Arazo fisiko, psikiko edo emozionalen tratamendua, eta emakumearen edo familiaren arazo sozialari arreta.</li><li>Jarraipen bisitak eskaini behar dira indarkeria egoera baieztatu bitartean eta erabakiak hartzean, era enpatikoan.</li><li>Bere bizitzaren kontrola edukitzeko sentsazioari laguntzen dioten egoerak indartzea.</li><li>Jarraipen-bisitak eskaintzea aurkitutako osasun arazoetarako hartu-emana ez galtzeko helburuarekin.</li><li>Emakumeari laguntzea genero-indarkeria onartzeko prozesuan edo bidean eta baita erabakiak hartu behar dituenean.</li><li>Ahal denean, komenigarria ikusten da taldeetan partehartzea eskaintzea (zentroko emakume-taldeak edo eskualdeko beste baliabide batzuk).</li></ul></td></tr>
<tr><td>Izaera pertsonaleko bere datuak jaso eta lagatzearen gaineko informazioa ematea, hala koordinazioa, nola erakundeen arteko deribazio (II. eranskina).<ul><li>Gizarte-langileari arrisku psikosozial egoerak antzeman badira.</li><li>Emakumeak bizi duen egoerarentzat aproposak diren baliabideak: Andrea harremanetan jarri behar da indarkeria jasaten duten emakumeen sareak dituen eta beharrezkotzat jotzen diren baliabideekin (I. eta IV. eranskina), baina inoiz ez osasun taldeak diziplinarte lan-plan bat egin, andrearen zirkunstantzia partikularrak aztertu eta baliabide bakoitzaren egokitasuna baloratu aurretik.</li><li>Kudeatu egin behar da bidaltzen den zerbitzuaren zita eta aktuazioa koordinatu.</li></ul></td></tr>
<tr><td>Aktuazioa, emakumearekin bizi diren mendeko pertsonekin, daudenean.<br><br>Andreak adinez txikiak diren semeak edo alabak baditu, pediatrian egoeraren barri emango da eta adinez txikientzako aurreikusitako protokoloa ezarriko da (arriskua baloratu, interbentzioa, deribazioa, …).<br><br>Berdin, andrearekin bizi diren mendekoengan indarkeriak eragiten dituen ondorioak baloratu behar dira eta egin beharrekoa egin beharko da, edo premia ikusten bada, dagokion lekura bidaliko dira.</td></tr>
</table>

## C. Indarkeria pairatzen duela eta muturreko arrisku-egoeran dagoela dioen emakumea.

<table>
<tr><th colspan="4">INDARKERIA PAIRATZEN DUELA ETA MUTURREKO ARRISKU-EGOERAN DAGOELA DIOEN EMAKUMEA</th></tr>
<tr><td rowspan="3">Historia klinikoan andrea agertu den egunean genero-indarkeria jasan duen susmoa dagoela jasoko da, eguna eta adostutako jarraipen-plana idatziz. Historia klinikoan egindako erregistro hau prozesu judizialean froga gisa erabilgarria izan daiteke.<br><br>Historian sartzeko baita, txosten sozial bat egin ahal izango da genero-indarkeria egoeraren diagnostikoa eta balorazio soziala gehitu ditzaketelako.<br><br>LESIO-PARTEA ETA MEDIKU-TXOSTENA EGITEA<br><br>Andreari egindako agirien kopiak emango zaizkio, bakoitzetik bat, eta ondorioak zeintzuk diren azalduko zaizkio. Bestalde, estrategiak ezarri behar dira agiri horiek egitean andrearen bizitza arriskuan ez jartzeko ez eta seme-alabena edo mendekoena.</td>
<td colspan="3">Andrearekin batera hausnarketa egingo da bere egoeraren gainean egindako balorazioa azaltzeko, arriskua zein den ikus dezan eta jarraitu beharreko estrategiak zeintzuk izan daitezkeen ulertaraziz, eta gainera honako hau:<br><br>• Esatea, genero-indarkeria delitua dela eta salatzeko eskubidea duela.<br>• Jakinaraztea eskubideak zeintzuk diren, eta baita seme-alabena.<br>• Laguntza-mezuak transmititzea: Errua desegoztea, indarkeriaren barri eman izana sendotzea, konfidentzialtasuna bermatzea, bere autonomia errespetatzea, egoera bera bizi duten emakume gehiago badirela esatea, laguntzeko prest eta laguntza eskainiko dioten pertsonak daudela azaltzea.<br>• Bizi duen arrisku-egoeraren gaineko informazioa ematea eta jarraitu daitezkeen estrategiak zeintzuk diren azaltzea. Ikusaraztea bakarrik ez dagoela.</td></tr>
<tr><td colspan="3">Kontsultako beharra (jarraipena)<br><br>• Arazo fisiko, psikiko edo emozionalen tratamendua, eta emakumearen arazo sozialari arreta.<br>• Bakarrik ez dagoela ikusarazi behar zaio emakumeari.<br>• Jarraitu daitezkeen estrategiak planteatu behar dira eta bere erabakiaren arabera jokatu.<br>• Komenigarria da interesduna lan sozialeko larrialdietako pertsonalarekin, dagoenean, hartu-emanetan jartzea edo tratu txarrak jasan dituzten andreentzat dagoen 24 orduko laguntza- zerbitzuarekin.<br>• Jarraipen plan bat idatzi behar da emakumearen egoerari doitua hiru egoeretako edozeinetan.<br>Kontuan hartu behar da interkontsulta inplikatutako osasun-pertsonalarekin (andrearen baimenarekin) eta tratamendu-plan amankomuna egitea, argi geratuko direnean profesional bakoitzaren erantzukizunak eta egitekoak, hala nola, ondorengo jarraipena.</td></tr>
<tr><td>Etxetik joatea erabaki badu:<br><br>Familiaren egoera zein den ezagutu behar da eta andreak berak dituen baliabideak zeintzuk diren.<br><br>- Seme-alaben egoera: Non eta zelan dauden.<br>- Laguntzeko prest dagoen jendea (sendia, lagunak, ...).<br>- Gainean daraman dokumentazioa eta dirua.<br>Hala badagokio, indarkeria jasan duten emakumeentzat dagoen arreta eta errekuperazio integralaren sareko</td>
<td>Etxera itzultzea erabaki badu:<br><br>Hitzordua emango zaio interbentzioarekin jarraitzeko aurrerantzean erabakiak hartzean zailtzen duten guneak sendotzeko izango dena. Hala badagokio, adinez txikiak babesteko behar diren mekanismoak martxan jarri behar dira. Emakumeari jakinaraziko zaio indarkeria jasan duten emakumeentzat arreta eta errekuperazio osoko sarean beste laguntza-baliabide batzuk daudela.<br><br>Andrearekin berba egin behar da alerta egotearen premiaren gainean, eta</td>
<td>Etxetik alde egin badu eta arrisku larrian jarraitzen badu:<br><br>Azaldu behar zaio erasotzailearengatik urruntzeko legeak badituela urruntze-neurriak, eta eskatuta baditu eta betetzen ez badira gomendatzea eskumena duen agintaritzari horren barri eman behar diola.<br><br>Ahal den guztietan gertaera jasotzen duen txosten bat egitea komeni da agintaritzari gertatutakoaren barri emateko.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td rowspan="3"></td><td>larrialdi eta emergentzietako arreta-zerbitzuak aktibatu behar dira.<br><br>Laguntza eta jarraipena eskaini behar da (berriz ikusteko eta barriak jakiteko interesa).</td><td>bai berarentzat eta bai adinez txikientzako, dauden kasuan, babes-eremu bat sortzea eta presaz etxetik alde egiteko premiaren aurrean kontuan hartu beharreko neurrien gainean.</td><td>Hala badagokio, larrialdi- eta emergentzia-arreta zerbitzuak aktibatu behar dira.</td></tr>
<tr><td colspan="3">Izaera pertsonaleko bere datuak jaso eta lagatzearen gaineko informazioa ematea, hala koordinazioa, nola erakundeen arteko deribazio (II. eranskina).<br><ul><li>Gizarte-langileari arrisku psikosozial egoerak antzeman badira.</li><li>Emakumeak bizi duen egoerarentzat aproposak diren baliabideak: Andrea harremanetan jarri behar da indarkeria jasaten duten emakumeen sareak dituen eta beharrezkotzat jotzen diren baliabideekin (I. eta IV. eranskina), baina inoiz ez osasun taldeak diziplinarte lan-plan bat egin, andrearen zirkunstantzia partikularrak aztertu eta baliabide bakoitzaren egokitasuna baloratu aurretik.</li></ul>Kudeatu egin behar da bidaltzen den zerbitzuaren zita eta aktuazioa koordinatu.</td></tr>
<tr><td colspan="3">Aktuazioa, emakumearekin bizi diren mendeko pertsonekin, dauden kasuan.<br><br>Andreak adinez txikiak diren semeak edo alabak baditu, pediatrian egoeraren barri emango da eta adinez txikientzako aurreikusitako protokoloa ezarriko da (arriskua baloratu, interbentzioa, deribazioa, …).<br><br>Berdin, andrearekin bizi diren mendekoengan indarkeriak eragiten dituen ondorioak baloratu behar dira eta egin beharrekoa egin beharko da, edo premia ikusten bada, dagokion lekura bidaliko da.</td></tr>
</table>

## D. Indarkeria pairatzen duela baina muturreko arrisku-egoeran ez dagoela dioen emakumea.

<table>
<tr><th colspan="2">INDARKERIA PAIRATZEN DUELA BAINA MUTURREKO ARRISKU-EGOERAN EZ DAGOELA DIOEN EMAKUMEA</th></tr>
<tr><td rowspan="4">Historia klinikoan andrea agertu den egunean genero-indarkeria jasan duen susmoa dagoela jasoko da, eguna eta adostutako jarraipen-plana idatziz. Historia klinikoan egindako erregistro hau prozesu judizialean froga gisa erabilgarria izan daiteke.<br><br>Historian sartzeko baita txosten sozial bat egin eta sar daiteke genero-indarkeria egoeraren diagnostikoa eta balorazio soziala gehitu ditzaketelako.<br><br>**LESIO-PARTEA EGITEA, EGIN BEHAR DENEAN**<br><br>Legez aurreikusita dago autoritate judizialari, indarkeria egon dela egiaztatutakoan, lesioak edo beste sintoma batzuk daudela jakinarazteko obligazioa, eta hau beteko da lesio-txostena eta medikuaren txostena bidalitakoan. Andreari txostenen kopia eman behar zaio eta hauen ondorioak zeintzuk diren azalduko zaizkio. Beste alde batetik, estrategiak ezarri beharko dira jakinarazpen honek arriskuan jar ez ditzan ez emakumearen bizitza, ez eta adinez txikiena edo mendekoena.</td>
<td>Andrearekin batera hausnarketa egingo da bere egoeraren gainean egindako balorazioa azaltzeko, arriskua zein den ikus dezan eta jarraitu beharreko estrategiak zeintzuk izan daitezkeen ulertaraziz, eta gainera honako hau:<br><br>• Esatea, genero-indarkeria delitua dela eta salatzeko eskubidea duela.<br>• Jakinaraztea eskubideak zeintzuk diren, eta baita seme-alabena (baditu).<br>• Indarkeriaren portaera azaltzea (zikloa, ondorioak, …).<br>• Azaltzea indarkeriak bere osasunean eta bere ongizatean eta senideenean (gehien bat adinez txikiengan eta mendekoengan) dituen ondorioak.<br>• Laguntza-mezuak transmititzea: Errua desegoztea, indarkeriaren barri eman izana sendotzea, konfidentzialtasuna bermatzea, bere autonomia errespetatzea, egoera bera bizi duten emakume gehiago badirela esatea, laguntzeko prest eta laguntza eskainiko dioten pertsonak daudela azaltzea.</td></tr>
<tr><td>Kontsultan egin beharrekoa (jarraipena):<br><br>• **Arreta integrala edo diziplinartekoa**. Interkontsultaren aukera kontuan hartu behar da inplikatutako profesionalekin eta tratamendu-plan amankomuna egingo da, honetan argi geratuko dira profesional bakoitzaren erantzukizunak eta egitekoak, hala nola, ondorengo jarraipena.<br>• **Arazo fisiko, psikiko edo emozionalen tratamendua, eta emakumearen edo familiaren arazo sozialari arreta.**<br>• **Jarraipenerako kontsulta-plan bat ezarri** behar da honako honetarako:<br>- Egoera aldatzen hasteko erabakiak hartzea planteatzea eta horietan laguntzea.<br>- Egoerari aurre egiteko orduan andreari laguntzea.<br>- Indarkeria gertakari berriak prebenitzea.<br>• Ahal denean, komenigarria ikusten da **taldeetan partehartzea eskaintzea** (zentroko emakumeen taldeak edo eskualdeko beste baliabide batzuetan).</td></tr>
<tr><td>**Izaera pertsonaleko bere datuak jaso eta lagatzearen gaineko informazioa ematea, hala koordinazioa, nola erakundeen arteko deribazio (II. eranskina)**.<br><br>• Gizarte-langileari arrisku psikosozial egoerak antzeman badira.<br>• Emakumeak bizi duen egoerarentzat aproposak diren baliabideak: Andrea harremanetan jarri behar da indarkeria jasaten duten emakumeen sareak dituen eta beharrezkotzat jotzen diren baliabideekin (I. eta IV. eranskina), baina inoiz ez osasun taldeak diziplinarte lan-plan bat egin, andrearen zirkunstantzia partikularrak aztertu eta baliabide bakoitzaren egokitasuna baloratu aurretik.<br>Kudeatu egin behar da bidaltzen den zerbitzuaren zita eta aktuazioa koordinatu.</td></tr>
<tr><td>**Aktuazioa emakumearekin bizi diren mendekoekin, daudenean.**<br><br>Andreak adinez txikiak diren semeak edo alabak baditu, pediatrian emango da egoeraren barri eta adinez txikientzako aurreikusitako protokoloa ezarriko da (arriskua baloratu, interbentzioa, deribazioa,…).<br><br>Berdin, andrearekin bizi diren mendekoengan indarkeriak eragiten dituen ondorioak baloratu behar dira eta egin beharrekoa egin beharko da, edo premia ikusten bada, dagokion lekura bidaliko dira.</td></tr>
</table>

**E. Emakumeen Genitalen Mutilazio (EGM) kasuak hautematea eta nola jardun.**

**a. Arrisku kasuetan:**

- Oinarrizko Arretako zerbitzuek arrisku-egoerak identifikatu beharko dituzte adinaren eta jatorrizko etniaren arabera.
- Emaginek eta Ginekologiako Zerbitzu Espezializatuek EGM kasu bat hautematen dutenean, familia-medikuari jakinaraziko diote, eta berak egingo du kasuaren segimendua.
- Emakumeak arrisku-adinean dauden alabak, ahizpak edo beste senitartekoren bat badu, pediatrari edo familia-medikuari jakinaraziko diote, prebentzio lanarekin hasteko.
- Era berean, arrisku kasuen berri emango da ikastegian, jarduera-protokoloa aktibatzeko.
- Familiarekin prebentzio-lana egingo da (bidaiaren aurretik), informazioa eskainiz, eta ez mutilatzeko konpromisoa sinatuz.
- Bidaiaren ondoren, Oinarrizko Arretako kontsultarako hitz-ordua emango zaie, diagnostikoa egiteko.

**b. EGM egiaztatzen bada:**

- Lesioen partea bidaliko zaio eskumena duen epaitegiari, adingabekoa bada, eta Euskadin bizi den bitartean gertatu bada.
- Izaera pertsonaleko datuak jasotzeko eta lagatzeko baimena eskatuko zaio emakumeari, erakundeen arteko koordinazioa abian jartzeko, II. eranskinean xedatzen denari jarraikiz.
- Arreta psikologiko indibiduala jasotzeko eta familiarekin lan egiteko Gizarte Zerbitzuetara deribatuko da.
- Azterketa mediko zorrotza egingo zaio, ahal den heinean, biktimaren oneratze fisikoa bermatzeko.

## 7.3 Gizarte-eremua.

Gizarte Zerbitzuak zuzenean esku hartzeko ardura duten unitateak dira emakumeen kontrako indarkeria kasuetan, bai udal mailan (Berriz) bai mankomunitatean (Abadiño, Durango eta Elorrio). Emakumeak hartu eta haien egoera baloratzen dute, informazioa ematen diete, lagundu eta, kasu bada, zerbitzu espezializatuetara bideratzen dituzte.

### 7.3.1 Eginkizunak

Gizarte Zerbitzuen erantzukizuna izango da emakumeei honako eskubide eta zerbitzutik eratorritako eginkizun hauek bermatzea.

**1. Informaziorako eskubidea.**

Gizarte Zerbitzuek honako honi buruzko informazioa emango diete emakumeei:

a) Araudian xedatzen diren babes-neurriei buruzkoa,
b) Onartutako eskubide eta laguntzei buruzkoa.

c) Arreta-, larrialdi-, laguntza- eta erabateko oneratzerako baliabideen sareari eta bertara iristeko moduari buruzkoa.

Informazio hori emakumearen beharrizanaren edo egoeraren araberakoa izango da, ahoz emango da eta baliabideen gidak eta liburuxkak erabiliko dira lagungarri. Lehenengo bisitan izaera pertsonaleko datuak jasotzeko eta lagatzeko fitxa azalduko zaio, horretarako baimena eman dezan.

Informazioa arratsaldeetan, jaiegunetan eta asteburuetan jasotzerik izango duela bermatzeko, 24 orduko arreta espezializatuko linearen berri emango diote Gizarte Zerbitzuek: SATEVI-900.840.111, Eusko Jaurlaritzak emakume, senitarteko eta profesionalentzat prestatua.

## 2. Oso-osoko gizarte-urgazpenerako eskubidea.

Eskubide honen barruan daude arreta, larrialdia, laguntza, harrera eta erabateko oneratzea. Zerbitzu horien xedea da urgazpena eskatzen duten emakumeek bizi duten indarkeria-egoeratik ondorioztatzen diren beharrizanak asetzea.

Horien bidez honako hau ahalbidetzen zaie emakumeei:

- Aurre egin behar izan dioten edo bizitzeko arriskua izan duten indarkeriaren kontzientzia hartzeko eta oneratze emozionala lortzeko, espazioa eta denbora eskaintzen zaie.
- Erreparazio-prozesuan lagunduta egotea.
- Ahalduntzea, autonomia eta independentzia berreskuratzea.
- Erresilientziarako laguntza jasotzea.
- Has ditzaketen jarduerei eta emakumeen eskubideei buruzko aholkularitza jasotzea.
- Laguntza materiala, medikoa, psikologikoa eta soziala jasotzeko zer zerbitzuetara jo dezaketen jakitea,
- Ostatu hartzeko baliabideetara iristea (larrialdiak, aldi baterako harrera, babestutako zentroak, etab.), zeinetan segurtasuna bermatuta izateaz gain, oinarrizko eskubideak estalita izango dituzten eta osasuna berreskuratzeko aukera izango duten,
- Formazioa, eta lan munduan hastea edo berriro ere laneratzea lortzea.
- Bizi-kalitatea hobetzea eta berdintasun, errespetu eta tolerantzia baloreetan trebatzea.

Oso-osoko gizarte-urgazpenerako eskubidea genero-indarkeria dagoen familia-inguruneetan bizi diren adingabekoek ere badute. Gizarte Zerbitzuetatik bigarren biktimizazioak landuko dira, eta segurtasun eta laguntzarako espazioa eskainiko zaie emakumeei, emakumeen eta gizonen arteko errespetuan eta berdintasunean oinarritutako ez-indarkeriazko eta ongizateko harreman eta bizikidetza ereduak erakutsiz.

### a. Arreta espezializatua.

Emakumearen egoeraren eta/edo landa-lanaren ondoko diagnostikoa egindakoan, arreta espezializatuko zerbitzuetarako (aholkularitza juridikoa eta/edo laguntza psikologikoa) deribazioa egingo dute Gizarte Zerbitzuek. Deribazioa fitxen bidez egin behar da, halako eraz non zerbitzu horiek emakumeen inguruabarren berri izan dezaten artatzen hasi aurretik.

Gizarte Zerbitzuak zerbitzu espezializatu horiekin koordinatuko dira eta bermatu egingo dute, zeinek bere eskumenen barruan, genero eta/edo emakumeen kontrako indarkeria arloan kualifikazio ziurtatua duten langileek eskainiko dituztela.

- **Aholkularitza juridikoa**

Emakumeek doako eta berehalako urgazpen juridikorako eskubidea dute prozedura guztietan. Durangoko Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuetan bada aholkularitza juridikorako zerbitzua. Bestelako eskaera zehatz batzuekin iristen diren emakumeen kontrako indarkeria kasuak hautemateko eta bidea zabaltzeko modu bat da, batez ere bikote-krisialdi kasuetan. Berrizen, aholkularitza juridikorako zerbitzurik ez dagoenez, Clara Campoamor Elkartera edo arreta juridiko espezializatua eskaintzen duten beste elkarte batzuetara bideratzen dira emakumeak.

Arreta juridikorako zerbitzu horrek honako eginkizun hauek beteko ditu:

- Prozedura judizialen aurretik, bitartean eta haiek amaitutakoan ere emakumeari informazioa ematea, eta ofiziozko txandako abokatu baten urgazpena jasotzeko eskubidea duela jakinaraztea.
- Indarkeriaren biktima (zer indarkeria motari dagokion egokituz) diren aldetik dituzten eskubide espezifikoei eta delituaren biktima diren aldetik dituzten gainerako eskubideei buruzko informazioa ematea (salaketa ipintzea, babesteko agindua eskatzea, zigor-prozedurako parte izatea, leheneratzea, erreparatzea eta kalte-ordainak jasotzea, babesa, etab.).
- Emakumearen egoera judizialaren diagnostikoa egin eta eskura dituen legezko bideen berri ematea.
- Gainerako baliabideekin koordinatzea (bai eta kanpokoekin ere) emakumearen arreta juridikorako beharrezkoa den guztietan (BAZ, ofiziozko txandako abokatua, epaitegiak, etab.).
- Dagokion eskumen-eremuko memoria eta txostenak idaztea, bai beste instantzia batzuk eskatuta bai artatutako emakumeek eskatuta, eta haien segimendua egitea. Froga-ondorioetarako ezinbestekoa izan daiteke haien esku-hartzea.

- **Arreta psikologikoa**

Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuek eta Berrizek badute familia esku-hartzerako arreta psikologikorako zerbitzua, tratu txarren eta sexu erasoen balizkoetarako. Bikotekidearen edo bikotekide-ohiaren eskutik tratu txar fisiko eta/edo psikologikoak eta sexualak jasan dituzten biktimentzako eta bere seme-alabentzako oso-osoko programa da. Era berean, familia barruko edo familiaz kanpoko eraso sexualen biktimentzako tratamendu espezializatua ere egiten da. Programa horiek heldu zein adingabekoentzako dira, eta familiako beste kide batzuekin ere esku hartzeko aukera eskaintzen dute.

Gizarte Zerbitzuekin batera egindako lanaren bidez, arreta psikologikorako zerbitzuak arretaren premia balioesten du kasu bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta.

Arreta psikologikorako zerbitzu horrek honako eginkizun hauek beteko ditu:

- Deribazioa jasotzen den unean emakumearekin telefonoz hitz egitea, arretaren premia balioestea eta epeak egokitzea.
- Tratamendu psikologiko banakatua egitea, biktima bakoitzaren premien arabera.

- Emakumea bizitzen ari den indarkeria-egoeran eta tratu txarren ondorio psikologikoetan zentratutako ebaluazio psikologikoa egitea.
- Konfiantza, enpatia eta segurtasunezko giroa sortzea, tratamenduari ekiteko motibazioa pizteko.
- Emakumearen egoerari loturiko jarduteko jarraibideak lantzea banakako saioetan, arriskuak gutxitzeko eta kontrol-sentsazioa berreskuratzeko.
- Bizi izandako egoerari lotutako eragin psikologikoan zentraturiko tratamendu psikologikoa gauzatzea.
- Prozesu juridiko eta penalari aurre egiteko prestaketa espezifikoa egitea.
- Tratamendua amaitutakoan segimendua egitea.
- Gainerako baliabideekin koordinatzea
- Dagokion eskumen-eremuko memoria eta txostenak idaztea, bai beste instantzia batzuk eskatuta bai artatutako emakumeek eskatuta, eta haien segimendua egitea. Froga-ondorioetarako ezinbestekoa izan daiteke haien esku-hartzea.

### b. Akonpainamendua.

Delituaren biktimaren Estatutuari buruzko Legeak honako hau xedatzen du *"biktima berak aukeratutako pertsona batekin egon daiteke agintariekin eta funtzionarioekin harremana duen lehenengo unetik bertatik"* (4.c artikulua). Akonpainamenduaren bidez emakumeen berbiktimizazio-esperientziak murrizten dira erabat, eta xede bikoitza du, gainera: prozesuaren une larrietan (salaketa, epailearen aurrean agertzea eta administrazio-tramiteak) laguntza emozionala ematea, eta laguntza informatua, eskubideak behar bezala gauzatzen laguntzeko.

Akonpainamenduaren barruan sartzen da indarkerian formazioa duen profesional bat edukitzea, dauden baliabideak zein diren dakiena eta, ahal den heinean, artatutako emakumearen hizkuntza berean hitz egiteko gai dena. Profesional horrek lagunduko du emakumea –berak nahi badu– aldi baterako harrera zerbitzuetara, salaketa jartzera eta salaketa jarri eta epaitegian aitorpena hartu arteko denboran, bai eta eskubideak gauzatzeko behar diren gestioak egitera ere.

Emakumeek arreta-zirkuituko zerbitzu guztietan egon daitezke eurak aukeratutako pertsonak lagundurik.

Aurreko ordutegitik kanpoko akonpainamendua hartzen duen larrialdietako akonpainamendu zerbitzurik ez badago Gizarte Zerbitzuetan, jaiegun eta asteburuetan, polizia taldeak izango dira baliabide horretarako akonpainamendua egingo dutenak, betiere emakumeak segurtasuna eta babesa behar duen kasuetan.

### c. Formazioa, enplegua eta etxebizitza lortzeko laguntza.

Banakako ahalduntzea eta etxebizitzarako eskubidea funtsezkoak dira indarkeria bizitzen ari diren edo bizi duten emakumeak bere onera itzultzeko. Indarkeriari aurre egin ondoren Gizarte Zerbitzuetan artatutako emakumeek lehentasuna izango dute udalaren enplegu-aukeratan eta etxebizitza lortzeko orduan.

Gizarte Zerbitzuak informazioa eta orientazioa eskaini behar dute, eta gai horretan, koordinazioa eta segimendua egin behar dute.

Gizarte Zerbitzuek jakinaraziko diete emakumeek etxebizitza soziala –alogerean edo jabetzan– lortzeko betekizunak eta prozedurak zein diren.

Beste administrazio publiko batzuetako programek artatu ez eta udalerri bakoitzean bizi diren eta indarkeria pairatu duten emakumeen etxebizitza-premien berri emango diete Gizarte Zerbitzuek barneko udalaren koordinazio-mahaiei, bestelako aukerak bila ditzaten.

#### d. Aldi baterako ostatu segurua

Gizarte Zerbitzuek edo, larrialdi kasuetan, segurtasun indarrek (Ertzaintza[2] eta Udaltzaingoa) emakumea eta, kasu bada, haren kargu dauden pertsonak, erabilgarri dauden ostatu-baliabideetara bideratuko dituzte. Hona hemen gaur egun daudenak:

- Durangoko etxebizitza: 4 hilabeterako harrera, 8 hilabetera arte luzagarria.
- Berrizko udal-etxebizitza: 4 hilabeterako harrera, 8 hilabetera arte luzagarria.

Elkartasun-printzipioaren arabera, bi baliabide horiek Durangon eta Berrizen bizi diren emakumeak hartzeko aurreikusita dauden arren, protokolo hau sinatzen duten udalerriek erabilgarri izango dituzte plaza hutsak daudenean; eta horretarako, udalen arteko lankidetza-hitzarmena sinatuko dute.

Eskualdean ostatu segururako baliabideen erabilgarritasun-konpromisoa betetzeko (larrialdiak, egoaldi ertain eta luzea), gutxienez lau plaza ezarri dira. Eskualde, probintzia edo erkidegotik kanpoko ostatu-baliabideak badira, Gizarte Zerbitzuek eskura dituzten bitarteko guztiak erabiliko dituzte emakumeek horiek erabiltzerik izan dezaten.

Aldi baterako ostatu segururako baliabideetarako irisgarritasuna eta haien kalitatea zaintzeko, honako hau bermatuko da:

- Ostatu segurua, salbuespenik gabe, emakumeak salaketa jarri duenean eta haren segurtasun-egoera babes-agindu baten bidez ebatzi denean, edo bai eta salaketa jarri gabe ere Gizarte Zerbitzuek baliabide hori erabili behar duela erabaki dutenean.
- Honako protokolo honetako jarraibide gehigarrietan jasotzen diren inguruabar bereziak hartzen dituzten neurri gehigarriak diseinatzea eta ezartzea.
- Emakume bakoitzarentzako ostatu egokia aukeratzeko irizpide objektiboak ezartzea, eta deribazioaz arduratzen diren zerbitzuek (Gizarte Zerbitzuak eta Ertzaintza) irizpide horien berri izan dezaten.

Harrerako pisua kudeatzen duen Arloak zerbitzuen kalitateari buruzko ebaluaziorako tresnak egingo dituzte eta bertan jasoko da egonaldia amaitutakoan emakumeek duten iritzia, haien ahalduntzearen adierazleak barne.

### 7.3.2 Esku hartzeko jarraibideak eta plana.

Emakumeen kontrako indarkeria kasuetan esku hartzeko jarraibide orokorrak dira honako hauek (ikus "Esku-hartze profesionalerako jarraibideak" atala ere):

#### 1. Baliabidean onartzea.

- Emakumearen diagnostiko soziala eta informazio garrantzitsu guztia jasotzea sareko lanaren bidez, berbiktimizazioa saihestuz, taldearen jarduera-jarraibideak emakumeak adierazitako beharrizan eta eskaeretara egokitzeko.

[2] Ertzaintzak emakume baten deribazioa egiten badu, genero-indarkeria kasu bat delako da; beraz, nahita nahiez diligentziei ekingo die, baita "b" atalean deskribatutako akonpainamendu kasuetan ere.

- Emakumearekin batera gizarte parte-hartzek, laneratzeko eta etxebizitza lortzeko ekintzak eta beharrezko oinarrizko gizarte-baliabideen mapa definitzea.
- Inplikatutzat identifikatutako baliabideekin koordinazioa lortzeko bitartekoak prestatzea eta ezartzea, eta haiengandik informazioa eta dokumentazioa eta esku hartzeko jarduera nabarmenak biltzea.
- Eskubideen, betebeharren eta obligazioen berri emateko dokumentua eta, baldin badago, bera dagoen baliabidearen funtzionamendurako araudia ere eman behar zaizkio emakumeari.
- Protokolo honen II. eranskinaren arabera, izaera pertsonaleko datuak tratatzeko baimen informatua eskatu behar zaio erabiltzaileari.
- Baliabidearen harreran erabiltzaileari laguntza eskaini, konfiantzazko eta enpatiazko giroa sortuz, baliabide horretako taldearekin lotura sortzeko.
- Adierazitako beharrizanak kontuan hartuta, erreferentziazko profesional bat esleitzea Banakako Jarduera Plana garatzeko eta, gerora ere, haren segimendua egiteko.
- Lan-arloek iguripenak eta beharrizanak jaso eta ebaluatu behar dituzte, gerora, Banakako Jarduera Planak jasoko dituen arlokako helburuak zehazteko.
- Data zehaztea plana lantzeko edo, kasu bada, plan horren aldizkako ebaluazioak egiteko.

## 2. Esku hartzea.

Esku-hartze edo jarduera plan pertsonalizatua (JPP) esku-hartze osoan gidarako balio duen tresna da. Talde tekniko batek landuko du eta emakumea eta profesionalak kokatzen ditu esku-hartze prozesu osoan zehar, zehaztu diren helburuak une oro kontuan hartuak izan daitezen ahalbidetuz. Esku-hartze plana indarkeria motaren, espazioaren, ezaugarri partikularren, eta abarren araberakoa izango da, protokoloan zehar azaldu den bezala. Plana emakumeak eta profesionalak sinatu behar dute, alde biek plana beteko dutelako konpromisoa berresteko.

Kontuan hartu beharreko elementuak eta helburuak:

∝ Diagnostikoa egitea, patologizazioa saihestuz eta erabiltzaileengan eta haien seme-alabengan hautemandako beharrizanak balioetsiz, Arreta Pertsonalizaturako Planaren helburuak arloka definitzeko.

∝ Aldaketa-prozesuan emakumeen papera sustatzea, oneratzeko eta JPPn zehaztutako helburuak lortzeko bera delako eragile nagusia.

∝ Pairatutako kalte emozionaletik oneratzea sustatzea; horretarako beharrezkoak diren laguntza eta espazioak eskainiz esku-hartze osoan zehar. Hartara, arlo desberdinetatik, partekatutako oneratzeko helburuak eta hainbat arlotatik baliabideen eta profesionalen arabera diseinatutako JPPn zehaztutakoak betetzeko.

∝ Barneko eta kanpoko koordinaziorako bilerak finkatzea, zehaztutako helburuak modu argian eta egin nahi den esku-hartzearekin eta baliabidearen misioarekin kongruentean bideratzerik izan dezaten profesionalek.

∝ Emakumeei egoera estresanteei edo gatazkatsuei aurre egiteko estrategiak euren kabuz bilatzen laguntzea..

∝ Etorkizunean indarkeria hautemateko eta indarkeriazko egoera edo harremanak saihesteko ezagutzak eta trebetasunak eskaintzea erabiltzaileei.

∝ Erabiltzailearen autonomia pertsonala bultzatzea: gizarte eta lan alorretako eta ekonomikoa.

- Beste baliabide espezializatu batzuekin beharrezkoak diren deribazio-mekanismoak finkatuko dira, beharren arabera.
- Jarduera Plan Pertsonalizatua berrikustea, beharrizan edo inguruabar berrien arabera, eta helburu berriak zehaztea.

### 3. Irteera / Alta/ Segimendua.

Kontuan hartu beharreko elementuak eta helburuak:

- Arloka zehaztutako helburuak betetzen hasi direla ziurtatutakoan, esku-hartze prozesua amaitzea, erabiltzailearen eskura jarrita bizimodu autonomoa egiteko behar dituen baliabide eta laguntza guztiak.
- Plana betetzen ari dela egiaztatzea, bete diren helburuak eta egon litezkeen eragozpenak baloratzea.
- Irteera prestatzeko espazioa sortzea, aurrerantzean izan ditzakeen beharrizan eta laguntzei aurrea hartzeko.
- Irteera edo altari aurre egiteko estrategiak eta baliabideak eskaintzea erabiltzaileari (edo, kasu bada, familia-unitateari).
- Irteera unea iristen denerako, erabiltzailearekin segimendurako jarraibideak adostea.
- Bestelako baliabide espezializatu batzuekin koordinazioa zehaztea.
- Bizirik irten den emakumea gaitzea emakumeari aurre egiten ari diren beste emakume batzuentzat eredu eta laguntza izan dadin.
- Emakumearen eta, kasu bada, haren seme-alaben edo mendeko beste pertsonen bilakaera ikusteko segimendu-sistema bat zehaztea.

### 4. Ebaluazioa.

Gizarte arlotik emandako zerbitzuaren etengabeko ebaluazioak esku-hartzearen argiak eta ilunak eta definituriko helburuak zer puntutaraino bete diren balioestea ahalbidetzen du, emakumearen oneratzearen mesedetan, betiere.

Ebaluazioak honako helburu hauek izango ditu, gutxienez:

- Emakumeen aurkako indarkeriari arreta egiteko baliabideen eta zerbitzuen arteko koordinazioaren garapena eta burutzapena.
- Jarduera-planak emakumeengan duen eragina aztertzea.
- Emandako zerbitzua edo arreta hobetzeko dauden arloak hautematea.

Aipatutako ebaluazioa eta segimendua egiteko, ikus III. eranskina.

## 7.4 Polizia-eremua

Poliziaren jarduna funtsezkoa da indarkeriaren prebentzioari, ikerketari eta emakumeen osoko babesari dagokienez.

Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 31. artikuluan estatuko segurtasun-indar eta –kidegoei, autonomia erkidegoetakoei eta tokian tokikoei esleitzen die genero-indarkeriaren biktimen babesa.

Sinatzen duten udalerrietako segurtasun-sistema Ertzaintzak eta Abadiño, Durango eta Elorrioko udaltzainek eta Berrizko aguazilek osatzen dute.

Polizia-kidego horien jarduna eta haien arteko lankidetza indarrean dagoen araudietako xedapenetan, protokoloetan, akordioetan, eta abarrean jasotakoa izango da; bereziki gai honi lotuta ezarrita daudenetan. Atal hau aldatu egin daiteke Durangoko Ertzaintzaren eta Abadiñoko, Durangoko eta Elorrioko (Elorrioko Udalak eta Durangoko Ertzaintzak 2012ko urtarrilaren 13an sinatutako protokoloa) udaltzainen artean etorkizunean izan daitezkeen akordioen arabera. Onartzen diren unean protokolo nagusi honen eranskin gisa jasoko dira.

Kasu bakoitzaren inguruabar zehatzak kontuan hartuta, haien urgazpena, zaintza, biktimaren babesa eta segimendua eta protokoloa sinatzen duten gainerako erakundeekiko koordinazioa hobeto eta eraginkortasun handiagoarekin nola bermatu ahal izango den balioetsiko dute.

Edonola ere, **euren jardunean protokolo honetan jaso diren jarraibide orokor eta espezifikoei egingo diete kasu.**

## 7.4.1 Udaltzaingoa.

Udaltzainek ondo ezagutzen dituzte udalerriak, herritarrekin eta haien beharrizanekin harreman zuzena dutelako. Sarritan, hurbilketa hori dela eta, herritarrak eurak izaten dira emakumeen kontrako indarkeria kasuen berri ematen dietenak udalerrian bertan, edo zuzenean ikusi dutelako ere, hori dela eta, hainbatetan erantzuna emateko lehenak izaten dira..

### 7.4.1.1 Eginkizunak

Udaltzaingoak, **uztailaren 17ko Euskal Herriko Poliziari buruzko 4/1992 Legearen** 27. artikuluari jarraikiz, honako zeregin hauek beteko ditu:

- Auzi-poliziaren zereginetan parte hartzea, Auzi-poliziako unitateei lagunduz. Horren ildoan, tokiko gobernua modernizatzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legean xedatzen da bultzatu egingo dela udaltzaingoak herri-segurtasuneko zereginetan parte hartzea, hurbileko polizia den aldetik, eta halaber, auzi-poliziaren zereginen jardunean ere.
- Aurrea hartzeko eginbideak eta lege-haustea diren egintzak eragoztera zuzendutako jarduketa oro egitea.
- Leku publikoak zaintzea eta manifestazioak babesten, hala nola jende-bilera handietako ordena mantentzen laguntzea, hori egiteko eskatzen zaienean.
- Gatazka pribatuei irtenbidea bilatzen laguntzea, hori egiteko eskatzen zaienean.

Gainera, hiru udalerritako udaltzaingoak honako zeregin hauek ere beteko ditu:

- Salaketak jasotzen, emakumeak Gizarte Zerbitzuetara bideratzen, akonpainamendua egiten eta babesa ematen Ertzaintzarekin batera jardutea.

- Gizarte Zerbitzuei emakumeen kontrako indarkeria-kasuen berri aldizka ematea, informazio hori dauden espedienteei atxikitzeko, edo aurrerago erabiltzeko artxibatzeko.

- Buruzagitzaren bitartez, udaleko barne Koordinaziorako Mahaian eta Koordinazio Teknikorako Mahaian parte hartzea.

- Arratsaldeetan, jaiegunetan eta asteburuetan dauden baliabideen berri ematea emakumeei, 24 orduko zerbitzurik ez dagoen bitartean.

- Gizarte Zerbitzuek eskatuta eta haiek egiterik ez dutenean, pairatzen ari diren edo pairatu duten indarkeriarekin lotuta, tramite judizialak edo administrazio-tramiteak egiten laguntzea emakumeei, honako egoera hauetakoren batean daudenean:
    - adostutako babes-aginduarekin
    - babes-agindurik gabe, baina poliziaren arrisku-balorazio ertain edo altuarekin, haiek emakumearen segurtasuna bermatua ikusten ez dutenean eta akonpainamendua eskatzen dutenean.

  Akonpainamendu motaren arabera, emakumearekin batera balioetsiko da uniformez jantzita joatea komeni den ala ez, bai eta ibilgailu errotulatua erabiltzea komeni den ala ez ere.

#### 7.4.1.2 Jarduera-eremua

- Udaltzaingoaren jarduera-eremua bere udalerri propioa da. Larrialdi edo premia egoeratan udalerritik kanpo jardun ahal izango du, eskumendun agintaritzak horretarako deituta eta alkatetzaren baimenarekin. Ikerketa batean udalerritik kanpo jarduerak egitea gomendatzen duten elementu edo aztarnak baldin badaude, berehala jakinaraziko zaio Ertzaintzari, eta ez dute ikerketarekin jarraituko, haien esku utziko dute ordura arte egindakoa eta Agintaritza Judizialari jakinaraziko diote.
- Udaltzaingoaren jardunean zehar ikusten bada ikertzen ari diren gertakariaren gainean beste Segurtasun Indar batzuk ikertzen ari direla, edo beste arau-hausteren batekiko (lurralde- edo funtzio-eremua gainditzen dutenak) inplikazio materialak edo beste mota batekoak aurkitzen badira, egindako jarduera guztiak Ertzaintzari eskualdatuko zaizkio berehala, osoko polizia gisa, epaile batek beste neurriren bat zehazten duenean izan ezik.

### 7.4.2 Ertzaintza

Ertzaintza Euskadiko osoko polizia da. Zerbitzatzen duen gizartearekin konprometituta dago, eta pertsonen arteko bakea eta elkarbizitza, segurtasuna eta ongizatea bultzatzen ditu. Emakumeen kontrako indarkeriazko zenbait kasuren segimendua egiteko espezializazioa eta dedikazio esklusiboa duten kideak ditu.

Etxe barruko indarkeria (EI) edo bikotekidearen edo bikotekide-ohiaren indarkeria (GI) pairatzen duten emakumeen kontra egindako delituen titularra Durangoko Ertzaintza da, talde horrek bere eskumen-eremuan egiten dituen diligentzien edo egintzen bidez, zein udaltzaingoek jakinarazitakoen bidez, dagozkion espedienteen instrukzioa egiteko.

#### 7.4.2.1 Eskumenak

Barrura begira, eta Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legearen 5. artikuluaren arabera, segurtasun publikoaren eskumena duen sailari dagozkio segurtasun publikoaren arloko honako eginkizun hauek: esku-hartze subsidiarioa polizia bereziaren administrazio-ahalmenen barruan, ahalmenok berariaz esleitu ez direnean, herritarren aldeko elkarbizitza ziurtatzeko, bortizkeria ezabatzeko, espazio publikoak bakez erabiltzeko eta delituei eta faltei aurrea hartzeko.

#### 7.4.2.2 Indarkeria sexista ezabatzeko neurriak

**Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012ko Legearen 67. artikuluak** honako hau xedatzen du:

1. Euskadiko Segurtasun Plan Orokorrak, bai eta segurtasuneko gainerako lurralde-plan sektorialek ere, kontuan izango dute genero-ikuspegia, eta plan horien lehentasunen artean sartuko dute emakumeen kontrako indarkeria-forma eta –adierazpen guztien aurkako borroka.
2. Euskal administrazio publikoek, bakoitzaren eskumenen esparruan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako indarrean dauden legeetan eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako borrokari buruzko legeria espezifikoan aurreikusitakoarekin bat eginez, ondokoak lortzen saiatuko dira:
    a) Emakumeen kontrako indarkeriaren sorburu diren emakumeen gaineko botere-harremanak sustatzen dituzten eta horiei eusten dieten patroi soziokulturalak kentzea.
    b) Emakumeen kontrako indarkeria matxista sortzen duten egoerak antzematea, eta horiei aurrea hartzea eta aurre egitea.
    c) Emakumeei dagozkien eskubideak bermatzea haiekiko arreta, harrera eta babesari dagokienean, eta orobat, beren erreparazio eta oneratze pertsonalari dagokienean.
    d) Emakumeen kontrako indarkeria matxista pairatzen dutenei arreta emateko eta horien oneratzean laguntzeko politika publikoen sistema integral koordinatua ezartzea.

#### 7.4.2.3 Jarduera eta koordinazioa

Ertzaintzaren jarduera eta koordinazioa indarrean dagoen araudian, akordioetan, protokolo eta abarrean jasota dauden printzipio eta jarraibideetara egokituko dute, eta bereziki, etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordiora (edo indarrean dagoena); Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Segurtasun sailburuordeak onartutako Sexu erasoak (3. zk.) eta etxeko tratu txarrak (48. zk.) gertatzen direnerako jarduerei buruzko argibideetan ezarritako printzipio eta jarraibideetara, bai eta, Kalitatea kudeatzeko sistemari buruzko 51. argibidea eta hori arautzen dutenetara ere:

- Deiak jasotzea.
- Urgentziari arreta egitea.
- Biktimei laguntza ematea.

- Salaketa jasotzea eta diligentziak gauzatzea.
- Kasuaren segimendua egitea. EI/GI espedientea.
- Biktimen osoko babesa.
- Erasotzailearekin jarduerak gauzatzea.

Ertzaintzak, protokolo honetako jarraibide orokor eta berezien atalean jasotzen direnez gain, honako jarraibide hauek beteko ditu protokolo honetan jaso diren emakumeen kontrako indarkeria kasuetan:

1. Sinatu duten udalerrietan gauzatu den emakumeen kontrako edozein indarkeria mota jasoko du, aurrea hartzeko neurriak hartuko ditu, ikertuko eta/edo jazarriko du.
2. Emakumeen eta haren kargu edo/eta mende dauden pertsonen osotasun fisikoa, pribatutasuna eta intimitatea babesteko berehalakotasunez jardungo du.
3. Ahal dela, emakumeari emakume ertzain batek egingo dio arreta, haren intimitatea eta konfidentzialtasuna bermatzen duen leku batean.
4. Salaketa jasotzeko letratu espezializatuen laguntza-zerbitzua eskainiko du eta behar den denbora erabiliko du, eta jarrera enpatikoa erakutsiko du erruduntasun-sentipena edo anbibalentzia desagerrarazten ahaleginduz. Inoiz ez da emakumearen kontakizuna zalantzan jarriko, eta ideiak ordenatzen lagunduko zaio. Elkarrizketa inork ez eteten eta konfiantzazko eta lasaitasunezko giroa sortzen ahaleginduko gara.
5. Izaera pertsonaleko datuak hartzeko eta lagatzeko baimen-agiria emango dio, eta osoko urgazpen hobea eskaintzeko elkarteen arteko koordinazioaren garrantzia azpimarratuko dio. Emakumeak izaera pertsonaleko datuak jasotzeko eta lagatzeko baimena eman badu, Ertzaintzak Gizarte eta Osasun Zerbitzuei emango dizkie datu horiek, jaso eta gehienez hurrengo 72 orduen buruan.
6. Erabilgarri dituen erakunde eta gizarte-baliabideak zein diren jakinaraziko dio emakumeari.
7. Biktimaren arrisku-egoera zein den balioetsiko du, arrisku maila identifikatuz eta kasuaren eta arriskuaren inguruabarren arabera, ezarri beharreko babes-neurriak esleituko ditu. Babes-neurriak honako hauek dira:

    - Etengabeko zaintza
    - Errutinei buruzko prebentzio-jarduerak
    - Babes-guneei buruzko prebentzio-jarduerak
    - Babeserako unean-uneko operatiboak
    - Biktimei bisita aleatorioak egitea
    - Erasotzaileari zaintza eta segimendua egitea
    - Egiaztapen aleatorioak telefono bidez
    - Bitarteko teknologikoak. Bortxa telefonoaren eskaintza
    - Lekualdaketak / Akonpainamenduak
    - Autobabeserako neurrien gaineko formazioa
    - Segimenduak kontrolerako bitarteko telematikoen bidez. Eskumuturrekoak
    - Kontra-zaintzako neurriak.

Dagokion udalerriko udaltzaingoarekin koordinatu ahal izango da elkarrekin adosten dituzten babes-zereginak betetzeko.

8. Lekualdaketen kasuan, poliziako kideek ez dute uniformerik eramango eta adierazgarririk gabeko autoak erabiliko dituzte, eta inguruabarren arabera, beharrezkoak diren baliabideak izango dituzte (adibidez: haurrentzako jarlekuak, etab.), urgentziak berehala jardutea eskatzen badu izan ezik.
9. Udaltzaingoekin batera jardungo du biktimei arreta hobea eskaintzen zaiela eta adostu diren epai-neurriak betetzen direla bermatzeko, eta neurriak betetzen ez badira agintari judizialei emango die horren berri.
10. Udaltzaingoekin koordinatuko da, erasotzailea kartzelan baldin badago, irtengo dela jakitean –baimenarekin, zein behin betiko– emakumeari jakinarazteko.
11. Ahalegina egingo dute salaketa EI/GI kasuen segimendua egiteko zeregina duten kide emakumeren batek har dezan, betiere, egoerak ahalbidetzen badu.
12. Emakumea lekualdatu edo lagunduko du honako kasu hauetan:

    - Ospitalera edo zentro medikoren batera eramatea. Emakumeak espresuki ezezkoa adierazten duenean izan ezik, eta urgentziaren arabera, biktimak osasun-urgazpena behar duenean eta anbulantziarik behar ez denean, polizia-baliabide batean eramango dute ospitale batera.
    - Etxera edo biktimak adierazitako lekura eramango dute. Kasuaren inguruabarren aurrean, biktimak etxetik irten behar badu urgentziaz eta biktimak bere segurtasuna arriskuan dela uste badu edo hala eskatzen badu, Ertzaintzak eramango du eta, kasu bada, haren adingabeko seme-alabak edo haren kargu dauden adineko pertsonak edo desgaituak ere bai, biktimak proposatutako ordezko etxebizitza edo lekuren batera (senitartekoen edo lagunen etxera, etab.).
    - Ordezko beste egoitza batera eramatea. Ostatu eman diezaiokeen senitarteko edo lagunik ez badago edo biktimek bertara joan nahi ez badute, Ertzaintza arduratuko da biktimari ordezko egoitza batera joatea eskain diezaioten. Emakumeak onartzen badu, Ertzaintza arduratuko da gizarte-zerbitzuekin (bai oinarrizkoekin edo Larrialdietakoekin, bulego orduetatik kanpo gertatzen denean) egin beharreko kudeaketak egin daitezen ostatu horren bilaketa tramita dezaten.

# 8. ESKU-HARTZE KOORDINATURAKO PROZEDURAK

Sinatu duten erakundeetako langileen jarduerak –emakumeen kontrako indarkeria arloan eskumenak dituztenak– protokolo honetan zehazten diren esku-hartze koordinaturako ibilbideetara egokituko dira, baina jarduera espezifikoak dagoeneko badiren protokolo ofizialetan xedatzen denera egokituko dira, hala ere.

Jarraian azalduko dira egoera guztietan, honako protokolo honetan jasotzen diren jarraibide orokor eta espezifikoen arabera jardungo dute profesionalek.

## 8.1 Emakumeen kontrako indarkeria bikotekidearen edo bikotekide-ohiaren eskutik edo etxeko eremuan.

Bikotekidearen edo bikotekide-ohiaren eskutik edo etxeko eremuaren barruan emakumeen kontrako indarkeria-egoeraren bat egon litekeela identifikatzean, hauteman duen instantziak esanbidezko baimena eskatu dio emakumeari izaera pertsonaleko datuak biltzeko eta lagatzeko. Baimena lortutakoan, fitxa gainerako instantziei helaraziko zaie erakundeen arteko koordinazioa abian jartzeko.

Emakumeak ematen ez badu Gizarte Zerbitzuetara bideratzeko baimenik ematen, kasua hauteman duen instantziak informazioa emango dio erabilgarri dituen arreta espezializatuko zerbitzu eta baliabideei buruz, eta txosten bat egingo du, izaera pertsonaleko datuak babestuta eta, bere eskumenen barruan, emakumearen eta, baldin baditu, haren mende dauden pertsonen segimendua egingo du.

### 8.1.1 Jarduera ez urgentea

Instantzietako batek muturreko arriskua ez dakarren indarkeria hautematen duenean, gerta liteke emakumeak ez onartzea indarkeria-egoera hori, edo onartzea eta erasotzailearekin duen harremana haustea erabakitzea, edo onartzea eta erasotzailearen kontrako salaketa jartzea erabakitzea.

Garrantzitsua da gogoratzea Istanbuleko Hitzarmenean xedatutakoaren arabera, salaketa ez dela ezinbesteko baldintza laguntzarako gizarte-zerbitzu eta baliabideak erabiltzeko; hortaz, emakume horiek baliabide horietarako sarbidea eduki behar dute salaketa jarri duten emakumeen baldintza berdinetan. Horixe da protokolo honetan jasotzen diren konpromisoetako bat.

Emakumeak salaketa jartzea erabakitzen badu, Gizarte Zerbitzuetatik aholkularitza juridiko espezializatua eskainiko zaio, bai eta indarkeria-egoeratik irteteko prozesuko une gogorrenetan (salaketa jartzea, epaiketa eta /edo euren eskubideak gauzatzeko behar diren gestioetan) akonpainamendua edukitzea ere, eta emakumeak eskatzen duenean beteko da. Era berean, aurretiaz lotuko da hitzordu bat emakumea Ertzaintzara salaketa jartzera joan dadin.

Jarraian, bikotearen edo bikote-ohiaren eskutik edo etxeko eremuan emakumearen kontrako indarkeria-egoera ez urgenteetarako litezkeen ibilbideak aurkeztuko dira.



### 8.1.2 Jarduera urgentea

Urgentziazko edo muturreko arrisku egoeratzat joko da emakumea honako egoera hauetako batean badago:

- Osasun zerbitzuen berehalako esku-hartzea eskatzen duten zauri fisikoak edo indarkeria psikologikoaren sintomak baditu, edo
- Bere bizitza edo osotasun pertsonala arriskuan ikusten baditu eta erasotzailearengandik berehala urruntzeko laguntza eskatzen badu.

Instantziek emakumea –eta baldin baditu, bere kargu dituen adingabekoak- bertan egon edo bertara daitezen erraztu behar dute, eta berarekin egongo dira, eremu sozial edo polizialak haren akonpainamendua eta segurtasuna bermatu arte.

Arreta-ordutegiaren arabera, Gizarte Zerbitzuen ordutegiaren barruan balitz, astelehenetik ostiralera 9:00etatik 15:00etara, instantzia izango da akonpainamendua eta eskualdeko edo aldundiaren ostatu-baliabiderako deribazioa egingo dituena.

Aurreko ordutegitik kanpoko akonpainamendua hartzen duen larrialdietako akonpainamendu zerbitzurik ez badago Gizarte Zerbitzuetan, jaiegun eta asteburuetan, polizia taldeak izango dira baliabide horretarako akonpainamendua egingo dutenak[3].

Instantzien esku-hartzea honako hau izango da.

[3] Ertzaintzak, nahita nahiez, diligentziei ekingo die genero-indarkeria kasu bat delako.


JARDUERA URGENTEA
Ertzaintza Udaltzaingoa
Hezkuntza
Ospitalea
Osasun-zentroa
Gizarte zerbitzuak
Harremana apurtzea
Gizarte zerbitzuetara deribazioa
Asistentzia-jarduera
EZ
BAI
Babes-alojamendua
Ertzaintzari notifikazioa
Azterketa klinikoa, osasun metalaren txostena eta parte judiziala
Salatzeko erabakia
Epaitegi eskuduna
Historia klinikoa
EZ
BAI
Aurretiko hitzordua
Arreta psikologiko eta juridiko espezializatua
Salatzera lagundu
Jarraipen-txostena
Salaketa jarri

## 8.2 Indarkeria ikusten duten haurrak

Instantzietako baten batek indarkeria ikusten edo bizitzen ari diren adingabekoak hautematen baditu, Gizarte Zerbitzuei jakinaraziko die eta, Osasun Zerbitzuekin batera, adingabeko horiengan indarkeriak duen eragina aztertu eta balioetsiko dute eta behar diren jarduerak eta neurriak hartuko dira, bai eta gertakarien berri aginte judizialari ematea ere, hark behar diren babes-neurriak har ditzan.




## 8.3 Sexu-indarkeria

Emakumeen kontrako sexu-indarkeriak hainbat aurpegi ditu. Jarraian "sexu-abusu eta eraso" gisa ezagutzen direnak jasoko dira, Zigor Kodearen 178. artikuluan eta hurrengoetan biltzen direnak.

## 8.3.1 Sexu-eraso/abusu gertatu berria

Honako kasu honetan, emakumea instantzietako edozeinetara joaten bada –eremu polizialetakoetara izan ezik- telefonoz jakinaraziko zaio Ertzaintzari dagokion prozedura hasi eta Galdakaoko Ospitalera eraman dezaten.



## 8.3.2 Sexu-indarkeria ez gertatu berria

Sexu-erasoa edo abusua beste uneren batean gertatu izan den egoerak hauteman daitezke, eta halakoetan ez da lesio fisikoak tratatu behar izango baina beharrezkoa izango da bestelako jardunbideak abian jartzea. Emakumeak hala nahi badu, litezkeen ondorioen gainean osoko oneratzea lortzeko prozesuari ekingo zaio Gizarte Zerbitzuetatik, Osasun Zerbitzuekin koordinatuta. Dituen eskubideei buruzko eta, zehazkiago, salaketa jartzeko eskubideari buruzko informazioa emango zaio.



### 8.3.3 Nesken kontrako indarkeria

Haurren kontrako indarkeria kasuetan, dauden protokoloak erabiliko dira baina, horrez gain ere, protokolo honek indartu nahi dituen beste jardunbide batzuk ere aipatuko dira, sarrera instantzia batetik edo beste batetik egiten den arabera.




Emakumeen Genitalen Mutilazio (EGM) kasuetan, Berrizko udalerriko EGMren aurreko jarduera, Osakidetzaren (ESI Bilbo-Basurtu) jarraibideak eta estatuko osasun-protokoloa (ikus I. eranskina) hartuko dira erreferentzia gisa. Baina hala ere, jarraian, protokolo protokolo honek indartu nahi dituen beste jardunbide batzuk ere aipatuko dira, sarrera zerbitzu batetik edo beste batetik egiten den arabera.

Gizarte Zerbitzuek koordinatuko dituzte behar diren jarduerak EGM arrisku-kasuetan, baina hala ere, instantzia guztiek dute EGM arriskua hautemateko ardura eta prebentziorako protokoloak eduki beharko lituzkete. EGM gertatu dela egiaztatuz gero, Gizarte Zerbitzuek eta Pediatria Zerbitzuak jarriko dituzte abian biktimari arreta egiteko eta haren osoko oneratzea lortzeko mekanismoak.


EMAKUMEEN GENITALEN MUTILAZIOA
Hezkuntza
Gizarte-zerbitzuak
Pediatria
Ginekologia
Emaginak
Hezkuntza arloko EGMri aurre egiteko protokoloa aktibatua
Arriskua ebaluatu
EGM dagoen ala ez jakiteko azterketa medikua
TXIKIA
HANDIA
EZ
BAI
EGMri aurre egiteko protokoloak aktibatu
Jarraipen-txostena
Bidaia egin baino lehen eta ondoren, jarraipena egin
Ez mutilatzeko konpromisoa sinatu
Ospitalea
Asistentzia-jarduera
Arreta psikologiko eta familia esku-hartze espezializatua
Gizarte-zerbitzuetara deribazioa
Azterketa klinikoa, osasun mentalaren txostena eta parte judiziala
EGMri aurre egiteko protokoloak aktibatu
Jarduera medikuak kalteak arintzeko
Epaitegi eskuduna Adingabeen fiskaltza

# 9. ERAKUNDEEN KOORDINAZIOA

II. Protokoloa ezartzeko, I. Protokoloan aurreikusi eta abian jarri ziren koordinazio-bideak sendotu behar dira. Gainera, II. Protokolo honetan proposatzen dena da harremanetarako eta lankidetzarako espazio horiei bestelako barneko nahiz beste erakunde publiko batzuekiko –eremu judiziala, hezkuntzakoa, eta gizarte zibila- koordinazio-bide egonkorrak gehitzeko erronka hartu du.

Protokolo honen xede eta helburu horiek betetzeko, hiru koordinazio maila zehaztu dira:

**A. Udal mailakoa**

Protokolo honen helburuak bermatzeko, erakunde bakoitzak udaleko koordinazio-mahai bat sortuko du, eta hiru hilero egingo du bilera. Mahai horretan parte hartuko dute emakumeen kontrako indarkeria gaietan arreta, prebentzio eta jarduteko eginkizuna eta eskumenak dituzten udaleko arloetako profesionalek.

**B. Erakunde artekoa**

Esku hartuko duten instantzien sareko lana betetzen dela ikuskatzeko, segimendua egiteko eta ebaluatu eta bermatzeko hiru lan-mahai sortu dira alde batetik, eta bestetik, bestelako erakunde arteko koordinazio bideak.

**1. KOORDINAZIO OROKORRERAKO MAHAIA (KOM).**

Mahai hori udaletako **Berdintasun Sailetako teknikariek** osatuko dute.

Honako hauek dira **eginkizun** nagusiak:

- Kudeaketa ekonomikoa (diru-laguntzak, hitzarmenak, idazkaritza teknikoaren kontratazioa…).
- Sektoreko eta sektorearteko bileretara joatea.
- Protokoloaren ezarpenaren koordinazioa eta ikuskaritza.
- Erakunde arteko koordinazio-prozesuaren ebaluazioa.
- 1. KTMn aurkeztuko duen urteko lan-proposamena lantzea.
- Datuak eta lekukotzak biltzea eta aztertzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren gaiaren inguruko aholkularitza ematea KTM eta KPMko teknikari eta politikariei.
- Protokoloa hobetzeko iradokizunak edo proposamenak jasotzea.
- Udalerrietako beste erakunde publiko batzuekin eta emakumeen eta feministen elkarte-mugimenduarekin eta hirugarren sektorearekiko interlokuzioa.
- Herritarrei eta elkarteei, gutxienez urtean behin, protokoloaren bilakaeraren berri ematea.
- Txostenak egitea.

Behar beste bilera egingo ditu protokoloa ezartzeko eta haren segimendua eta ebaluazioa egiteko, eta gutxienez, KTMren hiru hileroko bilera baino lehen beti elkartuko da.

Bilerak egiteko lekua txandaka aldatuko da sinatu duten lau udalerrien artean, eta urtero, Berdintasun Sail batek hartuko du KOMren burutza, honako ordena honi jarraituz: Abadiño, Berriz, Durango eta Elorrio, beste irizpide egokiagorik erabakitzen ez bada.

## 2. KOORDINAZIO TEKNIKORAKO MAHAIA (KTM).

Gizarte-, osasun-, hezkuntza- eta polizia-zerbitzuetatik indarkeria pairatzen duten emakumeen arretan zuzenean esku hartzen duten eta sinatzen duten erakundeetako ordezkari diren teknikariek eta KOMko kideek osatuko dute mahai hori.

Sinatzen duten erakunde guztiek bermatuko dute KTMn haien ordezkari dihardutenek dagokigun gai honetan formazio sendo eta espezializatua dutela, eta halakorik ez badute, izendatu eta hurrengo sei hilabeteren buruan formazio hori emateko konpromisoa hartzen dute. Era berean, izendatzen dituzten pertsonen egokitasuna eta konpromisoak hartzeko, erabakiak hartzeko eta akordioak hitzartzeko beharrezko eskumena dutela ere bermatzen dute.

KTMko kideen ardura izango da protokolo honen edukia euren erakundeen barruan zabaltzea, eta KTMren eta euren erakundeen arteko lotunea izango dira; euren erakundeetan sor litezkeen beharrizanak eta bere esku-hartze eta koordinazioaren argiak eta ilunak aztertuz.

Koordinazio Teknikorako Mahaiaren eta bertako kideen **eginkizun** nagusiak honako hauek dira:

- Kasuen jarraipena egitea.
- Jardueren koordinazioa.
- Protokolo honetan jasotzen den edozein indarkeria mota oro dela eta artatutako emakumeei buruzko hiru hileko eta urteko datuak KOMari helaraztea.
- Protokoloan zer hobetu hautematea emandako arretaren kalitatea hobetzeko.
- Problematika hobeto tratatu ahal izateko, beharrizanak hautematea eta jarduera zehatzak ezartzea.
- Politikaren formazio- eta lekualdaketa-beharrizanak hautematea.
- Protokoloaren funtzionamenduaren eta erakundea bakoitzean izandako esku-hartze profesionala ebaluatzea.
- Zerbitzuetara joaten diren emakumeen iritziak jasotzea, haien asebetetzea neurtzeko eta egon litezkeen hobekuntza-proposamenak jasotzea.
- Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta parte-hartze eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute, eta bereziki emakumeen kontrako indarkeriari dagokionez.
- Emakumeen kontrako indarkeriari lotuta, KTMko gainerako kideei sektoreko informazioa edo informazio oroko eguneratua helaraztea.
- Datu-bilketaren sistematizazioaren garapena eta hobekuntza.
- Eta dituen eskumenen eta jardueren barruan eskaintzen zaion beste edozein.

KTMk **akordioak** ados ditzake protokolo honetan zehaztu diren helburuak lortzeko, eta dagokien erakundeei helaraziko zaizkie.

Mahaiaren bilera, gutxienez, **hiru hilean behin** egingo da, besterik adostu ezean, hiruhileko bakoitzaren osteko bigarren ostiralean, edo hirugarrenean bigarrena jai bada, 10etatik 12etara, Durangoko udaletxean. Hiruhileko bakoitzaren osteko lehenengo astean, hiruhilekoari buruzko datuak emango dizkiote Idazkaritza Teknikoari, KTMren bilera prestatzeko.

KTM osatzen duten pertsona guztiek eguneratu egingo dute gertatzen den aldaketa oro **harremanetarako taulan**, eta ahalik eta lasterren helaraziko dizkiote aldaketa horiek KTMko gainerako kideei.

## 3. KOORDINAZIO POLITIKORAKO MAHAIA (KPM).

Sinatzen duten erakundeetako **politikariek** osatuko dute mahai hau. Gutxienez urtean behin egingo du bilera, KTMren laugarren hiruhileko bileraren osteko astean, protokolo honen bilakaeraren berri jasotzeko, eta ez-ohikotasunez, beharrezkotzat jotzen denean.

Honako hauek dira **eginkizun** nagusiak:

- Erabakiak hartzea eta KTMk eta KOMek proposatutako aldaketak onartzea.
- Protokolotik ondorioztatzen diren erabakien segimendua eta ebaluazioa egitea.
- Kasuen hautematean eta emakumeen arretan, laguntzan, erreparazioak eta oneratzean hobetzeko beharrezkoak diren neurriak ezartzea, bai eta emakumeek emakume izate hutsagatik pairatzen dituzten indarkeria guztiak ezabatzeko ere.

Mahai horien koordinaziorako zeregin teknikoa errazteko, udalek kanpoko idazkaritza teknikoa izango dute langile espezializatuekin eta idazkaritza horrek deituko ditu bilerak, bera izango da haien buru eta dinamizatzaile eta berak jasoko ditu aktak; halaber, hiruhileko datuak jaso eta aztertuko ditu eta urteko txostena egingo du gauzatutako jarduerekin eta erakunde bakoitzak helarazten dion informazioarekin.

## 4. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIORAKO BESTE BIDE BATZUK

Sinatzen duten erakundeek onartzen dute emakumeen kontrako indarkeria kasuen hautematean, arretan, babesean eta justizian inplikaturik dauden beste erakunde batzuen eginkizun garrantzitsua. Beste erakunde batzuekiko koordinazioa bermatzeko urteko bi bilera mota ezarri dira: sektorekoa eta sektoreartekoa.

Bilera horiek egiteko KOMeko kideen laguntza izango da, zeinek protokoloaren KTMren solaskide papera izango duen erakunde horiekin, eta aldi berean, eta egoki baderitzote, protokoloko idazkaritza teknikoarekin edo gaian aditua den kanpoko adituren batekin joan ahal izango da. Bilera horietako ondorioak KOM eta KTMetako gainerakoei helaraziko dizkie KOMren ordezkariak.

### I. Sektorekako bilerak:

- **Osakidetza: Lehen Mailako Arretako Unitateak (LMAU), Osasun Mental eta Ospitaleekin.**

Osasun zerbitzu horiek ezinbestekoak dira kasuan hautemateko eta emakumeari arreta egiteko. Osasun-instantzien arteko koordinazio arin eta jarioduna funtsezkoa da protokolo hau ezartzeko eta garatzeko, bai eta beharrizanak eta hobetu beharreko alderdiak hautemateko ere. Bilera horretako ondorioak KTMera bideratuko dira

- **Ertzaintza eta udaltzaingoak.**

Bi polizia-kidego horiek buru-belarri egingo dute lan indarkeriari aurre egiten dioten emakumeak babesteko zereginak partekatu behar dituztenerako lankidetzarako jarraibideak ezartzeko. Udaltzaingoen eta Ertzaintzaren artan aldizkako koordinazio bilerak egitea gomendatzen da, gutxienez urtean behin. Bilera horretako ondorioak KOM eta KTMetako gainerakoei helaraziko dizkie udaltzaingoen eta/edo Ertzaintzaren ordezkariak.

### II. Sektorearteko bilerak[4]:

- **KOM emakumearen aurkako indarkeriarako epaitegiarekin eta/ edo instrukzioko epaitegiarekin**

KOMek aldizkako harremana izango du Durangoko Emakumearen kontrako indarkeriarako Epaitegiaren edo/eta instrukzioko epaitegiaren titularrarekin, eta horiekin batera jardungo du lankidetzan indarkeria pairatzen duten emakumeei erantzuna emateko, II. protokoloak sortutako dinamikaren eta arlo judizialeko instantzien arteko elkarrizketa egokia bermatzeko. Urtean, gutxienez, bilera bat egingo dute.

- **KOM Fiskaltzarekin.**

KOMek aldizkako harremana izango du Fiskaltzako ordezkariekin biktimei erantzun hobea ematen laguntzeko; bereziki, babesgabetasun-egoeratan daudenei: haurrak, desgaitasuna duten biktimak edo salatzen ez duten eta familia-prozeduretara joaten diren emakumeak.

Urtean, gutxienez, bilera bat egingo dute.

[4] Bilera hauen helburua da, hain zuzen ere, protokolo hau sinatu ez duten baina indarkeria kasuetan esku-hartzen duten erakundeen eta protokoloak sortzen duen dinamikaren arteko elkarrizketa erraztea. Horiek ez dira erakundeak ordezkatzea edo bitartekaritza egitea, izan ere, erakunde bakoitzak berezko kanalak eta egiturak ditu horretarako.

- **KOM Abokatuen Elkargoarekin.**

KOMek aldizkako harremana izango du abokatuekin (genero-indarkeriako adituen txandakoekin) II. protokoloak sortutako dinamikaren eta emakumeen ofiziozko txandako abokatuen arteko elkarrizketa hobetzeko.

Urtean, gutxienez, bilera bat egingo dute.

- **KOM Lanbiderekin.**

KOMek aldizkako harremana izango du Lanbideko ordezkariekin II. protokoloak sortutako dinamikaren arteko elkarrizketa hobetuz biktimen autonomia ekonomikoa bermatzeko lankidetza egokia bermatzeko.

Urtean, gutxienez, bilera bat egingo dute.

- **KOM Hezkuntzarekin.**

KOMek aldizkako harremana izango du udalerrietako hezkuntza-zentroetako (Berritzegunea) aholkulariekin II. protokoloak sortutako dinamikaren eta hezkuntza-arloaren arteko elkarrizketa hobetzeko.

Urtean, gutxienez, bilera bat egingo dute.

### C. Gizarte mailakoa

Protokolo honen helburuetako bat emakumeek pairatzen duten indarkeriaren hautematea eta prebentzioa hobetzea da, bai eta haien **akonpainamendua eta ahalduntzea** ere. Arlo horietan, udalerrietako feministen eta/edo emakumeen elkarteen eginkizuna berebizikoa da, batez ere urgazpen-zirkuiturako zubi-lana egiteko eta emakumeen banakako ahalduntzea eta ahalduntzeko kolektiboa bultzatzeko espazio gisa.

Udalerri bakoitzeko elkarte-ehunaren ezaugarriak direla eta, Udaletako Barne Koordinaziorako Mahaiek beren **udalerrietako mugimendu sozialarekiko komunikazio eta parte-hartze bideak** ezarriko dituzte; halaber, III. eranskinean jasotzen diren neurriak eta beharrezkotzat jotzen duten beste edozein ere.

# 10. DATU PERTSONALEN BABESA

**Protokolo honetan jasotzen diren indarkeria kasu guztietan, erakunde guztiek bete behar dute honako hau:**

- Artatzen ari diren pertsonari argi eta garbi adieraziko diote, urgazpena eta erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko, izaera pertsonaleko datuak jasotzeko eta lagatzeko **esanbidezko adostasuna emateak** duen garrantzia, halaber, emakumeak bereak dituen informaziora iriseko, zuzentzeko, aurka egiteko eta ezeztatzeko eskubideen berri ere emango diote. Horretarako, protokolo honen II. eranskin gisa jaso den izaera pertsonaleko datuak jasotzeko eta lagatzeko baimen-eredua erabiliko da erreferentzia gisa.
- Emakumeak baimena ematen badu, datuak jaso eta lagatzeko orria eta datu pertsonalen orria emakumean onartu dituen erakundeetara helaraziko du artatzen ari den profesionalak hurrengo lanegunean, erasotzailearen ezaugarri eta baldintza pertsonalak (jatorria, adina, ahaidetasun harremana, etab.) zeinahi direla.
- Emakumeak baimena ematen ez badu, salaketa jarri zein ez, artatzen ari den profesionalak osoko esku-hartzea eskaintzeko mugapenei buruzko informazioa emango dio. Halakoetan, identifikazioa eragozten duten datu disoziatuak jaso eta bidaliko dira Berdintasun Zerbitzura hilero.
- Biktima 14 urtetik gorakoa bada, izaera pertsonaleko datuak jasotzeko baimena eman dezake; 14 urtetik beherakoa bada, haren legezko ordezkariak eman behar du.
- Erakundeek ez dute erabiliko aitzakia gisa izaera pertsonaleko datuen babesa erakundeen eta urgazpenerako sare koordinatuaren arteko lankidetza ez gauzatzeko edo eragozteko eta emakumeak babes gabe uzteko. Emakumeak esanbidez baimendutako datuak emateari uko egiten badio erakunderen batek, ukatze horren arrazoi kongruenteak azaldu beharko ditu idatziz eta Idazkaritza Teknikoari edo KTMri zuzenean igorriko dio ukatu eta astebeteko epean.

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, hura garatzen duten araudiek, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean eta datuak babesteko gainerako araudietan nahiz erakundeen arteko akordio, protokolo edo programetan xedatzen dena betetzearen kalterik gabe, emakumeek pairatzen duten indarkeriaren inguruan datu pertsonalak jasotzen dituzten erakunde sinatzaile guztiek honako konpromiso hauek hartzen dituzte protokolo honetan jasotzen denari jarraikiz:

a. Datuak jasotzeko, informatzeko eta tratatzeko baimena emateko sistema, datuetarako sarbide-kontrolak eta goi mailako segurtasun neurriak ezartzeko konpromisoa, bereziki babestu beharreko datuak direlako.

b. Datuak modu egokian tratatzeko eta datuetara iritsi, zuzendu, ezeztatu edo haiei aurka egiteko eskubideei arreta egiteko konpromisoa.

c. Indarkeria sexistaren kontrako borrokan inplikaturik dauden teknikari eta politikariak gai horretan trebatzeko konpromisoa.

d. Artatutako pertsonen datuak KTMri ahalbidetzeko konpromisoa, pertsona horiek datuak jasotzeko eta lagatzeko baimena eman badute. Baimenik ematen ez badute, datuak

disoziaturik emango dituzte, hau da, identifikazioa eragotzi arren, urgazpena, erakundeen arteko koordinazioa eta lau udalerri horietan indarkeriaren errealitatea hobeto ezagutzea ahalbidetzeko moduan, horrela indarkeria sexistaren aurkako politika publikoak garatzeko.

**Hiru hilean behin**, indarkeriagatik artatutako emakumeei buruzko informazioa helaraziko diote KTMko idazkaritza teknikoari Udaltzaingoak, Osakidetzak, Ertzaintzak eta Gizarte Zerbitzuek, adostutako ereduari jarraikiz.

**Urte amaieran**, III. eranskinari dagokion informazioa eskatuko die KOMek protokolo honetan parte hartzen duten erakunde guztiei.

Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko itunek eta giza-eskubideen bestelako estandar batzuek emakumeen kontrako indarkeriaren erroak eta ondorioak eta ezarritako neurrien eraginkortasuna ikertzeko betebeharra ezartzen dute. Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko Nazio Batuen Errelatore Bereziak, adierazleei buruzko txostenean honako hau jasotzen du: “datuen bilketa sistematikoak, kategoriatan banakatuak eta aldizka argitaratzeak Estatuek beren betebeharrak bete ote dituzten ebaluatzea errazten du”, eta Estatuei eskatzen die emakumeen kontrako indarkeriaren neurria eta prebalentzia eta erakunde publikoen erantzunen eraginkortasuna neurtzeko sakoneko neurriak har ditzaten.

Era berean, KOMek Emakunderi helaraziko dio informazio hori, Euskadiko udalerri guztiei buruzko estatistikak osatzeko.

# 11. ADIERAZPEN PUBLIKOAK ETA EKINTZAK

∝ Protokolo honetan jaso diren emakumeen kontrako indarkeria mota guztienganako **arbuio argia eta erabatekoa** erakutsi behar dute erakunde sinatzaileek euren eguneroko lan eta jardunean, bai eta haien ordezkarien edozein adierazpen eta agerralditan ere, pertsonala, politikoa zein teknikoa izan.

∝ Erakunde sinatzaile guztiek emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako **ekintza publiko edo manifestazioak** egingo dituzte azaroaren 25ean, gutxienez.

∝ Berdinsarea-tik edo EAEko beste erakunde batzuetatik emakumeen kontrako indarkeriaren prebentziorako eta kasuen arreta egiteko antolatzen diren **kanpaina eta programetan** parte hartuko dute eta bultzatu egingo dituzte udalek, modu koordinatuan lan egiteko eta helarazi nahi den mezua partekatua eta bateratua izan dadin.

∝ Udaletako Berdintasun Sailekin lankidetzan eta haien aholkupean, **feminizidio** kasuetan udalaren erantzuna gidatzeko **jarraibideak** landuko dituzte udalek; kasuan kasu kontestualizatu beharko dituzte, genero-zioengatiko diskriminaziotik abiatuta azaldu eta udalerriko emakumeek pairatzen dituzten gainerako indarkeria-forma eta espazioekin lotu. Gainera, erabilgarri dauden baliabideak eta udaletik emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko politika publikoak garatzen jarraitzearen garrantzia gogorarazi behar dute prebentzioan jardun ahal izateko.

∝ Dena dela, komunikabideek politikarien iritzia eskatzen badute, politikariek **Berdintasun eta Komunikazio Sailekin** lankidetzan jardungo dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin bat datorren erantzuna emateko eta, bereziki, emakumeen kontrako indarkeriari dagokionez, informazioa aurretik egiaztatu gabe bat-bateko erantzunak saihestuz.

∝ Gainera, **omenaldiak** egitea bultzatuko dute biktimen eta euren senitartekoen **erreparazio modu gisa**, baina bai eta indarkeria arbuiatzeko eta emakumeen alde egiteko gizartearentzako eta herritarrentzako mezu gisa ere. Era berean, **biktimen familiei laguntzeko eta haien erreparazioa lortzeko neurriak** ahalbidetuko dituzte, berehalako arreta **psikologiko eta juridikorako** neurriak barne. Gizarte-ehunarekin batera lan egingo dute, ahal den heinean, indarkeria hori arbuiatzeko ekintzetarako deia elkarrekin adosteko.

# 12. FINANTZAKETA

∝ Sinatzen duten lau udalek, honako protokolo hau eta bera abian jartzeko behar diren baliabideak onartzeak dakarren apustuaz eta inplikaturiko udal-sailetan duen eraginaz jabeturik, urtero, udal bakoitzeko Berdintasun Zerbitzuetara bideratzen den aurrekontu-partidaz gain, protokolo hau garatzeko, ezartzeko, haren segimendua eta ebaluazioa egiteko behar adinako beste partida bat bideratzea onartzen dute.

∝ Lau udalek, urtero, protokolo honen garapenak, ezarpenak, segimenduak eta ebaluazioak eragindako gastuen bidezko banaketarako formulak adostuko dituzte. Era berean, Durangaldeko Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuekin batera adostuko dute hark protokolo honi egingo dion ekarpena.

∝ Osakidetzak eta Ertzaintzak, bertako pertsonal politiko eta teknikoak ere urtero indarkeriari buruzko formazioa eta informazioa jasotzen duen heinean, protokolo honetan nola lagundu aztertuko dute.

# 13. SEGIMENDUA ETA EBALUAZIOA

- Protokoloaren segimendua eta ebaluazioa protokoloaren III. eranskinean jasotzen denari jarraikiz egingo dira. Bildutako neurrien aldizkakotasuna KOMek adostuko du urtero, eta KTMren urteko lehenengo bileran aurkeztuko da.

- Urte bakoitzean zehar, erakunde bakoitzak informazio kualitatibo eta kuantitatiboa jasoko du (ikus III. eranskina), eta **protokoloaren urteko ezarpen-txostenari** atxikiko zaio. Txosten hori KPMari helaraziko zaio egoki iruditzen zaizkien neurriak hartzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko udal politika publiko eraginkorragoen diseinua eta garapena ahalbidetzeko.

- II. protokoloak bost urte indarrean eman ondoren, emaitzen eta inpaktuaren ebaluazioa egingo da berriro; eta horren helburua izango da Durangaldean emakumeen kontrako indarkeriaren adierazpenen tamaina eta prebalentzia nolakoa den jakitea, eta profesionalen jardueraren eta koordinazioaren azterketa egitea, finkatu beharreko jardunbide egokiak, hobetu beharrekoak identifikatzeko eta, kasu bada, profesionalen jardunbide desegokiko kasuei erantzuteko.

- Protokoloaren ebaluazio-txostena egiteko ebaluazio-metodologia teknika kuantitatibo eta kualitatiboak konbinatzen dituzten hainbat metodotan oinarritua izan daiteke; hala nola:

    - 1. Baliabideei dagokien informazioaren (araudia, memoriak, txostenak, berriak, etab.) eta emandako urgazpenaren (III. eranskinean jasotako datuak) dokumentu-analisia. Eskuragarri dagoen dokumentazioaren bilketa eta sakoneko azterketatik abiatuta, ebaluazioaren xedea ezagutzea eta adostea eta ebaluazio-testuinguruaren lehenengo analisia egitea da xedea. Dagoen dokumentazioaren sakoneko berrikuspenaren osagarri izan daiteke maila desberdinetako funtsezko pertsonei elkarrizketa laburrak egitea.

      Protokoloko datu kuantitatiboetan honako hau sar daiteke:
        - Konparazio-analisia egiteko erabilgarriak izan daitezkeen datuak lortzeko dokumentuak (akordioak, fitxak, memoriak, segimendu-txostenak, etab.).
        - KOMek eta Protokoloaren Idazkaritza Teknikoak jasotako datuak, III. eranskinean zehazten direnak.

    - 2. Erakundeetara zuzenduriko galdetegiak eta emakumeen urgazpenean inplikatuta dauden pertsonekiko elkarrizketak. Profesionalen iritziak, KTMek jasoak, eta gizarte mailako koordinazioaren iritziak, KOMek jasoak.

    - 3. Artatu diren emakumeei egindako elkarrizketak, galdetegiak eta bizitza-historiak, KOM/KTMek jasoak. Elkarrizketatutako emakumeen hautaketan, kontuan hartuko da hainbat adin, jatorri, beharrizan berezi, etab. dituzten emakumeak aukeratzea.

# 14. KOMUNIKAZIOA

Erakunde sinatzaile guztiek **zabalduko dute barruan nahiz kanpoan** honako protokolo honen edukia, horrek lagundu egingo baitu tresna hobeto ezagutzen eta parte-hartze teknikoa, politikoa eta herritarrena ere bultzatzen.

Era berean, lau udalek **informazio-ekintzak** antolatuko dituzte **urtero** herritarrei Protokoloaren ezarpen-prozesuaren berri emateko eta emakumeen urgazpena hobetzen eta herritarren kontzientziatzea eta sentsibilizazioa hobetzen lagunduko duten edukiak zabaltzeko.

Protokoloa barruan nahiz kanpoan **hedatzeko eta komunikatzeko printzipioak eta jarraibideak** honako hauek izango dira:

- Protokoloa irisgarria izango da.
- Komunikazioa lengoaia argian egingo da, edozein kultura mailako jendearentzat ulergarria.
- Protokoloaren eta garatuko diren materialen hedapena udalerrietako emakumeen errealitatera egokituko da, eta kontuan hartuko dira adina, jatorria, desgaitasuna eta beste edozein baldintza pertsonal edo sozial.

Erakunde sinatzaileek behar diren tresna guztiak jarriko dituzte abian Protokoloa erakundeetan bertan eta udalerrietan zabal dadin.

# 15. INTERPRETAZIOA ETA ARGITALPENA

Protokoloaren aplikazioan haren interpretazioari buruzko zalantzarik sortzen bada, zalantza hori KOMek argituko du, eta horretarako, beharrezkotzat jotzen duen aholkularitza juridiko espezializatua edukiko du.

Protokolo hau erakunde parte-hartzaileetako politikariei helaraziko zaie, haiek sinatu eta indarrean jar dadin.

# 16. BERRIKUSPENA ETA INDARRALDIA

Protokolo honek iraupen mugagabea dauka. Bertan jaso denaren arabera berrikusi eta ebaluatuko da, eta erakundeen arteko koordinazio-mahaiek urterik urte hartzen dituzten erabakiak eranskin gisa atxikiko dira.

Goragoko mailako legezko edo hitzarmenezko arauren batek Protokolo honen edukia ukitzen badu, berau berehala egokitzeko konpromisoa hartzen dute protokoloa sinatzen duten pertsonek.

## 17. SINADURAK

Honako akordio honek sinatu eta hurrengo egunean izango du eragina. Eta aurreko guztiarekin ados daudela erakusteko, honako protokolo hau sinatzen dute.

**Jose Luis Navarro Donaire**

Abadiñoko alkatea

**Rolando Isoird Refoyo**

Berrizko alkatea

**Pilar Rios Ramos**

Durangoko alkate ordea

**Idoia Buruaga Barcena**

Elorrioko alkatea

**Aitor López Vázquez**

Durangoko Merinaldeko Amankomunazgoko lehendakaria

**Jon Guajardo Remacha**

Barrualde-Galdakao ES!ko Zuzendari Gerentea

**Josu Gotzon Lujua Altuna**

Intendentea, Bi iko Ertzaintzaren Lurralde -burua

Durangon, 2017ko aroaren 24an

# 18. ERANSKINAK

Dokumentu honek honako eranskin hauek ditu:

- I. eranskina. Lotura interesgarriak.
- II. eranskina. Datu pertsonalak jasotzeko eta lagatzeko eskaera-eredua.
- III. eranskina. Protokoloaren segimendua eta ebaluazioa egiteko fitxak.
- IV. Eranskina. Baliabide interesgarriak.

# I. ERANSKINA. Lotura interesgarriak.

- *Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioa, Eusko Jaurlaritza, 2009.* Hemen eskuragarri:

  http://www.bizkaia.eus/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/pdf/dokumentuak/II_interinstitucional_c.pdf

- *Drogak eta generoa.* EMAKUNDE, 2009. Hemen eskuragarri:

  http://www.berdingune.euskadi.eus/contenidos/informacion/material/es_gizonduz/adjuntos/3_drogas_y_genero.pdf

- *Drogas y perspectiva de género.* GALIZIAKO XUNTA: Hemen eskuragarri: *http://www.fundacioncsz.org/ArchivosPublicaciones/217.pdf*

- *Guía de intervención con menores víctimas de violencia de género,* BERDINTASUNERAKO KANARIETAKO ERAKUNDEA, 2012. Hemen eskuragarri:

  http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/profesionalesInvestigacion/protocolosAmbitoAutonomico/asistenciaSocial/docs/GuiaViolenciaMenores_Canarias.pdf

- *Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen datu pertsonalen tratamendurako gida.* EMAKUNDE, 2015. Hemen eskuragarri:

  http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guias2/eu_emakunde/adjuntos/30.gida.datu.pertsonalak.indarkeria.biktimak.pdf

- *Mujeres con discapacidad y violencia sexual: Guía para profesionales.* ANDALUZIAKO JUNTA, 2008. Hemen eskuragarri:

  *http://www.juntadeandalucia.es/export/drupaljda/Personas_Discapacidad_guia_violencia_sexual.pdf*

- *Etxeko eremuko haurren tratu txarren aurkako esku-hartzerako oinarrizko protokoloa, OSASUN, GIZARTE-ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOA, 2014.* Hemen eskuragarri:

  http://www.observatoriodelainfancia.msssi.gob.es/productos/pdf/MaltratoInfantil_accesible.pdf

- *Diagnostikoa. Emakumeen Genitalen Mutilazioa Euskal Autonomia Erkidegoan.* EMAKUNDE, 2014. Hemen eskuragarri:

  http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes/eu_emakunde/adjuntos/txostena.35.diagnostikoa_egm_eae.pdf

- *Emakumeen Genitalen Mutilazioa. Euskadiko osasun-sisteman gomendatutako jardunen gidaliburua.* EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN SAILA, 2016. Hemen eskuragarri:

  http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/mutilacion_genital_femenina/eu_def/adjuntos/emakumeen-genitalen-mutilazioa-gida.pdf

- *Genero-indarkeriaren aurreko osasun-jarduerarako protokolo komuna,* OSASUN, GIZARTE-ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOARENA, 2012. Hemen eskuragarri:

https://www.msssi.gob.es/organizacion/sns/planCalidadSNS/pdf/equidad/ProtComActSan_2012.pdf

- *Emakumeen Genitalen Mutilazioaren (EGM) aurreko osasun-jarduerarako protokolo komuna,* OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOARENA, 2015. Hemen eskuragarri:

  http://www.msssi.gob.es/organizacion/sns/planCalidadSNS/pdf/equidad/Protocolo_MGF_vers5feb2015.pdf

- *Emakumeen Genitalen Mutilazioari heltzeko jarduera-protokoloa,* OSAKIDETZA – BILBO-BASURTU ESI, 2014. Hemen eskuragarri:

  http://www.avpap.org/documentos/varios/MGF.pdf

- *Protocolo de detección e intervención en la atención a víctimas de ciberdelincuencia de género.* EMAKUMEAREN ANDALUZIAKO ERAKUNDEA, 2015. Hemen eskuragarri:

  *http://www.juntadeandalucia.es/iam/catalogo/doc/iam/2015/143528391.pdf*

- *Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana,* EUSKO JAURLARITZA, 2013. Hemen eskuragarri:

  http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_conviven/adjuntos/coeducacion/920006e_Pub_EJ_hezkidetza_plana_e.pdf

- *Propuesta de pautas para la intervención integral e individualizada con mujeres víctimas de violencia de género, sus hijos e hijas y otras personas a su cargo,* OSASUN, GIZARTE-ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOA, 2014. Hemen eskuragarri:

  http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/profesionalesInvestigacion/asistenciaSocial/protocolos/pdf/Punto5PropuestaPAI.pdf

- *Protocolo para el abordaje de la violencia machista en el ámbito de la salud en Cataluña.* KATALUNIAKO GENERALITATEA, 2011. Hemen eskuragarri:

  *http://salutweb.gencat.cat/web/.content/home/ambits_tematics/linies_dactuacio/model_assistencial/ordenacio_cartera_i_serveis_sanitaris/abordatge_de_la_violencia_masclista/documents/arxius/cast_femchist.pdf*

- *Etxeko eremuko tratu txarren eta sexu-erasoen aurreko osasun-protokoloa.* EUSKO JAURLARITZA, 2008. Hemen erabilgarria:

  http://www.bizkaia.eus/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/pdf/dokumentuak/protocolo_sanitario_2008.pdf

- *Genero-indarkeriaren biktimak diren emakume etorkinen laguntzeko gomendioak.* EUSKO JAURLARITZA. Hemen eskuragarri:

  http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_guias/eu_def/adjuntos/pub.recomendaciones.atencion.mujeres.inmigrantes.victimas.violencia.genero.eus.pdf

- *Gizonen indarkeriak: indarkeriaren legitimazioa, gizonen identitatearen eraikuntzan.* EMAKUNDE – GIZONDUZ, 2009. Hemen eskuragarri:

  http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/gizonduz_dokumentuak/eu_def/adjuntos/10_gizonen_indarkeriak_indarkeriaren_legitimazioa_gizonen_identitatearen_eraikuntzan.pdf

- *Ikastetxeei zuzendutako protokoloa, ikasle transei edo genero portaera ez normatiboa dutenei eta haien familiei laguntzeko.* EUSKO JAURLARITZA, 2016. Hemen eskuragarri:

  http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig2/eu_lgtb_fob/adjuntos/Protokolo_Trans_2016_e.pdf

# II. ERANSKINA Datu pertsonalak jasotzeko eta lagatzeko eskaera-eredua.

**DATU PERTSONALAK JASOTZEKO BAIMENA**

Nik,……………………………………………………………………………………………………….andereak, ……………………………….. zenbakidun NANa/pasaportea/egoitza-baimena/beste identifikazio-agiri bat duenak, agiri honen bidez, berariaz adierazten dut

…………………………………………. Udal/Mankomunitateko langileek honako edukien berri eman didatela:

1. Nire datu pertsonalak ……………………………. izeneko fitxategi batean sartu eta tratatuko direla, fitxategi horren titulartasuna helbidea …………………………….(e)(a)n duen ……………………………. Udal/Mankomunitatearena dela, eta horren helburua niri eta nire mendeko pertsonei laguntza integrala emateko -emakumeen aurkako indarkeriari aurre egin behar diogunoi laguntza emateko- behar diren datu pertsonalak kudeatzea dela.

2. Informazio horrek datu objektiboetan oinarritutako politika publikoak prestatzen lagunduko duela eta estatistika- eta ikerketa-helburuetarako erabili ahalko dela.

3. Baimen hori emateari uko egiteko eskubidea daukadala, uko egiteak zer ondorio izan ditzakeen ere jakinarazita.

4. ………………… Udal/Mankomunitatearen aurrean eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak (ARCO eskubideak) doan erabili ahalko ditudala, arestian adierazitako helbidera “datuen babesa” dioen erreferentzia jarrita komunikazio bat bidaliz, edo Udal/Mankomunitatean horretarako prestatutako inprimakiak betez edo ……… posta elektronikoaren bidez.

5. Nire datuak datuen babesari buruzko araudian eskatzen den konfidentzialtasunarekin eta bertan eskatutako segurtasun-neurriekin tratatuko direla.

6. Adierazitako aurrekari guztiei buruz behar bezala informatu nautela.

Horrekin guztiarekin ados egonda, askatasunez ematen dut nire baimena helburu horietarako behar diren datu pertsonalak agiri honen atzealdean aipatu erakundeen alde lagatzeko, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera.

Eta horrela jaso dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, hau sinatu dut

……………………………………..

(eguna).

Lagundu duen pertsonaren identitatea eta sinadura bertaratzeko zioa jasota utziz

## DATU PERTSONALAK LAGATZEKO BAIMENA

Halaber, honakoa ere adierazten dut: nire datu pertsonalak agiri honen atzealdean zerrendatutako erakunde publikoei edo pribatuei jakinarazi ahalko zaizkiela jakinarazi didate, zeina berariaz adierazten dudan, niri zein nire mendeko pertsonei laguntza integrala emateko xedez, eta legeak agindutakoaren arabera egin daitekeen lagapenaren kalterik gabe.

Identifikazio-datuak: Izena, adina, telefono-zenbakia

Beharrizanak: gaztelera itzultzea, espaziora edo informaziora egokitzea, adingabeko umeak garraiatzea edo arreta eskaintzea.

Urruntze-agindua baldin badago, erasotzailearekin topo ez egitekon hitzorduak egonez gero:

Osakidetzan: seme-alabak badaude, pediatrian urruntze-agindu hori jakinarazi behar da, hitzordu berean aita eta ama batera ez egoteko.
Ikastetxeetan: seme-alabenganako urruntze-agindua dagoen jakinarazi, edota bisitetan murrizketak
Enplegua eta Politika Sozialetako sailean: egoera ekonomikoaren berri eman, etxebizitza errazteko, hala badagokio.

Horrekin guztiarekin ados egonda, askatasunez ematen dut nire baimena helburu horietarako behar diren datu pertsonalak agiri honen atzealdean aipatu erakundeen alde lagatzeko, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera.

Eta horrela jaso dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, hau sinatu dut.

Data eta emakumearen sinadura.

Nire alabak 14 urte baino gutxiago izanda, haren ama/tutorea naizen aldetik, baimena ematen dut haren datu pertsonalak biltzeko eta aipatu erakundeei lagatzeko, eta haiek aipatu ondorioetarako eta helbururako tratatzea baimentzen dut.

# III. ERANSKINA Protokoloaren segimendua eta ebaluazioa egiteko fitxak.

| HELBURU OROKORRAK | HELBURU ZEHATZAK | NEURRIAK | ADIERAZLEAK | BULTZATZEN DUEN ERAKUNDEA |
|---|---|---|---|---|
| **A. Protokoloaren hedapena** | A1. Hedapena | A1.1. Protokoloaren edukia hedatzea. | Egindako hedapen-ekintzen kopurua.<br>Protokoloa ezagutzen duten profesionalen kopurua. | **ERAKUNDE GUZTIAK** |
| | | A1.2. Protokoloarekin zerikusia duten baliabideak hedatzea. | Erabilitako hedabideen kopurua.<br>Garatutako tresnen kopurua eta balorazioa. | **ERAKUNDE GUZTIAK** |
| **B. Erakundeen arteko koordinazioa** | 5.7. Udal mailakoa | B1.1 Udal mailako koordinazioa hobetzea. | Udal koordinaziorako egindako bileren kopurua eta asistentzia. | **UDAL GUZTIAK** |
| | B2. Erakundeen artekoa. | B2.1 Erakundeen arteko koordinazioa hobetzea. | Bileren kopurua eta mahaietarako asistentziaren %. | **IDAZKARITZA TEKNIKOA** |
| | | B2.2 Osasun alorreko koordinazioa hobetzea. | Bileren eta osasun alorreko sailen kopurua.<br>Barneko inkesta baten bidez, koordinazioaren kalitatea eta eraginkortasuna neurtzea. | **OSAKIDETZA** |
| | | B2.3 Polizia-alorreko koordinazioa hobetzea. | Polizia-eremuarekin egindako bileren kopurua. | **UDALTZAINGOA ETA ERTZAINTZA** |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | | Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren artean sinatutako protokolo kopurua.<br><br>Barneko inkesta baten bidez, koordinazioaren kalitatea eta eraginkortasuna neurtzea. | |
| | | B2.4 Indarkeria alorreko Epaitegietako edo/eta instrukzioko epaitegietako titularren eta emakumeen kontrako indarkerian eskumena dutenen eta erakundeen koordinazioa hobetzea. | Epaitegietako titularrekin egindako bileren kopurua.<br><br>Barneko inkesta baten bidez, koordinazioaren kalitatea eta eraginkortasuna neurtzea. | **KOORDINAZIO OROKORRERAKO MAHAIA** |
| | | B2.5 Erakundeen eta Fiskaltzaren arteko koordinazioa hobetzea. | Fiskaltzarekin egindako bileren kopurua.<br><br>Barneko inkesta baten bidez, koordinazioaren kalitatea eta eraginkortasuna neurtzea. | **KOORDINAZIO OROKORRERAKO MAHAIA** |
| | | B2.6 Erakundeen eta Bizkaiko Abokatuen Elkargoaren arteko koordinazioa hobetzea. | Bizkaiko Abokatuen Elkargoarekin egindako bileren kopurua.<br><br>Barneko inkesta baten bidez, koordinazioaren kalitatea eta eraginkortasuna neurtzea. | **KOORDINAZIO OROKORRERAKO MAHAIA** |
| | | B2.7 Erakundeen eta Lanbideren arteko koordinazioa hobetzea. | Lanbiderekin egindako bileren kopurua.<br><br>Barneko inkesta baten bidez, koordinazioaren kalitatea eta eraginkortasuna neurtzea. | **KOORDINAZIO OROKORRERAKO MAHAIA** |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | B2.8 Erakundeen eta Hezkuntzaren arteko koordinazioa hobetzea. | Hezkuntza arloarekin egindako bileren kopurua.<br>Barneko inkesta baten bidez, koordinazioaren kalitatea eta eraginkortasuna neurtzea. | **KOORDINAZIO OROKORRERAKO MAHAIA** |
| | B3. Gizarte zibileko erakundeekiko koordinazioa. | B3.1. Erreferente diren emakumeekiko koordinazioa hobetzea, indarkeria pairatzen egon daitezkeen emakumeekin jarduteko eta kasuak hautemateko. | Emakume erreferenteekin egindako bileren kopurua. | **UDAL GUZTIAK** |
| | | B3.2. Gizarte zibileko erakundeekin lankidetzan jarduteko bideak ezartzea, indarkeria pairatzen egon daitezkeen edo pairatu duten emakumeekin prebentzioa, hautematea eta akonpainamendua lortzeko. | Elkarte-ehunarekin egindako bileren kopurua. | **UDAL GUZTIAK** |
| **C. Emakumeen kontrako indarkeriaren gaineko kontzientziatzea** | C1 Emakumeen kontrako indarkeriaren gaineko kontzientziatzea. | C1.1. Indarkeria matxistari buruzko ezagutza zabaltzea. | Parte hartzen den azterlan edo ikerlanen kopurua. | **ERAKUNDE GUZTIAK** |
| | | C1.2. Komunikabideak inplikatzea. | Zenbat komunikabiderekin koordinatzen den edo lankidetzan diharduen. | **KOORDINAZIO OROKORRERAKO MAHAIA** |
| | | C1.3. Emakumeen kontrako indarkeriaren aurka mugimendu feministak proposatutako ekimenen alde egitea. | Lagundu diren kanpaina edo programa kopurua. | **KOORDINAZIO OROKORRERAKO MAHAIA** |
| **D. Emakumeen aurkako** | | D1.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko sentsibilizazio- | Egindako kanpaina kopurua. | **UDAL GUZTIAK** |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **indarkeriaren prebentzioa.** | D1 Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa. | kanpainak eta emakumeen kontrako indarkeriari buruzko bereziak garatzea. | | |
| | | D1.2 Beldur Barik gisako programetan eta ekimenetan parte hartzea. | Beldur Barik programan parte hartu duen pertsona kopurua. | **UDAL GUZTIAK** |
| **E. Emakumeen aurkako indarkeriaren hautematea.** | E1. Emakumeen kontrako indarkeriaren identifikazio goiztiarra. | E1.1. Emakumeen kontrako adierazle sozialak eta susmo-adierazleak lantzea, eremu eta motaren arabera bereiziak. | Garatutako adierazle kopurua. | **KOORDINAZIO OROKOR ETA TEKNIKORAKO MAHAIA** |
| | | E1.2 Profesionalen eta elkarte-ehunaren artean susmo eta lehenengo deribaziorako-adierazleak banatu. | Adierazleak zein diren dakiten profesionalen kopurua.<br>Hautemandako emakume kopurua. | |
| | | E1.3. Sarreren mapa bat egitea: erakundeen eta /edo eragileen identifikazioa. | Mapa egitea. | |
| | | E1.4. Jarraibide gehigarri batzuekin hautematea ahalbidetuko duten beste protokolo batzuk zabaltzea. | Egindako hedatze-ekintzen kopurua. | |
| **F. Indarkeriari aurre egin behar dioten emakumeen osoko arreta.** | F1. Irisgarritasun linguistiko eta kulturala bermatzea. | F1.1. Bitartekaritza linguistiko eta kulturartekoa egiteko baliabideen erabilgarritasunari eta irisgarritasunari buruzko txostena egitea. | Txostena egitea.<br>Baliabideen eta zerbitzuen kopurua handitzea. | **KOORDINAZIO OROKORRERAKO MAHAIA** |
| | | F1.2. Eskualdean dauden hizkuntzen eta kulturen mapa bat egitea itzulpen, interprete, bitartekaritza linguistiko eta kulturalerako zerbitzua baloratzeko. | Mapa egitea.<br>Baliabideen eta zerbitzuen kopurua handitzea. | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | F2. Askotariko diskriminazioa pairatzen duten emakumeentzako arreta-baliabideen erabilgarritasuna eta haietarako irisgarritasuna bermatzea. | F2.1. Desgaitasuna duten emakumeek, adindunek, neskek, gaixotasun mentala eta/edo mendekotasunak dituztenek, eta abarrek baliabideetarako duten erabilgarritasuna eta irisgarritasunari buruzko txostena egitea. | Txostena egitea.<br>Egokitutako baliabideen kopurua.<br>Baliabideen eta zerbitzuen kopurua handitzea. | **KOORDINAZIO OROKOR ETA TEKNIKORAKO MAHAIA** |
| | F3. Akonpainamendu zerbitzuaren kalitatea eta erabilgarritasuna bermatzea. | F3.1. Akonpainamendurako baliabideen erabilgarritasunari eta irisgarritasunari buruzko txostena egitea. | Txostena egitea.<br>Akonpainamendu zerbitzua sortzea eta horren balorazioa egitea.<br>Emakume erabiltzaileen kopurua. | **UDAL GUZTIAK** |
| | F4. Aldi baterako ostatu seguruaren zerbitzuaren erabilgarritasuna eta kalitatea bermatzea. | F4.1. Udalen arteko lankidetza-hitzarmen bat sinatzea harrerako etxebizitzaren erabilera komunerako, horren araudia berrikustea eta hobetzea, testuinguru sozialera eta araudietara egokitzeko. | Hitzarmena sinatu duten udalen kopurua.<br>Etxebizitzaren araudiari egindako hobekuntza kopurua.<br>Emakume erabiltzaileen kopurua. | **UDAL GUZTIAK** |
| | | F4.2. Aldi baterako ostatu segururako baliabideen erabilgarritasunari, irisgarritasunari eta kalitateari buruzko txostena egitea. | Txostena egitea. | **DURANGOKO UDALA**<br>**BERRIZKO UDALA**<br>**KOORDINAZIO OROKORRERAKO MAHAIA** |
| | | F4.3. Emakume bakoitzarentzako ostatu egokia hautatzeko irizpide objektiboak jasoko dituen dokumentua egitea eta hedatzea. | Txostena egitea.<br>Egindako hedapen-ekintzen kopurua.<br>Ezagutzen duten profesionalen kopurua. | **DURANGOKO UDALA**<br>**BERRIZKO UDALA** |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | | | **KOORDINAZIO OROKORRERAKO MAHAIA** |
| | | F4.4. Egonaldia amaitzean emakume egoiliarren ebaluazioa zerbitzuen kalitateari buruz, ahalduntze-adierazleak kontuan hartuta. | Inkesta bat egitea. | **KOORDINAZIO OROKORRERAKO MAHAIA** |
| | F5. Eskubide eta baliabide sozialei buruzko informazio zerbitzuaren erabilgarritasuna, irisgarritasuna eta kalitatea bermatzea. | F5.1. Indarkeriari aurre egiten dioten emakumeen eskura dauden baliabideei buruzko informazioa biltzen duen dokumentua lantzea, informaziorako irisgarritasuna eta horren hedapena eguneko 24 ordukoa izango dela bermatuta. | Dokumentua/gida prestatzea. | **MANKOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUAK**<br>**BERRIZKO UDALA**<br>**UDALTZAINGOA** |
| | F6. Gizarte-langileen erantzukizuna eta jardun profesionala bermatzea. | F6. Gizarte-langileek emakumeen arriskuen balorazioa egiteko jarraibideen hedapena. | Arrisku mailaren adierazleak.<br>Jarraibideen berri emateko egindako ekintzak. | **MANKOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUAK**<br>**BERRIZKO UDALA** |
| **G. Emakumeen kontrako indarkeria gauzatzen den eremuen aurreko erantzuna.** | G1. Feminizidioaren aurrean, jendaurrean erantzutea. | G1.1. Feminizidio kasuetan erakundeek erantzuna emateko jarraibideei buruzko dokumentua prestatzea. | Dokumentua egitea.<br>Eremu politikoko zenbatek duten horren berri. | **UDAL GUZTIAK** |
| | G2. Herriko jaietan indarkeriari aurrea hartzea. | G2.1. Herriko jaietan, emakumeen kontrako indarkeriari aurrea hartzeko protokoloak sinatzea. | Sinatutako protokolo kopurua. | **UDAL GUZTIAK** |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | G2.2. Protokoloen hedapena eta balorazioa. | Protokoloa zenbat eragileri helarazi zaion.<br>Zenbat eragilek parte hartu duten.<br>Formazioan parte hartu dutenen kopurua, sexuaren arabera bereziak.<br>Jasotako hobekuntza-iradokizunen kopurua. | **UDAL GUZTIAK** |
| | | G.2.3. Jaiak antolatzean emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko neurriak prestatzea. | Jaiak antolatzen dituzten elkarteei emandako diru-laguntzetatik zenbatek jasotzen duen balorazio-irizpide hori.<br>Jaiak antolatzen dituzten enpresa publikoen kontratazioetan berdintasunarekin loturiko zenbat klausula dauden. | **UDAL GUZTIAK** |
| | G3. Emakumeen kontrako indarkeriari erantzutea beste eremu batzuetan. | G3.1. Sexu-jazarpenari eta sexuagatiko jazarpenari aurrea hartzeko eta horren aurrean jarduteko udal protokoloa garatzea. | Sinatutako protokolo kopurua. | **UDAL GUZTIAK** |
| | | G3.2. Jardunbide egoki gisa beste erakunde publiko eta pribatu batzuei helaraztea. | Protokoloaren berri duten enpresa eta erakundeen kopurua. | **UDAL GUZTIAK** |
| **H. Emakumeen datuaketa lekukotzak biltzea etaaztertzea.** | H1. Arreta-zirkuituei dagokienez, zerbitzuetan jasotako arretaren inguruan emakumeek egindako eskaerak balioestea. | H1.1 Arreta-zirkuituko arloetako zerbitzuetara joaten diren emakumeen iritziak jasotzeko inkesta bat egitea. | Jasotako arreta inkesta bidez edo kontakizun bidez ebaluatu duten emakumeen kopurua.<br>Jasotako arretaren asebetetze maila. | **KOORDINAZIO OROKORRERAKO MAHAIAK** |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | H2. Erakunde publikoen arreta eta erantzunen eraginkortasuna eta haien erantzukizunak betetzea baloratzea. | H1.2. Arlokako jarduerari buruzko datu kuantitatiboak jasotzea eta protokoloan xedatutako jarraibideetara egokitzea: jarduera-ildoak eta erakundeen erantzukizunak. | Artatutako emakumeen eta egindako ekintzen kopurua eta ezaugarriak.<br><br>Zerbitzuan /baliabidean emandako denbora.<br><br>Zerbitzua /baliabidea zer puntutan utzi duten eta zergatik. | **ERAKUNDE GUZTIAK** |
| | | | Epaitegietara bideraturiko mediku-parteen kopurua.<br><br>Larrialdietatik oinarrizko arretara segimendua egiteko bideraturiko kasuen kopurua. | **OSAKIDETZA** |
| | | | Baliabideetako langileen artean jarduera-planaren ezagutza- eta asebetetze-maila.<br><br>Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistemako Gizarte.eus tresna informatikoan jasotako datuak: bikotekide edo bikotekide-ohiaren indarkeriaren, familia barruko indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeei buruzko estatistikak jasotzen dituena. | **MANKOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUAK** |
| | | | Ofiziozko esku-hartzeen kopurua.<br><br>- Zerbitzu publikoetako deiak.<br>- Beste inoren deiak (auzokoak, senitartekoak, etab.) | **UDALTZAINGOA ETA ERTZAINTZA** |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | | Epai-ofiziozko esku-hartzeen kopurua.<br>Biktimak /beste inork jarritako salaketen kopurua.<br>Indarkeria kasuen segimendua egiteko ardura duen kideetako batek jasotako salaketa kopurua.<br>Salaketa jartzeko, Gizarte Zerbitzuetan emandako aurretiazko hitzorduen kopurua.<br>Indarkeria motagatik eta biktimaren ezaugarriengatik eskatutako /emandako BA kopurua.<br>Emakumeei egindako polizia-akonpainamenduen kopurua. | |
| **I. Emakumeen kontrako indarkeria alorrean gaitzea eta formatzea.** | I1. Teknikari eta politikarientzako formazio-plan bat lantzea eta ezartzea indarkeria gaiaren inguruan. | I1.1. Mahaien arabera, indarkeria alorrean beharrezkoak diren formazio mailak identifikatzea. | Indarkeria alorrean oinarrizko formazioa edo aurreratua behar duten postuen ehunekoa. | **KOORDINAZIO OROKOR ETA TEKNIKORAKO MAHAIA** |
| | | I1.2. Politikari eta teknikarientzako formazio espezifikoa antolatzea. | Emandako formazio-saioen kopurua.<br>Formazio-egitarauetan parte hartu duten pertsonen kopurua eta zer eremutatik datozen. | **KOORDINAZIO OROKOR ETA TEKNIKORAKO MAHAIA** |
| **J. Protokoloaren finantzaketa.** | J1. Protokoloa ezartzeko diru-partida zehatz bat finkatzea. | J1.1 Aurrekontu-izendapen bat egitea. | Erabiliko den aurrekontua. | **ERAKUNDE GUZTIAK** |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **K. Protokoloko neurrien segimendua.** | K1. Protokoloaren ezarpena aztertzea | K1.1. Protokoloaren ezarpenaren urteko segimendu-txostena egitea. | Txertatutako hobekuntza eta/edo aldaketen kopurua.<br>Urtero adostutako neurrien eta Protokoloan jasotako gainerakoen betetze-ehunekoa.<br>Hautemandako kasuen gehitzea.<br>Salaketarik gabeko emakumeen arreta gehitzea.<br>Protokoloan jasotzen diren indarkeria guztien hautematea eta arreta handitzea.<br>Gehituriko eragozpenak dituzten emakumeen kasuen hautemateak eta arreta handitzea.<br>Galdetegien eta kontakizunen bidez asebetetzeari buruzko datuen bilketa gehitzea.<br>Erabiltzaileen asebetetze maila hobetzea.<br>Segimenduari eta emaitzei buruzko txostenetan oinarrituta hartutako neurriak. | **ERAKUNDE GUZTIAK**<br>**IDAZKARITZA TEKNIKOA** |
| **L. Protokoloaren ebaluazioa.** | L1. Protokoloa ebaluatzea. | L1.1. Protokoloaren onarpenaren eraginari buruz bost urtean behingo txostena egitea. | Protokoloan garatutako helburuen betetze eta lortze maila, bai eta haren eragina ere.<br>Protokoloa ezartzearen eragina.<br>Segimenduari buruzko urteko txostenetan oinarrituta hartutako neurrien kopurua.<br>Artatutako emakumeen kopurua.<br>Emakumeen asetze maila eta haien eskaerak. | **ERAKUNDE GUZTIAK**<br>**IDAZKARITZA TEKNIKOA** |

# IV.. ERANSKINA. Baliabide interesgarriak.

1. **SOS DEIAK: 112 telefono zenbakia. Entzuteko eta/edo mintzatzeko desgaitasun kasuan, SMS bat 600123112 zenbakira, datu pertsonalak eta kokapena eta "genero indarkeria" adierazita.**

2. **Arreta-zerbitzua**

   - Telefonoz 24 ordu: 900 840 111. Telefono zenbaki hau doakoa da 24 orduetan, eta ez du fakturan arrastorik uzten.

3. **Bizkaiko Foru Aldundia. Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna sustatzeko saila. Emakumeak babesteko eta Familientzako laguntza**

Telefono zk.: 944.066.900 / 946.083.574.

Zerbitzu horretatik erabilgarri dauden baliabideetara iristeko laguntza ematen da.

- **Aldundiaren aholkularitza juridikoa**

  Hitzordua hartzeko: Clara Campoamor elkartea: 944.239.155.
  Informazio gehiago: Emakumeak babesteko eta Familientzako laguntza
  Ugasko kalea, 3-2. solairua - 48005 Bilbo
  Telefono zk.: 944 068 000.

- **Aldundiaren arreta psikologikoa**

  Hitzordua hartzeko: Emakumeak babesteko eta Familientzako laguntza
  Ugasko kalea, 3-2. solairua - 48005 Bilbo
  Telefono zk.: 944.066.900.

  Zutituk emandako zerbitzua.

- **Tratu txarren (GI/EI) biktimentzako premiazko harrera-baliabideak.**

  Zerbitzu hau erabiltzeko, bere etxetik irtetera behartzen duen arrisku egoeran egon behar du. Zerbitzu honetara poliziaren bidez iristen da.

  Barruan hartzen ditu mendeko pertsonak ere (adingabeko nahiz adinez nagusi diren seme-alabak eta mendeko beste pertsonak).

- **Tratu txarren (GI/EI) biktimentzako egonaldi ertain eta luzerako baliabidea.**

  Emakumeak babesteko eta Familientzako Laguntza zerbitzuak balorazioa egin behar du aurretik. Telefono zk.: 944.066.900.

  Barruan hartzen ditu mendeko pertsonak ere (adingabeko nahiz adinez nagusi diren seme-alabak eta mendeko beste pertsonak).

- **Emakumeen kontrako etxe barruko indarkerian espezializatuta dagoen familia barruko esku-hartze programa.**

  Emakumeak babesteko eta Familientzako Laguntza zerbitzuak balorazioa egin behar du aurretik. Telefono zk.: 944.066.900.

- **Gurasoen aurkako indarkerian espezializatutako familia barruko esku-hartze programa.**

  Emakumeak babesteko eta Familientzako Laguntza zerbitzuak balorazioa egin behar du aurretik. Telefono zk.: 944.066.900.

- **Bikote barruko indarkeriaren biktima diren adingabekoen kasuetan espezializatutako familia barruko esku-hartze programa.**

  Emakumeak babesteko eta Familientzako Laguntza zerbitzuak balorazioa egin behar du aurretik. Telefono zk.: 944.066.900.

4. **Abokatuen Elkargoko laguntza juridikoko zerbitzua, Emakumearen kontrako indarkeriaren, Etxeko indarkeriaren eta Sexu erasoen biktimentzako (ofiziozko txanda).**

Telefono zk.: 902.103.908.

5. **Biktimari Laguntzeko Zerbitzura.**

Ibañez de Bilbao, 3- Beheko solairua.- 48001 Bilbo.

Telefono zk.: 900.400.028 – 944.016.487.

Ordutegia: 9:00etatik 14:00etara. Helbide elektronikoa: sav48-1@aju.ej-gv.es

6. **Orientazio Juridikoko Zerbitzua (OJZ).**

Telefono zk.: 944.016.712.

Bizkaiko Abokatuen Elkargoaren zerbitzu bat da, eta horren bidez tramitatzen dira ofiziozko abokatuaren eskaerak eta doako justizia-eskaerak ere.

7. **Fiskaltza, Durango.**

Ezkurdi Plaza, z/g, lehenengo solairua.- 48200 Durango.

Telefono zk.: 946.030.055/ Faxa: 946.030.080.

Ordutegia: 9:00etatik 14:00etara.

8. **Epaitegi dekanoa, Durango**

Ezkurdi Plaza, z/g, lehenengo solairua.- 48200 Durango.

Telefono zk.: 946.030.061/ Faxa: 946.030.074.

Ordutegia: 9:00etatik 14:00etara. Helbide elektronikoa: Info-justizia-durango@aju.ej-gv.es

9. **Guardiako epaitegia, Durango**

Ezkurdi Plaza, z/g, lehenengo solairua.- 48200 Durango.

Telefono zk.: 946.030.060 Faxa: 946.030.080.

Ordutegia: Astelehenetik larunbatera, 9:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

**10. Lehen Auzialdiko eta instrukzioko 1 zk.ko Zuzeneko Laguntza Emateko Unitate Prozesala (ZULUP), Durango**

Ezkurdi Plaza, z/g, lehenengo solairua.- 48200 Durango.

Telefono zk.: 946.030.061/ Faxa: 946.030.080.

Ordutegia: 9:00etatik 14:00etara. Helbide elektronikoa: Info-justizia-durango@aju.ej-gv.es

**11. Lehen Auzialdiko eta instrukzioko 2 zk.ko Zuzeneko Laguntza Emateko Unitate Prozesala (ZULUP), Durango**

Ezkurdi Plaza, z/g, lehenengo solairua.- 48200 Durango.

Telefono zk.: 946.030.061/ Faxa: 946.030.080.

Ordutegia: 9:00etatik 14:00etara. Helbide elektronikoa: Info-justizia-durango@aju.ej-gv.es

**12. Lehen Auzialdiko eta instrukzioko 3 zk.ko Zuzeneko Laguntza Emateko Unitate Prozesala (ZULUP), Durango**

Ezkurdi Plaza, z/g, bigarren solairua.- 48200 Durango.

Telefono zk.: 946.030.061/ Faxa: 946.030.080.

Ordutegia: 9:00etatik 14:00etara. Helbide elektronikoa: Info-justizia-durango@aju.ej-gv.es.

**13. Lehen Auzialdiko eta instrukzioko 4 zk.ko Zuzeneko Laguntza Emateko Unitate Prozesala (ZULUP), Durango**

Ezkurdi Plaza, z/g, bigarren solairua.- 48200 Durango.

Telefono zk.: 946.030.061/ Faxa: 946.030.080.

Ordutegia: 9:00etatik 14:00etara. Helbide elektronikoa: Info-justizia-durango@aju.ej-gv.es

**14. Auzitegi-medikuen zerbitzua, Durango**

Ezkurdi Plaza, z/g, bigarren solairua.- 48200 Durango.

Telefono zk.: 946.030.056/ Faxa: 946.030.080.

Ordutegia: 9:00etatik 14:00etara.

**15. ERTZAINTZA– Durangoko ertzain-etxea.**

Kurutziaga, 25.- 48200 Durango.

Telefono zk.: 944.669.300/ Faxa: 944.669.301.

**16. OSAKIDETZA – ESI Barrualde-Galdakao.**

Barrualdeko eskualdea.

- **Abadiño-Matienako Osasun Zentroa**

Trañabarren, 13 behea- 48220 Abadiño.

Telefono zk.: 946.032.910 Faxa: 946.032.913.

Helbide elektronikoa: SECRETARIA.UAP.ABADINO@osakidetza.eus

Arreta-ordutegia: astelehenetik ostiralera: 08:00etatik 17:00etara.

Erreferentziako ospitalea: Galdakao-Usansoloko Ospitalea.

- **Berrizko kontsultategia**

Gabiola, 6-8 48240 Berriz.

Telefono zk.: 946.236.100 Faxa: 946.824.365.

Helbide elektronikoa: SECRETARIA.UAP.ABADINO@osakidetza.eus

Arreta-ordutegia: astelehenetik ostiralera: 08:00etatik 15:00etara.

Erreferentziako ospitalea: Galdakao-Usansoloko Ospitalea.

- **Elorrioko kontsultategia**

Esteibarlanda, 10 behea 48230 Elorrio.

Telefono zk.: 946.238.070 Faxa: 946.231.874.

Helbide elektronikoa: SECRETARIA.UAP.ABADINO@osakidetza.eus

Arreta-ordutegia: astelehenetik ostiralera: 08:00etatik 15:00etara.

Erreferentziako ospitalea: Galdakao-Usansoloko Ospitalea.

- **Landako osasun-zentroa**

Arriputzueta, 1 48200 Durango.

Telefono zk.: 946.032.880/ Faxa: 946.032.890.

Helbide elektronikoa: SECRETARIA.UAP.DURANGO@osakidetza.eus

Arreta-ordutegia: astelehenetik ostiralera: 08:00etatik 20:00etara.

Erreferentziako ospitalea: Galdakao-Usansoloko Ospitalea

- **Osasun mentaleko sarea**
  - **Durangoko Osasun Mentaleko Zentroa**

    Arriputzueta, 1 48200 Durango (Anbulatorioa).

    Telefono zk.: 946.032.892 – 946.032.893.
  - **Durangoko Eguneko Ospitalea.**

    Landako Etorbidea, 3 behea 1.- 48200 Durango

    Telefono zenbakia: 946.032.892 – 946.032.893.
  - **Zaldibarreko Osasun Mentaleko Ospitalea.**

Bilbao etorbidea, z/g . 48250 Zaldibar.

Telefono zk.: 946.032.800.

**17. MANKOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUAK.**

- **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak.**

Bruno Mauricio Zabala, 9.- 48200 Durango

Ordutegia. 09:00 – 13:30. Helbide elektronikoa: bsocial.mdurango@bizkaia.org

Aurretiazko hitzordua: 946 200 492.

- **Emakumeentzako orientazio juridiko eta psikologikorako zerbitzua.**

Aurretiazko hitzordua oinarrizko gizarte-zerbitzuetan: 946 200 492.

**18. ABADIÑOKO UDALA**

- **Berdintasun Saila**

San Trokaz plaza, 1.- 48220 Abadiño

Telefono zk.: 944.669.420.

- **Gizarte Zerbitzuak**

Aurretiazko hitzordua: 946.200.492.

Astelehen eta ostegunetan: San Prudentzio, 10.- 48220 Abadiño

Asteazkenetan: San Trokaz plaza, 1.- 48220 Abadiño

- **Udaltzaingoa**

San Trokaz plaza, 1.- 48220 Abadiño

Telefono zk.: 946.215.533.

- **Abadiño Sex programa.** Sexualitatean eta berdintasunean adituak diren pertsona talde batek informazioa eta aholkularitza ematen du sexualitatearen eta harremanen inguruan.

Astelehenetan 17:00etatik 19:00etara Pino Plazan. Helbide elektronikoa: sexuaholkularitza@abadiano.org

**19. BERRIZKO UDALA**

- **Berdintasun Saila / Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak**

Iturriza, 51.- 48240 Berriz

Telefono zk.: 946.824.525 Faxa: 946.827.950

- **Emakumeen eta/edo feministen elkarteak.**
    - **Gure Izarrak elkartea:** gureizarrak@kzgunea.net

**20. DURANGOKO UDALA**

- **Udaltzaingoa**

Zeharkalea, 3 – 48200 Durango

Telefono zk.: 946.030.010.

- **Berdintasun Saila**

Barrenkalea, 17.- 48200 Durango

Telefono zk.: 946 030 042. Helbide elektronikoa: berdintasuna@durango.eus

- **Andragunea Ahalduntze Eskola.**

Lariz Torre, 2.- 48200 Durango

- **Emakumeen eta/edo feministen elkarteak**
    - **Andereak**: Pinondo Plaza, 1.- 48200 Durango. Telefono zk.: 944.657.092.
    - **Bilgune Feminista:** Pinondo Plaza, 1.- 48200 Durango. Telefono zk.: 944.657.092.

**21. ELORRIOKO UDALA**

- **Berdintasun Saila**

Laguntzei eta baliabideei buruzko informazioa. Ordutegia: 8:30h.-14:30h.

Telefono zk.: 946.58.712. Helbide elektronikoa: **berdintasuna@elorrio.eus**

- **Udaltzaingoa.**

Ordutegia: 6:30etatik 22:00etara. Telefono zk.: 946.820.218.

- **Gizarte Zerbitzuak**

Aurretiazko hitzordua: 946.200.492.

Astelehen, asteazken eta ostegunetan.

- **Emakumeen eta/edo feministen elkarteak.**
    - **Lilika:** lilikaemakumetaldea@gmail.com
    - **Elorri Lore:** elorri.lore@gmail.com
    - **Elorrioko emakume alargunen elkartea:** Aldatsekua Jauregia.- 48230 Elorrio
    - **Elorrixoko Bilgune Feminista:** elorrixokobilgunefeminista@gmail.com

# V. ERANSKINA Erreparatzeko ekintzak

2018an zehar, Koordinazio Teknikoko Mahaiak indarkeria jasan duten emakumeei zuzendutako erreparazio-ekintzen inguruan lan egin du Berdinsareak sustatutako erreparazioari buruzko proiektu pilotu baten testuinguruan. Prestakuntza eskuratu da, erreparazio-ekintzen esparru teorikoari buruz hausnartu da eta Durangaldeko emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jardun eta koordinatzeko II. Protokoloaren esparruak ekin beharreko ekintzak identifikatu eta lehenetsi dira.

**Testuinguru-esparrua**

Kasu bakoitzaren baldintzak kontuan hartuta, erreparazioak 5 modu izan ditzake:

1. Itzultzea: posible den guztietan, biktima gertaeraren aurreko egoerara itzuli behar da. Beste neurri batzuen artean eta kasuan kasu, alderdi hauek berrezartzea barne hartzen du erreparazioak: gizabanakoen askatasuna; giza eskubideen gozamena; identitatea; familia- eta gizarte-bizitza; bizitegira itzultzea; lanera itzultzea eta, ondorengorik izanez gero, ikastetxera, eta ondasunak itzultzea, besteak beste.
2. **Kaltea ordaintzea,** itzultzerik ez badago: Biktimarentzat eta horren seme-alabarentzat adierazi behar da modu hori. Egoeraren larritasunarekin egokia eta proportzionala den moduan eman behar da kalte-ordaina, ekonomikoki ebaluagarriak diren kalte guztiengatik:
    a. Kalte fisikoak /mentalak
    b. Aukera-galera (lana, hezkuntza, gizarte-prestazioak, …)
    c. Diru-sarreren galera
    d. Kalte materialak
    e. Kalte moralak (mina eta sufrimendua, larritasunak, apalkuntzak, …)
    f. Besteak beste, laguntza juridikoak, laguntza psikologikoak, adituen laguntzak edo botikek sortutako gastuak.
3. **Errehabilitazioa:** Arreta osoa barne hartu behar du. Zerbitzu horiek zuzenean eman daitezke edo kalte-ordainetik bereiziko den zenbateko aske gisa.
    a. medikoa, saio edo esku-hartze mugarik gabe eta genero-ikuspegia kontuan hartuta.
    b. psikologikoa, saio edo esku-hartze mugarik gabe eta genero-ikuspegia kontuan hartuta.
    c. juridikoa, saio edo esku-hartze mugarik gabe eta genero-ikuspegia kontuan hartuta.
    d. sozialak, saio edo esku-hartze mugarik gabe eta genero-ikuspegia kontuan hartuta.
4. **Ordaina**: Diruzkoak ez diren neurriak, ordaina zentzu zabalean eta epe luzera ordaintzea lortzen laguntzen dutenak.
    a. Neurri eraginkorrak, indarkeria-egoera gehiagorik gerta ez dadin lortzeko.
    b. Gertaerak egiaztatzea eta egia jendaurrean eta osorik ezagutzera ematea, hori ezagutarazteak biktimaren eta bere seme-alaben segurtasunari eta interesei kalte egiten ez dien eta horientzat mehatxua ez den heinean.
    c. Emakumearen eta bere seme-alaben duintasuna, ospea eta eskubideak berrezarriko dituen adierazpen ofiziala edo epailearen erabakia.
    d. Jendaurrean barkamena eskatzea, gertaerak onartzen eta erantzukizunak bere gain hartzen.
    e. Erasotzaileari zehapen judizialak edo administratiboak jartzea.
    f. Biktimari oroitzapenak eta omenaldiak egitea.
5. **Berriro gertatuko ez delako bermeak**: Kategoria horren xedea ez da emakume biktimari eta bere seme-alabei egindakoa erreparatzea, erakundeak erreformatzea eta giza eskubideak errespetatzeko kultura sustatzea baizik. Horra hor hainbat neurri posible:
    a. Agintari zibilek segurtasun-kidegoaren gainean duten kontrola benetan burutzea.

b. Botere judizialaren independentzia indartzea.
c. Zuzenbideko, osasuneko, gizarte-zerbitzuetako, informazioko eta beste arlo batzuetako profesionalak babestea.

**Gaur egun Durangaldean dauden erreparazio-ekintzak**

Jarraian, Durangaldean erreparazio-esparruan burutzen ari diren ekintzak aurkeztuko dira[1]:

- Emakumeei eta neskei egindako indarkeria-mota guztiak, Istanbulgo Hitzarmenean bildutakoak, barne hartu dira.
- Genero-ikuspegia printzipio gidaritzat jo da.
- Bereizkeria anizkoitza aitortu egin da.
- Haurren eskubideak berariaz aipatzen dira emakumeen –neskak barne- aurkako indarkeriaren aurrean.
- Bide zehatz bat ezarri da finantzazioa egokia izan dadin bermatzeko eta, halaber, memoria ekonomiko orokorrean urteko kontu-sailak onartu dira helburu eta ekintzen arabera xehatuta.
- Emakumeen aurkako indarkeriari eta beste indarkeria-mota batzuei buruzko datuak biltzen dira, denbora-tarte erregularretan.
- Badaude emakume eta neskentzako ahalduntze-programak.
- Protokoloan, detektatzeko tresnak eta prestakuntza sortzea agertzen dira, eta horien jasotzaileak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako eta Osasuneko profesionalak dira; halaber, Durangaldeko Berritzegunearekin solasean aritzeko bidea eta udalekin eta Eusko Jaurlaritzarekin eskainitako prebentzioko eta baterako hezkuntzako programak ere badaude.
- Durangoko udaltzaingoak badu indarkerian espezializatzeko programa.
- Biktimei erreparazioa emateko erantzukizunari ekiteko lan egiten ari da eta, eginkizun horretan, epe laburrera martxan jar daitezkeen erreparazio-ekintzak identifikatzen ari dira.
- Erakundeen adierazpen guztietan Giza Eskubideen esparrua berariazko egiten da.
- Emakumeak hala adierazita, udal-mailan eskuragarri dagoen oro eskaintzen zaio bere ohiko bizitza lehenera dezan.

**Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Durangaldeko esku-hartze eta koordinazio II. Protokoloaren esparruan ekin beharreko erreparazio-ekintzak.**

Jarraian adieraziko den gai-multzoa Koordinazio Teknikoko Mahaiak identifikatu eta lehenetsi du. Protokoloa sinatu duten udalek pixkanaka hartu eta abiaraziko (edo, batzuetan, hobetu edo gehituko) dituzten ekintzak dira, horiek egingo dituztela hitzeman baitute. *Urdinez markatutako ekintzak lehentasunezkotzat jo ditu Koordinazio Teknikoko Mahaiak. Urdinez markatutako ekintzak Koordinazio Teknikoko Mahaiak lehenetsitakotzat jotakoak eta Koordinazio Politikako Mahaian onartutakoak dira. Egokitzat jo da 2019an martxan jartzea.*

*Halaber, 2019an zehar, epe laburrera edo luzera abiarazi beharreko beste erreparazio-ekintza batzuk identifikatzea aurreikusi da.*

[1] Ekintzak identifikatzeko: Durangaldeko Indarkeria Protokoloaren Koordinazio Orokorreko Mahaian bildutakoek, hausnarketa egin dute eskualdean emakumeen aurkako indarkeriaren gainean egiten ari den lanari buruz eta, hain zuzen ere, Erreparatzeko Eskubidea aplikatzeari buruz. Gai orokorrekin (jarduketa-eremua, printzipio orokorrak eta esparru-betebeharrak) eta erakundeen erantzukizuneko eremuei buruzko gaiekin (datuak, prebentzioa, detekzioa, arreta, babesa eta erreparazioa) loturiko edukidun kontrol-zerrenda bat berrikusi da. Lan hori Koordinazio Teknikoko Mahaiko kideek egin dute: Osakidetza, Ertzaintza, Udaltzaingoa, Gizarte-langileak, udal guztietako Berdintasun Arloetako Teknikariak.

| | |
|---|---|
| **Kalte-ordainketa** | • Udalak laguntza moduko osagarri bat aurreikusi beharko du ahalduntze ekonomikoa burutzeko.<br>• Etxebizitza eskuratzeko neurriren bat aurreikustea. |
| **Birgaitzea** | • Emakumeek prozesua bukatu ondoren, horien iritziak biltzeko sistema bilatzea, erabat birgaituta sentitzen direla jakiteko. Emakumeak bere burua birgaituta senti dezan profesionalek beren eskuetan dagoen guztia egingo dutela emakumeak aldi oro senti dezala. Horretarako, garrantzitsua da birgaituta nola sentituko litzatekeen galdetzea hasieran, esku-hartzea bere interesera edo eskaerara moldatzeko.<br>• Zerbitzu publiko guztietan intimitaterako eskubidea bermatzea. Eskubidea nola bermatuko den pentsatu beharra dago.<br>• Sare publikoak (eta, hain zuzen ere, Abokatuen Elkargoko indarkeria-arloko txanda) epaitegietarako laguntza eta prozesu judizialaren urrats guztien gaineko azalpen egokiak bermatzen dituela sustatzea.<br>• Udal-baliabide guztietan, genero-ikuspegia kontuan hartuta, emakumearen hizkuntzan itzuli egingo dela bermatzea.<br>• Aniztasun funtzionala duten emakumeei arreta emateko neurriak bermatzea.<br>• Zerbitzu publikoen arreta psikologikoa eta juridikoa emakumeak guztiz birgaitzeko nahikoa eta egokia izango dela bermatzea. |
| **Ordaina** | • Protokoloaren eranskin bat idaztea aurreikusi da, Erreparazio Eskubidearen arabera emakumeak erabat leheneratuko direla bermatzeko udalekin adostutako neurriak jasotzeko.<br>• Gizarte-erreparazioko ekintzak sustatzea aldiro-aldiro, hala nola, omenaldiak, ekitaldiak edo elkarrizketak. |
| **Berriro gertatuko ez delako bermeak** | • Esku hartzen duten profesional eta politikari guztiek erreparazioaren garrantzia uler dezaten eta ahalduntze-ikuspegitik esku har dezaten lortzea. |

# V. ERANSKINA. Hobekuntzak askotariko diskriminazioa artatzean

Protokoloak helburuen artean aintzat hartzen du *askotariko diskriminazio bizi duten emakumeei arreta emateko baliabideetarako eskuragarritasuna eta erabilgarritasuna bermatzea*. 2019. urtean, Koordinazio Teknikoko Mahaiarekin jorratu da gai hori, ildo horretan hobekuntzak identifikatzeko.

Udalaz gaindiko zenbait erakundek (Emakunde, NBE, etab.) urteak daramatzate emakume profil batzuek baliabideak eskuratzeko arazoak dituztela esanez. Zehazki, sistemak dituen mugak kezka-iturri dira, zehazki, desgaitasuna duten emakumeengana (oztopo fisikoak eta kognitiboak), adineko emakumeengana, landa-eremuko emakumeengana, emakume atzerritarrengana (hizkuntza-oztopoak), kontingentzia bat baino gehiago duten emakumeengana (gaixotasun mentala, mendekotasunak, patologia duala, bazterketa...) iristeko eta/edo haiek artatzeko.

**Erabilgarritasuna eta eskuragarritasuna** aipatzen ditugunean, elkarren artean oso desberdinak diren askotariko alderdiak biltzen dituen erronka bati aurre egiteari buruz ari gara (esku-hartze mota, espazio fisikoaren diseinua, baliabideak zenbait gizarte-beharretara egokitzeko gaitasuna, etab.).

- Baliabideen erabilgarritasuna esatean ez gara ari dauden beharrak asetzeko behar adina baliabide daudela soilik (kopurua), baizik eta baliabide horien kalitatea askotariko alderditan: ahalduntzen laguntzen duten prozesuak; erreferentziazko profesional bat duten prozedurak, larrialdiak gertatzen direnean itxarote-epe laburrak, etab.; anonimotasuna bermatzea, konfidentzialtasuna eta diskrezioa, etab.; kasu bakoitzaren beharretara egokitzea, etab.
- Eskuragarritasuna lotuta egon daiteke baliabideetarako sarbide fisikoarekin nahiz hizkuntza- eta komunikazio-alderdiarekin, besteak beste. Irisgarritasun fisikoa lotuta dago baliabidera egoki iristeko mugikortasunarekin, garraio publikoa izatearekin, baliabidea erdigunean kokatuta egotearekin, pertsona guztientzat egokitutako leku fisikoa izatearekin, zenbait arreta-puntu izatearekin, segurtasuna… Komunikazioaren alderdian, hauek izatea azter daiteke: zenbait hizkuntzatan idatzitako informazioa, ahoz zenbait hizkuntzatan jakinaraztea eta Braille bidezko seinaleztapena edo komunikazio handigarria, interpreteak, itzultzaileak, keinu bidezko hizkuntza eta kultura-bitartekariak.

Horrez gain, kontuan izan behar da **emakume profil bakoitzak** (adineko emakumeak, desgaitasuna duten emakumeak, bazterketa-egoeran dauden emakumeak, neskatoak, gaixotasun mentala duten emakumeak eta abar) zenbait zailtasuni egin behar diola aurre unean bizi duen egoera dela eta. Horrez gain, gizarte-kategoriak berez elkarrekin lotuta daude, eta horrenbestez, beharrezkoa da dimentsio anitzeko oinarri bat izanda pentsatzea.

Ez da ahaztu behar**, baliabide bakoitzerako** irisgarritasuna desberdina izan daitekeela eta indarkeria bizi duten emakumeak artatzen dituen baliabide bakoitzak bere irisgarritasun- eta erabilgarritasun-arazoak izan ditzakeela.

2019. urtean, zenbait gai identifikatu eta protokoloari gehitu zaizkio, indarkeria bizi duten profil jakineko emakumeen arreta hobetzeko:

- **Osasun mentalaren esparrua** formalki gehitu zaio protokoloari. 2020. urterako, Durangoko Osasun Mentaleko Zentroko ordezkari bat Koordinazio Teknikoko Mahaiko kide izango da. Programatutako bileretara bertaratuko da eta une bakoitzean jorratutako hausnarketetan parte hartuko du.

- Harremanen esparruan, zenbait emakume profilekin zuzenean lan egiten duten udalerriko **gizarte-erakundeak** kontuan izango dira (desgaitasuna duten pertsonen elkarteak, gaixotasun mentala duten pertsonenak, emakume atzerritarrak artatzen dituzten elkarteak, bazterketa-egoeran dauden kolektiboak babesteko erakundeak eta abar). 2020. urtean, protokoloa sinatu duten udalerrietan zer gizarte-erakunde edo -entitate dauden identifikatuko da, eta haiekin bilera bat egingo da, protokoloaren berri emateko, lankidetza modu posibleak eratzeko, protokoloan zer hobetu daitekeen identifikatzeko eta abar.

# VI. ERANSKINA Terminologiaren egokitzapena eta kontzeptuen bilakaera

Gizarte-zientzien eta esku-hartze sozialaren esparruan, terminologia etengabe bilakatzen da, errealitate berrietara egokituz edo jarduketa-esparrua hobeto ulertzea eta berdintasunezko hizkuntza inklusiboa eta bidezkoa lortzea xede duten aldaketa ideologikoekin bat eginez.

Protokolo hau ere, dokumentu bizia eta aldakorra denez, ingurunean sortzen diren aldaketa terminologikoetara egokituz doa. Eranskin honen bidez, protokoloan erabilitako termino jakin batzuk izendatzeko modu berrietara egokitu nahi dira, bai eta beste kontzeptu esanguratsu batzuk garatu ere. Zehazki, egokitzapen hauek planteatu dira:

- **Aniztasun funtzionala** terminoaren (26. or.) ordez *desgaitasuna duten pertsonak*[2] edo *desgaitasun-egoeran dauden emakume helduak, gazteak eta haurrak*[3] erabiltzea.

- Emakumeen aurkako **indarkeria mota** zuzenetan (14. or.) indarkeria pasiboa eta erakundeen indarkeria gehitzea, batez ere desgaitasuna duten emakumeen artean bizi diren indarkeriak. Indarkeria pasiboa esaten zaio emakumeek beren inguruneko isiltasunaren, ez egitearen eta pasibotasunaren aurrean bizi duten indarkeriari, indarkeria-egoeren aurrean jokatzen ez denean edo salatzen ez denean. Erakundeen indarkeria esaten zaio erakunde publikoen esparruan sortzen den indarkeriari (osasun-etxeetan, enplegu-zentroetan eta abar, profesionalen, tutoreen, ikastetxeko kideen eta abarren aldetik).[4].

- Protokoloan desgaitasuna aipatzen denean, *Indarkeria matxistaren biktima diren eta desgaitasuna duten emakume eta neskak. Esku hartzeko jarraibideak*[5] dokumentuan jasotako **zenbait desgaitasun mota** hartzen ditu aintzat: Garun-paralisia, desgaitasun fisikoa edo mugikortasun urria, desgaitasun organikoa, gor-itsutasuna, entzumen-desgaitasuna, ikusmen-desgaitasuna, adimen-desgaitasuna eta garapenaren desgaitasuna, osasun mentaleko arazoak, hartutako garuneko erasanagatik desgaitasun kognitiboa.

---

[2] Organizaciones como Plena inclusión -que representa a nivel estatal a las personas con discapacidad intelectual o del desarrollo- tienen un posicionamiento terminológico claro: "Ante el debate suscitado en torno a los términos Discapacidad/Diversidad funcional, Capacidades Diferentes y otros, la Red de Comunicación de Plena inclusión aboga por conservar el uso del término *Personas con Discapacidad Intelectual* y no otros (diversidad funcional, capacidades diferentes…)". https://www.plenainclusion.org/informate/actualidad/noticias/2017/posicionamiento-de-plena-inclusion-sobre-terminologia

[3] Término recomendado por Emakunde.

[4] También las acciones u omisiones que realizan las autoridades, funcionarios y funcionarias, profesionales, personal y agentes pertenecientes a cualquier órgano, ente o institución pública, que tengan como fin retardar, obstaculizar o impedir que las mujeres tengan acceso a las políticas públicas y ejerzan los derechos previstos en la Ley para asegurarles una vida libre de violencia. https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/es_def/adjuntos/violencia_contra_mujeres_capv_2016.pdf

[5] EDEKA-EMAKUNDE. Indarkeria matxistaren biktima diren eta desgaitasuna duten emakume eta neskak. Esku hartzeko jarraibideak. 2019ko ekaina.
https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_coordinacion/es_def/adjuntos/Pautas_Interv_2019_cas.pdf

# VII. ERANSKINA Osasun Mentaleko Sarea Koordinazio Teknikoko Mahaian txertatzea

Azken urte hauetan, Koordinazio Teknikoko Mahaiak nabarmendu izan du osasun mentalak baliabideak koordinatzeko espazioetan ordezkaritza izatearen garrantzia, osasun mentalaren eta indarkeria matxistaren artean dagoen intersekzionalitateagatik, kasu hauek dakarten zaurgarritasun-egoera bereziagatik eta eskatzen duten arretak duen konplexutasunagatik.

2020an, Osasun Mentaleko Sareko Genero-indarkeriaren Batzordearekin harremana ezarri dugu, iritziak trukatzeko eta mahaira haien ordezkari bat ekartzearen aukera aztertzeko. Oso harrera ona izan du proposamenak, eta Batzorde horretakoek aukeratu dute Koordinazio Teknikoko Mahaian osasun mentalaren arloa ordezkatuko duen pertsona.

Eranskin honen bidez, konpromiso hori jasota utzi nahi dugu, txertatze berri horri dagokion garrantzia emanez, eta Mahai Teknikoak nahiz Osasun Mentaleko Sareko Genero-indarkeriaren Batzordeak ekimena bide onetik eramateko duten interesari balioa emanez.

Koordinazio Politikoko Mahaiak onartu du aipatutako txertatze hori.

